

JAKIN

JOXE AZURMENDI
MANEX NIRE OROIPENEAN

ITXARO BORDA
MANEX ERDOZAINZI-ETXART IDAZLE

AGURTZANE ORTIZ
MANEX ERDOZAINZI-ETXART. BIBLIOGRAFIA

PAULO IZTUETA
JOXE AUSTIN ARRIETAREN LITERATUR LANAK

JOXE AUSTIN ARRIETA
HIRU LIBURU, HIRU BEGIRADA

JESUS ETXEZARRAGA
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
KIKE AMONARRIZ
EGUNEN GURPILEAN

86

URTARRILA-OTSAILA 1995



JAKIN

86

URTARRILA-OTSAILA 1995



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Turismo Departamendua



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AI NAGUSIA	
		11
	JOXE AZURMENDI MANEX NIRE OROIPENEAN	
		19
	ITXARO BORDA MANEX ERDOZAINZI-ETXART IDAZLE	
		27
	AGURTZANE ORTIZ MANEX ERDOZAINZI-ETXART. BIBLIOGRAFIA	
G	AIAK	
		41
	PAULO IZTUETA JOXE AUSTIN ARRIETAREN LITERATUR LANAK	
		65
	JOXE AUSTIN ARRIETA HIRU LIBURU, HIRU BEGIRADA	
E	GUNEN GURPILEAN	
		99
	JESUS ETXEZARRAGA XABIER MENDIGUREN ELIZEGI KIKE AMONARRIZ	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1995eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	5.000 pta.	—
Ale arrunta	850 pta.	1.225 pta.
KANPOAN		
Harpidetza	5.500 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	925 pta. (40 FF)	1.400 pta. (60 FF)

SUMMARY

MANEX ERDOZAINZI-ETXART, WRITER AND POET *JOXE AZURMENDI, ITXARO BORDA, AGURTZANE ORTIZ*

Manex Erdozainzi-Etxart, the writer and poet from Bajanavarra, was born in Ibarla (1934) and died in Toulouse in 1984. In addition to being a literary writer, he contributed to numerous magazines on both sides of the Pyrenees. He participated in Jakin between the years 1957 and 1968. Now ten years after his death, our magazine wishes to pay

him a humble homage by publishing several works on his life and work. Joxe Azurmendi remembers him as a person, Itxaro Borda assesses his literary work and Agurtzane Ortiz provides us with an exhaustive bibliography of the author, his books, poems (both published and unpublished), articles and essays.

THE POETICAL WORK OF JOXE AUSTIN ARRIETA *PAULO IZTUETA, JOXE AUSTIN ARRIETA*

The main theme of both of the studies we present here is the poetical work of a contemporary author, Joxe Austin Arrieta, born in San Sebastián in 1949. The work of Paulo Iztueta, cultural researcher, gives an account of the three most important facets of the author: the novel, the translation and poetry. Yet he focuses his study on the analysis of the author's poetical work, his literary style, vocabulary and use of verb,

etc. The following work constitutes a self-introduction by the poet Joxe Austin Arrieta: three works, three views. He situates his three published works of poems within the spectrum of contemporary poetry and he delves into his own writing, intentions, options and particularities in the form of a permanent dialogue among the various characters from his poems.

NEWS TODAY
VARIOUS AUTHORS

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following university, sociolinguistic and literary-related matters. This section draws on

various specialists: Jesus Etxezarraga, journalist for ETB (Basque television), Kike Amonarriz, sociolinguist, and Xabier Mendiguren Elizegi, philologist and literary director.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 86. zenbakia da eta 1995eko lehena.

Zenbaki honetako orririk gehienak, ia denak, literaturare n inguruan moldatuak dira: bi idazle, bi poetaren lana aztertzen da beraietan. Egia esan, ez jatorrian eta, ezta ere, azterketa-moduan dute zerikusirik bi artikulu-multzook.

Gai nagusia-ren lekuan eman dugun Manex Erdozaintzi-Etxarten aurkezpenak omenalditxo bat izan nahi luke. Nafarroa Behereko Ibarlan, 1934an, jaio eta Okzitaniako Tolosan 50ekin hil zen idazle honek omenalditxo hau baino gehiago ere merezi du. Olerkari gisa da ezaguna Manex, baina guk ez dugu ahaztu nahi *Jakin*-en ere idatzi zuela. Hirugarren zenbakian hasi zen gurean idazten, 1957an, «Edouard Herriot» politiko frantsesa aurkeztuz eta 1968an amaitu zuen titulu esan-guratsuko saio honekin: «Egunean eguneko borroka».

Heriotzako hamargarren urteurrena dela eta, Manexen pertsona eta idazlana ezagutzera emanaz eskaini nahi diogu omenaldi xume hau. Joxe Azurmendik, lankide eta lagun izan bai-

tzuen aldizkarian, oroipen bat eskaintzen dio. Itxaro Bordak, Iparraldean lagun, Manexen liburuak erreparatzen ditu. Eta Agurtzane Ortizek lan handiago baten hasikina eskaintzen digu bibliografia honekin.

Gaiak sailean beste idazle bat dugu aztergai, Joxe Austin Arrieta. Paulo Iztuetak Arrietaren idazlana aztertzen du, autoreak berak bere obraren autoaurkezpena egin aurretik. Bi idazlanok hitzaldi gisako bertsio bana dute jatorrian: 1994an, Deustun eta Donostian, Joxe Austin Arrietak bere olerki-lanak aztertu zituen, eta Donostian, Paulo Iztuetak, samera-moduan, aurkeztu behar zuen autorearen idazlanak eta idazkera arakatu zituen.

Egunen Gurrpilean sailak eraberritu on bat hartu du, urtearen hasierarekin batera, ohiko jokabideari jarraituz. Lehengo taldeko bi partaide gorde ditugu, eta bi berri sartu, Jesus Etxezarraga eta Lontxo Oihartzabal. Oraingoan ezin izan badu ere, hurrengotik aurrera aztergai berri bat ekarriko digu Lontxo Oihartzabalek *Jakin*-en orrialdeetara: Unibertsitatea. Beste hiruek kultura, liburua eta hizkuntza lantzen dituzte.

G AI NAGUSIA

JOXE AZURMENDI
MANEX NIRE OROIPENEAN

ITXARO BORDA
MANEX ERDOZAINZI-ETXART IDAZLE

AGURTZANE ORTIZ
MANEX ERDOZAINZI-ETXART. BIBLIOGRAFIA

MANEX NIRE OROIPENEAN

JOXE AZURMENDI

Azentu gozo bat zeukan, zigarro txar batekin ezkerrean, eta aurpegi on borobil bat, irribarrez begi txikiak, eta beso osoa berarekin eramaten zion eskuineko eskuarekin keinu zabal pausatua —habitoarekin bazegoen guztiz gain— mintzoari espazio doia markatzen airean. Manex nik horrela dut gogoan. Eta ohartzen dut, orain, ezagutu ez zutenentzat haren orri batzuk baino geratzen ez zaigunean, zer Manex gutxi geratzen horietan zinez, ikusi berritan solas-taldeko beste bat gehiago jende artean irudi zuen eta izpiritu arras berezi maitagarrria errebelatuz emeki-emeki aritzen zen Donapauleko frantziskano apal fazeta-aberats eta harrigarri hængandik. Eta «Gaztarorat doi-doi heldua/ Etxetik joan behartu izan

zitzia kan eskoletarat», aurkitzean orain haren paperetan, «Diotenaz gain oraiko mendean/ Ez dela jakitaterik gabe ibili behar!», irakurtzen dugu eta, esaldi sinplearen azpian, haren hitzaren doinu bere-bere aspaldiko hura berpizten zaigu berriro, bera ezagutu genuenoi, testu barnean ttortta-ttortta urrungo marmarizo bizi, edozein esalditan ironia ozpin bat eta sentimendu delikatuena, ezaxola antzean, armonizatzen beti, ezer pasako ez balitz bezalaxe, irribarrea inoiz galdu gabe.

Antigualeko jakintsu moderno bat ematen zuen askotan. Asiako santu bat bezala, bera zen gizon harrigarria beste misterio gabe baina.

Manex, txikitan menditik hirira transplantatua, bere lurra-
ren maitalea, Freuden obran aditua, mota guztietako papere n
irakurle gosea, teinka milaren armonia zail eder bat izan da, izan
e re, armonia gutxiko bere denboran. Egia esan, gizarte hone-
tan ia mirariak bezain gutxitan ikustea tokatzen den, krisi-ga-
rai honen kontraesanen, eta norbere barne a ren interes minen
eta masa-mugimendu erradikalenetako ideologi en, borroka
sozialaren eta nazionalaren, tradizioaren eta modernia ren, biho-
tza ren eta liburuaren, bokazio intimo erlijiosoaren eta kultura
laizista ezeren errespetu gabeko baten artean etengabe pozoin-
tzen zaizkigun —geure barnean gehien-gehiena, beste inore-
kin baino askoz gehiago— oposizio guztien, armonia zabal per-
sonalena eta beteginena. Manex borroka eta lana izan da,
fedea izan da, aholkua, laguntasun isila, militantzia, igurikapena,
arma bat eta kandela bat ilunpean: sumaren suman, poesia.

Idatzi baino, egunean egunean inkarnatu eta bizi egin bai-
tzuen poesia kontsekuenteago, bere meditazio, zerbitzu eta
borroka-existentzia ez oso luzean.

Bere barru horretan deskubritu zuen Manexek Euskal
Herria, errumes hori, poeta dela. Barnean bera zen euskaldu-
nean ikusi zizun. «Holaxe, hil nahiko digute poeta den geure
herri librea..., baina behin ere ez da entzun poeta herri bat
holaxe hiltzen denik...» Poesia esperantza da. Bere barruko
maitasunean aurkitu zuen esperantza. Esperantza arrazoia
da. Baina da arrazoia, lehenik borroka delako, lana delako,
matxinaldia eta iraultza eta gorbizia delako. «Poeta den herri

isildu honetan» hasita dagoen iraultza, ez dakiguna zenbat urte edo ehunurte eskatuko duen, baina hasi duguna, ezerk ez baitu geraraziko engoitik.

Kasu, tolerantzia pertsonifikatua bezala zen Manex bera pertsonalki. Esan beharra dago apika, propagandak honez gero iraultzaileak beste gabe intolerantiaren deabruzat estanpatu nahi izaten dizkigun honetan. Tolerantea zen hain zuzen sakon-sakonki, ez tolerantziaren komediantea, «guztia-barka» edo guztia berdin bost axola. Bere lekua garbi zeukan. Beraz, tolerantzia ez zuen egiten «birtute» bat, naturaltasun guztiko espresioa baizik, hurkoa errespetatzeko ideietan edo kredoa adostasuna behar ez duenaren manera irekian (askotan ez ote da tolerantzia «berdin pentsatzen dutenekin» izaten zailena?), diferentziari horregatik uko egiten ez dionaren fermutasun guztiz halere.

Parentesi bat izan da hori. Manexen kezkek bestela ez baitira «ariketa sozialen» eta Rambouillet edo Ajuriaeneako gortesiaren kunplimendu txukunean egon. «...Neurriak badira oso finkatuak. Irakasten eta ikasten direnak. Beraz jakin eta segitu behar direnak. Neurriak badira kutxa baten barruan poesia errexiarazteko. Neurriak badiren bezala lanegiteko, familiatzeko, eta hil ondoan ehortzia izateko. Neurriak ez dira gainditu behar. Bestela, kasu zuri». Ordea Manexek hain zuzen gizakiaren bizimodu zakurra estekatzen duten neurriok guztiok, ez derrigor apurtu, baina hor bazterrera utzi, nahi baititu: «Eta poesiak, orduan, amets egiten du nola kanta, nola dantza, nola irriegin, nola josta, nola ere burruka... bizitzea libro bali-tzaio. Eta poesia-amets bat agertzen da anitzetan edozeinen begietan, ezpainetan, eskuetan, zangoetan, gorputz osoan...» Ameslari horiekin zegoen Manexen ametsa, poesia.

Prometeo historia zaharrea Zeusen burdinetan egon bada lotuta, Zeusen burdintzarrik ez zaigu falta orain ere (Parisekiko menpetasun ekonomiko eta politikoak, esaterako, Iparraldea odolusten, burdin barbaro bezala baino ez zituen juzkatzen); baina mundu sutil konplexu bat da, batez ere, bere arima barruraino mila kate meheren sare ikustezin batean presoago daukana gizaki modernoak, bere hezkuntzaren, bere erlijioa-

ren, bere obligazio zibilen kontzientziaren presondegian. «Presuner ohi» heroikoa, bere heroismoaren ipuinean orain preso, adibide bat besterik ez da beste mila artean.

Manex, psikologia estudiatu zuena, baina bere jendea bihotz arkin ezagutzen zuena, abertzalea eta borrokari soziala izan da. Ez kontzertu ekonomikoren baten edo estatuturen baten ametsarekin. (Eta ez dut esaten horiek muntarik ez dutela). Mundu berri baten helburu zabalagoarekin baizik. Mundu berri bateko Euskal Herriaren esperantzarekin. «Zuberoako mendietako/ neska liraina/ Kristina»ri hala aitortu dio behin, «heure hemezortzi urteekin/ aurtengo bedatsian/ ipuiak kondatzen hasi/ haizena»:

Egunen batetan, taigabe,
hirur ehun mila ipui
asmatuko ditun eta kondatuko
heure lagunekin eta besteekin
gitarraren musika zoragarriaz...
hirur ehun milako jendetze honek
biziaren pilpira sendi dezan
bere hezur-mamietan...

«Pariseko maiatza» baino lehen idatzi zuen Manex gazteak Parisen bertan: «Eta nere baitan sumatzen dut/ kitzi-kitzi/ euskaldun berri bat sortzen,/ euskal populu berri bat itxura hartzen:/ Europan!/ Munduan!» Ekonomia azkarrago bat edo administrazio politiko lurkartan hobeki apailatu bat soil baino gehiago begiesten zuen etorkizunerako. Libertateak, esanahia, Errepublika eta poltsa baino handiagoa zuen harentzat. Amesti bat ote zen?

Amestia bai, noski; zakur-amestia, ez. Herri eta jende honentzat egiten zuen amets. «Titulurik ez duen herri honen mailan/ Famarik ez duen herri honen barruan/ Ohorerik ez duen herri honen apalean» paratu zen.

Beste mila gauzatan hain diferentea, funtsezko gauza batzuetan Manexek adin ia bereko Arestirekin bat-bat egiten zuen. Herriaren bion kontzeptuak oso-oso konkretuak izan dira. Are, esango nuke, Aresti oraino bere egiazko herriaren bila zebi-

lela Hegoaldean, Manexek berea oso goizik ongi aurkituta zeukala, herriz herri maiz pasa eta erreparasatzen zuen Iparralde osoko emazte eta gizon-jende konkretuan, gazterian bereziki, eta baita Hegoaldeko lan eta kultura-mugidako lagunetan ere, borroka armatuko militanteak ahaztu gabe. Manexen herria «euskal herri» pobre langilea izan da, «elea ito» diotena, historia ukatu, lana limosnan eskatzera edo emigratzera kondentatu, lurra pezaz peza saltzera hertsatu:

*Aurten ere
gure herri langile honen izerdiaz
busti dituk pentzeak, alorrak,
zuhaitzen hostoak...*

*BAINA
herri xume honen haurretan
zenbat
ez ote dira lanik gabe gertatu?*

.....
*Aurten ere
iguzkiak berotu zizkiguk
geure mendiak, zelaiak, itsas-hegia...*

*BAINA
herri xoragarri honen erraietan
zenbaten begiak ez ote dira lanbrotu
han edo hemen
etxalde edo lur peza bat
nonbaitik etorriek erosi dutela
jakitean?*

Manexek bere herri konkretuarekin sentitu du, sufritu du. Bere barruan haurtzaroko iturriaren melodia isilezina bezala ttortta-ttortta, taupa-taupa bere baitan somatzen zuen herri horrekin («Hiri beha eta hire lagun, lurpez-lurpe/ ezin asper-tuz niabilak, zoratua, oren luzeak»). Hain zuzen, abertzaleek «herri abstraktu» batekin operatzen dutela, erasiatu ohi dutenei, begien aurrean Manex erakusteko ematen du gogoia, bera bakarrik baita nahikoa erantzun: bakarrik, alferrik izango litzateke, horiek ez dute euskaraz irakurtzen. Guretzat, aldiz, inpresionantea da beti, Manexen ideiak eta utopiak zein «hara-

gizkoak» diren; eta lurra, Péguyren «aberri karnala», jendea, lana, zein diren bilduak denak Manexen idealetan eta utopian, beti hain bere-bere izan duen armonia gozoan, bake berri baten etxegintzarako asmotan.

Borroka armatu²ten eta eusten ziola —ez, ez dago paradoxarik—, ez dakit zenbateraino den egun ezaguna («nire gudu lagunak/ mendiz-mendi doatzino/ haizatuak, tirokatuak, gartzelatuak,/ zanpatuak»), baina garrantzikoena ere agian ez da horixe. Manex iraultzailea izan da (horregatixe, inoiz ez da fanatikoa izan). Hau da, Manex antikapitalista izan da, esaterako, edukinik gabeko moda-hitzetan ez geratzeko. Garbi eduki du kapitalismoa gainditu beharra. Nola? Hori beste puntu bat da. Nolanahi ere kapitalismoa ez da humanoa. Basakeria hutsa da. Horrek ez du esan nahi sistema hobe bat eskuan badaukagunik. Eta honek, ostera, ez du haren basakeria ezertan gutxitzen. Manex autogestioaz interesatu da, kooperazioaz, «aurpegi gizatiarreko sozialismoaz». Bilatu egin beharko da formula... Baina aktiboki bilatu, borrokan eta lanean iraunez, egunean-egunean, konfidantza osoa edukiz, historia joango dela sortuz lanaren jabe langilea eta herriaren nagusi herria bera bihurtuko duen formula, bat-batean ez bada, emeki-emeki hainbat denbora eta langarrenean.

Hori da, etengabeko lanean eta borrokan, gizadiaren poemagintza handia; hori da denon artean egiteko euskal poema nazionala («Poesia drama bat da eta giza errealitateaz beti mintzo da»): askatasun humano bat, geure askatasun bat, geuk egina. Iraultzak, horrela, jainko ahaltsu baten *fiat* haserre sutan kreatzailearena baino, herri xume baten Martxa Luzearen irudia hartzen dizu. Konformista, historiak egiten du, berak ez du historia egiten. Holakoa, euskaldun gehiegi egon da. Orain, ordea, «xutitu gaituk/ xutik egonen gaituk», Euskal Herriak bere eskuan nahi du hartu bere geroa. Hasi da martxan, ez dute geraraziko. «Ez dut maite barne hertsu eta hetsi batean/ gakoturik edo, zakurra bezala, estekan egotea», esan du Manexek. Jarrai, jarrai —«Maite dut urratsa eta bideko errautsa!»— mundu berri batera bidean, askatasunaren erai-kuntzan, hori baita herri baten *poiesis* autentikoa.

Arren, poesia ez da zu eta ni bezalakoetarik kanpo gertatzen. Gurekin sortzen da. Gugan bizi da. Bulta hontan ohartua naiz laborariak, langileak, ofizialeak, beren eskuez materia hunkitzen, erabiltzen eta moldatzen dutenak, poetak direla. Beren begiez, beren beharrez, beren mihiatz izadia eta izakiak ikusten, entzuten eta jastatzen dutenak, poetak direla. Nere anaia laborariak eta ofizialeak, aspaldian ohartua naiz, poetak direla beren urratsetan, beren lanetan, beren inguruetan, beren asmoetan, beren gustuetan, beren eleetan. Nere sort-herriko laborariak, Bilboko ala Donostiako ala Mauleko langileak beren fabriketan, artzainak beren mendietan, arrantzaleak itsaso gainean, ohartua naiz langile mota guziak poetak direla. Kexatzen direlarik, manifestazionetan elkarri tinki-tinkia lotuak, karrikaratzen direlarik ala, besta egunetan, ostatu eta plazetan edo berdin gure elizetan alaiki biltzen direlarik, gure herriko langile mota guziak, poetak direla nik ongi badaikit. Eta poesia ez dela soilki sentimendu bat. Tripako min bat da: intziri, garrasia, oihi eta otoitz! Burruka baten elea da: gure kasuan, bi parte puskatua izan den herri langile baten elea; bi mende hautan zapaldua eta herrestan ibilia izan den herri langile baten mintzoa. Egia erran, hori zaie zenbaitzuri ez gustatzen gure poesian. Nahiago zuketan errorik gabeko arbola baten itzala, hotzak hilik erortzen den txori baten azken kantua, bizia galdurik ixiltzen den herri baten azken hasperena... Kontzientzia lasai, zenbaitek hori bera nahiko zuten gure herri langileari gertatu balitzaio. Baina gure herri langileak emeki emeki sortu ere du bere burruka elea. Poesia burruka bat da, bere buruaren jabe izan nahi duen herri langile baten elea; bere manifestazionetan, bere teatroetan, bere bertsolari saioetan, bere kantaldietan, bere toberetan, bere ikastoletan, bere alorretan, bere uzinetan, bere portuetan, bere elizetan, bere artist lantegietan, bere karriketan... daraman bere burrukaren neurriko elea».

Manexek, bera zen bezalakoxea izanez, eta pentsatzen eta sentitzen zuen bezalaxe pentsatuz eta sentituz, egin du sintesia. Letek, esate baterako, eta belaunaldi horretan halako askok, bere ideia politiko eta sentimentuen artean eta fede erlijiosoaren artean konfliktu jasanezin bat aurkitu du, eta hala protestatuz kantatu du. Leteren kontraohartzun bat, kuriosoa da, bi frantziskotarrek kantatu dute, Manexek eta Gandiagak.

Badakigu, borrokari lotzeko ez dago kristau fededuna izan beharrik: baina Manex fededuna zen. Ez dago haurtzaroko

pentze, iturri, supazterrak oroitu eta maitatu beharrik; bere belaunaldiko gehienak orduantxe «hiritarrak» eta unibertsalak agertzeko permatzen ziren: baina Manexek Euskal Herriko loreak, arbolak, bideak, bere lagunak bezala maitatzen zituen; eta haurtzaroko iturriak, pentzeak, beren izen propioekin —Putzunde— zituen oraino bihotzean. Eusko lur epelaren sentimendu handi bat zuen barru-barruan. Gizakiak eta lurra familia handi bat bezala ziren, loreak eta umeak, laborariak eta pentzeak, abereak, izarrak, iturriak, lantresnak, hego-haizea. Jendearen injustiziak, nigarrak —«neure herriko lanak, izerdiak, nigarrak»— lurraren sufrimendua bezala sentitzen zituen. Lurraren historia tragikoa bezala ikusten zuen gizakiaren historia. Eta munduaren bere ikuskera, sentimendua, konpromezu soziala, borroka abertzalea, bere fedearekin biltzen eta argitzen zuen dena, sintesi pertsonal handi batean. Sintesi hori bezala dago niretzat Manex, bere irribarre txikiaz beti zigarrotxar batekin, nire oroipenean, armonia pertsonala, ideologikoa, estetikoa, erlijiosoa. Hain hurbilekoa eta hain miresgarria halere egiten zuena. Seguruena hor zegoen, azentu gozo harenekin, bere maitagarritasun zohardi haren sekretu guztiz partikularra.

MANEX ERDOZAINZI-ETXART IDAZLE

ITXARO BORDA

Azken berrogei urte hauetan, Euskal Herria inarrosi duten «saltsa orotako xalhia» izan denaz mintzatzea ez da erraz. Manex Erdozaintzi-Etxarten kasua da, eta mintzalari bat baino anitzez gehiago behar liteke, gizonaren alde guzien barnaki aipatzeko edo ikertzeko. bertsolariei bezala, eman didaten gaia «Manex Erdozaintzi-Etxart idazle» suertatu da. Halaz, obra zabal eta aberats baten sekretuen zilatzen saiaturako naiz, jakinez seguraski oraino ere alor ugari ilunpean geratuko direla eta zaizkidala.

Bizi osoa idazten iragan duela erraitea gutxi da. Idazte ekin-tzaren munta eta neurria agertzen baldin bada, konturatzen ga-

ra Manexek zerabilen hitzaren leizeak hondorik ez duela, eta urteak beharko direla hitz multzoen argitara ekartzeko. 1949ko martxoaren 29koa da ezagutzen diogun lehen olerkietarik bat. «Le Jour De L'Exilé» tituluarekin, Brivesko seminarioan eri zen batez papereratu zuena. Hamabost urte zituen orduan. Baina pentsa dezakegu, antzinagotik berdinki, etxera eta amari igortzen zizkion gutunetan olerkitxoak kausitzen ahal zirela. Dударik gabe, idaztearen bokazio edo gustu goiztiarra ukan zuen Manex Erdozaintzi-Etxartek.

Garai haietan, etxetik urrun zegoen. Idaztea euskararekilako bezain herriarekilako lotura sakona zen harentzako, hots exilioa arintzeko moldea. Etxera eta egunero beltzatzen zuen ingurazti pertsonalean idazten zuen bitartean, euskal kulturaren ganako interesa lantzen ari zen Manex Erdozaintzi-Etxart, *Gernika* aldizkaria irakurriz eta han ateratzen ziren koplak eta kantuek kopiatuz. Halatan, sabaiak idatz-nahikundez eta jakintzaz bete ondoren, hasi zen ibarlarra, iparraldeko beste gazte askoren gisa, artikulua *Herria* astekarira bidaltzen. Ondorioz hamabost-hogei urteko arteka hortan dastatu idaztearen tiriari ez zion sekula uko eginen.

Apeztu bezperan eta apeztearekin, idazteari funts berri bat eransten dio: euskaldun jendearen kontzientzia loakartuen iratzararaztea. Gorago azaldu dugun egunkari pertsonala hornitzeaz gain, egunez egun, kolpez kolpe, Euskal Herriak eta herri honetako jendeek pairatzen zituztenak literaturara pasatzearen, olerkiak herronkatzen zituen: oroit-bideko mila hitz-harri kokkor. Bizkitartean, aldizkari frangotara helarazten zituen testuak eta kolpez kolpekako poesiak: *Jakin*-ko iparraldeko luma bakarra izan zen luzaz: *Egan* eta *Eusko Gogoa* delakoetan parte hartzen zuen eta *Gure Herria*-n ere bai.

Gure Herria-n hain zuzen, Piarres Lafittekin polemika mingar bat eduki zuen 1956an «Euskal kultura baten behar gorria» gaia, eztabaida sutsu bilakaraziz. Orduko euskal mundu kulturala solas gogorrez zirikatzen zuen: «Euskaldun izaiteko ez da aski ogitea bilkura bat hoben, bazkari bat hor, frantsesegiz egirikako mintzaldi zonbeit artetan. Ez da aski dantza, pilota eta ohitura zonbeiten begiratzea». Artikulua «*M. Ostogia*» izengoitiaz

sinatu zuen. Hitz horietan, Manex Erdozaintzi-Etxartek iduriz Bazkaltzaleen Biltzarra bilakatzen ari zen Eskualtzaleen Biltzarra zuen gibelaipagai. Piarres Lafitten mihi zalhuak ihar-despen lakonikoa eman zion arrunt: «Otoi ez zitela hainbertzetaraino hasarra bertzen kontra; eta dakizunaz geroz zer den egiteko, lot zaizkio zuhaur lanari!» Lafitten gomendioaren obratzeari uztartuko zitzaion Manex Erdozaintzi-Etxart handik hara, iparraldeko bakartasun kulturalik handiengan. Iparraldeko diogu, zeren denbora haietan, hegoaldeko euskaltzale zenbaitekilako harremanak sendotzen baitzituen: Ion Etxaide, Koldo Mitxelena, Jokin Zaitegi, Norbert Tauer, Barandiaran, San Martin, Onaindia edo Villasante izan ziren haren lagunak.

1960 eta 1970 urteetan zehar, mundu berri baten eraikitzea susmatzen zuen poetak, mundu berriari dagozkion aldaketa-sail guziekin. Birtarte horretan idatzi zituen hain ezagunak egiten zaizkigun «Populu bat zutik» (1967), «Hil zorian ote gara?» (1969) eta Burgosko auzitik landa «Herria izerditan» (1970). 1972tik aurrera Domintxaine-Raforttoeneko «Anaitasuna» anaidia osatu zuten Xalbat Bellemur. Santos Beloki eta Manex Erdozaintzi-Etxartek. Lan, otoitz, idatz eta adiskidetasun leku hauta izan zen Raforttoenea. Susmoen egiaztatze urte haiek arras emankorrak ziren poetarendako. Hor idatzi zituen «Bizitza pilpirak», «Herri honen erraietan» eta «Nafarroari poema irekia», berriean *Maitz* argitaletxeak bilduma batean plazaratu dituenak. Olerkietan, besteak beste, bilduma antzekoetan, 1983ko «Trein honen drangadan» deritzona geratzen da publikatzeko.

Irakur ditzakegun hiru liburuak aztertu baino lehen, ohar pare bat eginen dugu. Badu jadanik hamar urte Manex Erdozaintzi-Etxart itzali dela eta haren obraren hedadura ez da oraino itzartzen. Egiaren erraiteko iduri luke halako ahanzte kolektibo bat jasaten duela Ibarlako poeta xumeak. Aurten agertzen diren lanek behar lukete publikatze eta ikertze sail luzeagoen hastapenak izan. Hori lehenik. Gero hemen argitara emanak ez diren idazkien zerrenda laburra osa dezakegu: hor dago hunkigabea, Manex Erdozaintzi-Etxarten egunkari pertsonala, ingurazti asko, Manexek zituen pentsamenduak, igorri eta eskuratu gutunen testuak olerkien herexak dakartzatenak;

psikologiaz, talde-dinamikaz, politikaz, kulturaz eta soziologiaz izkiriatu artikuluak ere sakabanatuak daude. Manex Erdozaintzi-Etxartek egunero zerbait idazten zuen, eskuan zatxikan lumak pentsatzea errazten eta bideratzen bailuan.

Ardura Euskal herritik kanpo egon arren bere karguen araberan, beste idazleekin harreman indartsuak bazituela erran dugu. Harreman horien lekuko dago 1969an, San Martinek agertu zuen *Uhin Berri* olerki-bilduma. Hor Manex Erdozaintzi-Etxart kausitzen dugu Aresti, Etxamendi, Intxausti, Lekuona, Mikel Lasa, Artze, Luis Mari Mujika, Jose Azurmendi, Paulo Iztueta, Manex Pagola, Gexan Alfaro, Beñat Sarasola, J.A. Irigarai, X. Lete, D. Landart eta belaunaldi hartako poeta gazteen konpainian. Bestalde, ildo horretatik segituz, 1969an antolatu zen Euskal Idazleen Bilkuran parte hartu zuen, euskara batua gaiaren inguruan, *Uhin Berri*-ko kideekin eta Txillardegiri, Xalbador Garmendia, Torrealdei edo Kanblong bezalako zerbaiten obratzeko borondateekin. Geroxeago ere, 1981ean *Maiatz* aldizkaria iparraldean sortu zelarik, Manex Erdozaintzi-Etxartek proiektua oso begi onez onartu zuen. Bilkuretara etortzen zen ahal zuenean, eta 1982ko lehen zenbakirako «*Herri honen erraitan*» eskaini zuen. *Maiatz* kideek Manex Erdozaintzi-Etxart zendu eta ondoko urteetan behin bederen deitu zuen Manex Erdozaintzi-Etxart ipuin eta olerki lehiaketa plazaratu zuten oroitzapenez.

Ibarlako poetaren baitan, euskararen grina jendeek jasaten zutenari tinki lotua zen bati. Ezin bereizi alabaina, mintzoa eta mintzatzailea, biak menperatuak baitabilta, gure kasuan gutxienez. Halaz jendeek ahal bezain hurbila zeukaten euskara batuan idazten zuen, Ibarla xokoko eta Benafarroako euskarari ederki eta armonikoki euskara batuaren lege berriak txertatuz. Euskara dinamiko eta sinkretikoa gainera, eguneroko hizkerarekin/egoerarekin nahasten zuen. Iduripeña ematen zuen, leku orotan idatz zezakeela —trenetan, ostaluetan, zeldan, lanean...— eta honenbestez idazteari debekatzeko zion bizi-lekuetarik ihes egitea.

Aipatu dugu iparraldean Manex Erdozaintzi-Etxartek egarri zuen bakardade kulturala. Artetarik horrek kezkatzen zuen

poeta: bere liburuek ez zuten oihartzunin, ez kritika-izpirik erdiesten, irakurlegorik ez balego bezala. Alta irakurlego bat ba-zeukan, dudarik gabe, baina herriaren pare, ixila zen. Dena dela, Manex Erdozaintzi-Etxarten merezimenduetarik bat liteke idazten tematu zela, egunean egunekoa, egunean eguneko euskaraz. Orain ikusten dugu Manex Erdozaintzi-Etxarten in-gurazti pertsonalak aztertzen baldin badira, Barnekalde ho-netako azken berrogei urteotako historia eraiki dezakegula, gizonaren eta idazlearen haria harilkatuz.

Itxuraz deus ez da, baina garrantzia badute idazki apurre k izkribatzeko ohitura hein batean desbalorizaturik den edozein herrialdetan.

Manex Erdozaintzi-Etxarten sinadura dakarten hiru liburu aurki ditzakegu: 1978ko *Hinki Hanka* olerki-bilduma, 1982ko *Gauaren atzekaldean* «nobelatxoa» berak zion moldean; eta 1994an Maiatzek argitaratu *Bizitza pilpirak* poesiako obra. Bi lehenak ELKAREN eskutik jin zitzaizkigun. Lan bakoitza banan-banan hartuko dugu, ikusteko pixka bat zein bide ja-rraitzen duten.

1978an *Hinki Hanka* agertu zen beraz. Bilduma horretan bil-tzen ziren Manex Erdozaintzi-Etxartek 1956 eta 1976 urteen bitartean idatzi olerkiak. Ramuntxo Partarrieu haspandar ar-tistak moldatu zion azala, eta Pantxoa Saint Esteben zizelka-riaren obren argazkiak kausitzen ziren liburuaren erdialdean. Manex Erdozaintzi-Etxarten bizia —jendalde batena ere ber denboran— seinalatzen zuten hogeita hamahiru poema ze-karzkigun bildumak. Olerki-andana bat jadanik publikatua zen, aldizkarietan han-hemenka. *Hinkii Hanka*-n herri bat irauten, pairatzen, atsegin hartzen azaltzen zaigu «xutik» egoe-ra latzarengatik egun hobeagoen haiduru.

Hinki Hanka-n, olerki hunkigarriez gain, Manex Erdozain-tzi-Etxartek berak egiten dion hitzaurrea oso interesgarria zai-gu, idazlearen barne-bideak eta sinesteak zerrendatzen baiti-tu; zinezko fedezko akta edo kredo poetikoa dela uste dugu, fe-dezko akta guziek duten beratasun eta erraztasun usainarekin. Ordea berritasunik bada: iparraldeko kutsu erlijiozko poesia-ren eta hegoaldean garai hartan idazten zen poesia sozial hu-

tsaren artean bide liriko desberdin bat bilatzen saiatzen da ibarlarra. Manex Erdozaintzi-Etxartek aintzin-solasean erraiten du irakurtzearen plazerrak behar duela leitzailea gidatu eta poesia ez dela gutarik kanpo kokatua den ekintza bat. Herrikotasuna aitortzen zuen, eta agian, horregatik da oraino ere hain ezezaguna Euskal Herrian zehar Manex Erdozaintzi-Etxarten lan poetiko gaitza.

1982an *Elkarek* argitaratu zuen *Gauaren atzekaldean* nobelatxoaren *Orhi* sailean, 1973an idatzi zuen «Ilargi umea» lanaren hirugarren moldaketa zen *Gauaren atzekaldean* hau. Anar-tean, «Izerdi guneetan» titulua ere ukan zuen eta Beasaineko literatur sariketa batera igorria izan zen. Urte luzeetako oratzearen ondorioa, azkenean, 1981ean *Elkari* bidali zion. Nekez erditu umea bailitzan, idazleak berak *Gauaren atzekaldean* «nobelatxo» deitzen zuela errepikatuko dugu, autorea liburuaren akats, laburtasun eta maitagarritasunaz kontziente baitzen. Alabaina monologoak luzeak —luzeegiak?— dira eta ixtorioaren haria arras meharra da. Halarik ere iduritzen zaigu liburua, Manex Erdozaintzi-Etxarten literatur bilakaeran urrats bat gehiago zela.

Hinki Hanka-ren bihotza Euskal Herria baldin bazen. *Gauaren atzekaldean* delakoarena Exilio-Gunea zen, Parise hain zuzen, exilio politiko bezain ekonomikoaren gunea. Iparraldeko min-sarraski garratzenetarik bat zuen beraz nobelak gaitzat. Oso bakan izan zen aipaturik exilioa horrelako manera oinazetsuan, desesperatuan eta errealistan. Ironia astunik eta zapart irri-egingarririk ez da Manex Erdozaintzi-Etxarten nobelan: urrun gara Tupintegiko Roxaliren eskematarik. Liburuan, exilioa jasaten dutenenganako amodioa eta elkartasuna sentitzen da hitz bederetan. Nobelan zehar agertzen da, biziki zaila dela herritik partitzea, hargatik iraun behar dela herioak harrapatu edo «etxera» itzuli artean.

Nobelaren haria sinplea da, sinpleegia zenbaitetan: Txomin eta narratzailea biak abiatzen dira hil berri zaien Migel adiskidearen pusken bila, eta pusketan Migelen ingurazti edo kaierra atzematen dute. Kaierrean idatziaren ildotik, Migelen Pariseko joan-etorriak arra-osatzen dituzte, Migelen langile

eta sindikalista lana, haren aktibitate politikoak, amodioak, hots jende exiliatuen arteko harremanen historia da *Gauaren atzekaldean*, gauaren presentziak egoeraren bortitza doi-doia eztatzen duelarik.

Hinki Hanka eta *Gauaren atzekaldean* Manex Erdozaintzi-Etxart oraino bizi zelarik argitaratu ziren. *Bizitza pilpirak* aldiz *Maiatz*-ek publikatu zuen 1994an ibarlarraren itzaltzearen hamargarren urteburuaren karietara. Bilduma horrek biltzen ditu hiru olerki-floka: 1974ko *Herri honen erraietan* jadanik *Maiatz* aldizkarian agertua, 1977ko *Nafarrari poema irekia* eta 1980ko *Bizitza pilpirak* argitaragabeak.

Bildumako hiru idazki-sailak olerki berdinen une desberdinak direla erran dezakegu, hiruak mila pusketan hausten ari den herriaren berbiltzeko saioak: *Herri honen erraietan* delakoan, egoeraren azterketa kasik klinikoa egiten du poetak; *Nafarrari poema irekia* poetak herri bakartiarentzako elkartasun gune bat harrapatzen dio eta *Bizitza pilpirak* deritzon herri izendatuari adiskidetasun eta jende-harremanen berotasuna eranstean dizkio, poeta hats eta hotsemailea bailitzan. Hiru olerkietan, iraganarekilako loturak, geroaren esperantza eta honek zilegitzen duen egoera larriaren onartzeko bezain aldatzeko eskubide pertsonal-kolektiboak agerian daude beti.

Hiru olerkietan euskara xumeki isurtzen da, sekula moralarik edo jujamendurik bota gabe. Baina lirikotasun goxoa gure ustez itxurazkoa da, herri-eskaera askoren oinarri gogorra gordetzeko bezala. «Lasaitasun bortitzaren» poemak dira, poema irekiak.

Bizitza pilpirak agertzeak beharko luke gure arteko poeta zintzo, kementsu, minbera eta indartsu baten ezagutzeko bidea zabaldu. Bizi zelarik haren lanek oihartzun gutxi eduki dute, eta ordua dugu altxor horren aztertzen hasteko. *Hinki Hanka*-ren berrargitaratzeko oztopoak badira, haietan gainditezina dirudielako poesiaren salgarritasunaren eremtabilitatearen muga.

Bukatzeko azpimarratzen ahal dugu —eta horrek ahanzte debekatzen digu...— Manex Erdozaintzi-Etxarten eskuko-

tasun edo disponibilitate literario-kulturala. Prest egon izan zen beti, hasiberriak ziren hemengo idazle gazte zenbaiten akuilatzeko, sustatzeko eta kontseilatzeko, eta izkribatzen ari baldin bagara gaurkoan —ongi edo gaizki baina ez da hori auzia...— hari esker izango da, parte batean. Aitorpena zor diogula pentsatzen dugu.

MANEX ERDOZAINZI-ETXART

Bibliografia

AGURTZANE ORTIZ

Manex Erdozaintzi-Etxart-en heriotzaren X. urteurrena ospatzen den urte honetan, hain obra zabala eta gutxi ezaguna duen idazle honen bibliografia osatzeko premia ikusi dugu.

1934. urtean Behe Nafarroako Ibarla herrian jaioa, oso goiz azaldu zuen Manexek idazteko bokazioa, eta bizitza guztian herri-minak, euskal kontzientziak, fedea eta bere inguruan ikusten eta sentitzen zuen gertakari orok bultzaturik idazteari ekin zion, hainbat zereginak eta karguek uzten zizkioten tarte urrietan.

Erdozaintziren produkzioa, hiru multzo nagusitan bana daiteke: poesia (prosazko idazki literarioak oso eskas dira), artikuluak eta predikuak. Hiruak konstante bat izan dira bere

bizitzan, eta hasiera-hasieratik heriotzerarte, gizon honen hiru alderdiak azaltzen zaizkigu berauetan: poeta, euskaltzale eta abertzalea, eta fede gizona.

Manexen olerkiak eta artikulua Euskal Herriko egunkari eta aldizkari anitzetan argitaratuak izan dira: *Jakin*, *Olerti*, *Herria*, *Maiatz*, *Eusko Gogoa*, *Gazte*, *Elgar*, *Gure Herria*, *Anaitasuna*, *Herriz-Herri*... Bere artikulua goituzen eta laburdura ezberdinez ere sinatzen zituen: Manex Ibarralde, Ostogia, MO, FA, FAEE, AEE. Hiru liburu ere argitaratu dira, nobela bat eta bi olerki bilduma. Hau guztiaz gain, idazlea bizi izandako Donapaleuko Frantziskotarren liburutegian idatzi, paper eta kuaderno ugari dauzkagu: sekula argitaratu ez diren olerki eta artikulua, hauen zirriborro, zati eta aldaerak, igorri eta jasotako gutunak, egunkari pertsonalak...

Gutunak eta egunkariak gero azterketa baterako utziaz, testu hauek bildu, genero ezberdinetan sailkatu eta kronologikoki ordenatu ditugu. Askok ez zuten datarik, eta zenbait kasutan hauen jatorria igarri ahal izan badugu ere, beste kasu askotan askoz zailagoa gertatzen da. Hauek zerrenda bereizi batean ematen ditugu, denborarekin gure ikerketak berauen jatorria asmatzen lagunduko gaituelakoan. Ez ditugu hizkuntzak banatu, euskaraz eta frantsesez dagoena, beraz, batera doa.

Amaitzeko esan, bibliografia hau ez dela erabat behinbetikoa. Autore honi buruzko azterketan murgildu ahala, idatzi eta testu berriak agertuko zaizkigu dudarik gabe, bere bibliografia zabaltzen eta osatzen joango garelarik. Hau lehen pausu apal bat besterik ez da eta gehiengoa eta garrantzizkoena bildu dugulakoan gaude.

POESIA

LIBURUAK

— *Hinki-Hanka*, Elkar, Donostia 1978. 113 or.

1958-1976 bitarteko 32 poema dira, Donapaleun, Domin txainen, Tolosan, Parisen eta Britainian idatziak. Hauetako batzuk *Jakin*, *Herria* eta batipat *Olerti* aldizkarietan argitara-

tuak izan ziren aurretik eta zenbaitzuk ondoren ere. Idazleak berak aitzin-solasa idatzi zuen.

— *Herri Honen Erraietan*, Maiatz, Baiona 1985. 46 or.

1974an idatziriko poema luzea. 1982an *Maiatz* aldizkariaren 1.alean argitaratua izan zen lehen aldiz, eta *Maiatz*-ek berak liburuxka moduan argitara eman zuen 1985eko 5ean. 1994ko ekainean poesi bilduma berri batean birargitaratua izan da.

— *Bizitza Pilpirak, Nafarroari poema irekia, Herri Honen Erraietan*, Maiatz, Baiona 1994ko ekaina. 109 or.

Argitalpen honetan Erdozaintziren hiru poema bilduma dauzkagu; alde batetik *Herri Honen Erraietan* 1985eko forma berean birargitaratua, eta bestetik autorearen paperen artean aurkituriko bi poema multzo ezezagun: *Bizitza Pilpirak* 1976, 1979 eta 1980ko 12 poemez osatua eta Erdozaintzik 1981ean Domintxainen burutua (ez dakigu oraindik nonbaiten argitaratzeko edo aurkezteko asmoz), eta *Nafarroari poema irekia* («Sinesten dut» eta «Errepikak» poemekin batera) 1977koa.

ALDIZKARIETAN ARGITARATUTAKO POEMA SOLTEAK

— «Klotchereko kurutzea» (*Euzko Gogoia*, 5-6 zenb. 1958, 432 or.; Orsay-n 1953ko urriak 31an idatzia)

— «Jauna mintzo» (*Gazte* 1960 ?)

— «Amentsaren lana» (Orsay-n 1958ko otsailak 28; *Gazte*, 1960ko martxoa Mañex Ibarralde izenpean)

— «Biak bat» (*Gazte*, 1960ko otsaila Mañech Ibarralde izenpean. Frantseseko bertsioa ere badago)

— «Au pays de la Corrèze» (*Elgar*, 1961eko urtarrila; Donapaleun, 1960ko azaroak 23an idatzia)

— «Hogoitabortzgarren oreneko meditazioa!» (Arantzazun, 1965eko iraila, *Olerti*, 1966ko azaroa)

POEMA ARGITARAGABEAK

Datadunak

— «Neure amari»(1949ko maiatzak 20)

- «Le jour de l'exilé» (Briven, 1949ko maiatzak 24)
- «Irri egiteko pertsu batzu» (1950ko pazkoa)
- «Neure amari» (1950ko ekainak 4)
- /Itsasoa, itsasoa oi zonbat eder/ (Hendaian oporretan, 1950ko abuztua)
- «Maiteari» (1950ko abenduak 3)
- «Gau batez» (1950ko abenduak 22)
- «Itsasoaren botza» (1950ko abenduak 23)
- /Lili bat ikusi dut baratze batean.../ (1952-53 arteko argazkien artean aurkitua)
- «Amaren amentsa» (1953ko maiatzak 31)
- «Zeruko ama» (1953ko azaroak 4)
- «Chori kantari» (1953ko azaroak 3)
- /Igande gau hartan.../ (Parisen, 1957ko uztailak 1)
- «Larrazkena» (Livry-Gargan-en, 1958ko urriak 20)
- «Bihotzean argi» (Donapaleun, 1960ko martxoak 24)
- «Visage d'ami» (Donapaleun, 1960ko azaroak 23)
- «Han nunbait bidean...» (1964ko udazkena)
- «Amets bat eta beste» (Tolosan 1971eko azaroa)
- «Zure intziriak ama» (1973 ? ; 1972.urte amaieran ama eritu eta 1973ko urtarrilean hil egin zen)
- «Eiherazain Iholdin « (Toberak Iholdin, 1974ko abendua)
- «1975eko odolketak Euzkadin» (1975 ?)
- /Burgosen Barzelonan eta Madrilen.../ (1975eko urrian; hilabete horretan 3 hiriburuetan erahildako 5 euskaldunen omenez)
- «Nor othe giren» (1975eko urria)
- «Zure soa dabila...» (Tolosan, 1976ko otsailak 26)
- /Pagoen hostoiletan/ (1977ko maiatza ?)
- «Gure ingurumena» (1977ko uztailak 16)
- «Managuako bideak» (1979ko uztailak 20. Xenpelar saria 1984an.)

- «Din...Dan...Hil zeinuak...» (Domintxainen, 1979ko udaberria, bere anaia Piarrañoren heriotzea dela eta.)
- «Zureak gaituzu Jauna» (Domintxainen, 1979ko martxoak 26)
- «Inguruetan» (Corsica Ajaccion, 1980ko ekainak 10)
- «Gau eskolak eskatutako olerkiak» (1981eko martxoak 19)
- «Euskadi» (Domintxainen, 1982ko azaroak 11)
- «Haritza» (1983)
- «Atzo gauean» (1983)
- «Intzirien artetik» (1983)
- «Zeure larruaren minberan» (1983)
- «Trein Honen Drangalan» (1983 Euskadi-Paris bidaiara. 13 poesien bilduma)
- «Bere jakitatean» (Trenean Parise-Euskadi, 1983ko maiatzak 21)
- «Pasatzean» (Trenean Parise-Euskadi, 1983ko maiatzak 21)
- «Emazte bat lanbroan» (Parisen, 1983ko maiatzak 16)
- «Pariseko metroan» (1983ko maiatzak 16)
- «Gure etsaiak» (Donapaleun, 1984ko apirilak 15. Azken poema)

Data gabeak

- «Iruzkiaren kantua edo kreaturen goraipaldiak» (1949 ?)
- «Andre dena Mariaren bederatziurruneko othoitza»
- /San Frantsesen ondotik.../
- /Zendako Jauna?/ (1956-58 ?)
- /Aire enborratik .../ (1964 ?)
- /Su bihotzean/ (1966 ?)
- /Jainkoaren ospea: gizonki bizia/
- «Lore gorrien balada»
- «Echografia»
- /Nori ez zaio deskantzu leku.../

- «Bakartasuna»
- «Agur, Eskuara»
- «Poeta bat nere erraietan...»
- /Alegera dira/
- /Herrian, askok bazakiten../
- /Zoaz Noa Goaz.../
- /Haur guziek bezala.../
- /Ibarla bas-herriko umea naiz/
- «Libertatearen seinalea»
- «Etzen kantu bat»
- /Barda uono.../
- «Pilotarien biltzarra»
- /Aspaldi hontan haize hegoak zoratu zidan burua.../
- /Noizbait ur xirripak.../
- /Gogoak eskuari/
- «Oi eguberri gaua...»
- /Gu gira gu Euskaldunak/
- /Herri hau Euskadi deitzen da.../
- /Kartak mahai gainean pausatuko dituzu.../
- /Ez nuen nigarririk.../
- «Kaiioletan» (Tolosan, abenduaren 11an)
- /Askatasunari.../
- /Osto berdeak.../
- «Egungo berrietatik...» (1976 ?)
- «Xahakoa eta makila» (1977-79 ?)
- «Hemengo Elizari» (1979 ?)
- /Bakotxa bere tokirat.../
- «Kanta zak xoria»
- «Ama begira zazu...»
- /Gaur ilhun duk zeruan.../
- «Metroan»

- /Neuilly, Passy, Auteuil.../
- /Beren erreglamendua oso sinplea zen/
- /Oi gau zohardia nere begien amentsa/

PROSA

LIBURUAK

— *Gauaren atzekaldean*; 1982an Elkar-en eskutik argitaratutako elaberria da. Orain ezagutzen dugun hau, Manexek aurretik idatzi zuen zenbait bertsioren moldaketaren emaitza da. 1973an *Ilargi umea* izeneko nobela laburra idatzi zuen (*Izerdizko gunetan* dugu honen beste bertsiio edo moldaketa baten izenburua) eta Beasaingo lehiaketa batetara bidali zuen. Ondorengo urteetan lan hau moldatuz joango zen, azkenean, elaberri gisa 1981eko ekainean Elkar argitaletxeari bidali eta handik urte betera argitaratua izan zen arte, gaur ezagutzen dugun titulupean.

PROSA ARGITARAGABEA

— *Behin eta berriro*, (Itsas-Haize) Donostiako Hiria XIX. ipuin lehiaketa 1977.

Datarik gabeak

— *Ur xortak bezala*. Prosa eta poesia nahasten duen hiru orritako kontaketa laburra, erdi filosofikoa, erdi erlijiosoa.

— *Ene Aita!* Parisen, 1957an (?) Bere aitaren heriotzea dela eta.

ARTIKULU ETA SAIAKERAK

ARGITARATUTAKO ARTIKULUAK

- Gretchioko eguberri gaua (*Herria*, 1955eko abendua).
- Prêtre du Seigneur (*Basque Éclair*, 1956ko urtarrila).

— Euskal kultura baten behar gorria (*Herria*, 1956ko apirilak 5., M.Ostogia izenaz zinatua.) Artikulu honi Lafittek erantzun egin zion «Ostogia» Jaunari» izeneko beste artikulu baten bidez apirilaren 19ko alean. Honek ere Manexen erantzuna jasoko zuen hurrengo hilabetean.

— Denak eskuz esku, sail berean (*Herria*, 1956ko maiatzak 10).

— Problème actuel: l'enseignement de la langue basque (*Gure Herria*, 1956ko maiatza-ekaina, 239.)

— Uzkur-mina (*Herria*, 1956ko ekaina).

— Pour une action efficace... (*Elgar*, 1956)

— Euzko-Gogoa (*Elgar*, 1958ko urtarrila)

— Edouard Herriot (*Jakin*, 3 zenb. 1957, 97-106 or.)

— Réflexions sur des problèmes basques (*Elgar*, 1957ko maiatza (voir janvier 1957))

— Attitude Basque et jeunes nations en marche (*Elgar*, 1957ko maiatza-ekaina)

— Euskal billerak Hazparne'n (*Jakin*, Uztailaren 23-28, 4 zenb. 1957, 80-84 or.)

— Les journées d'EMBATA à Hasparren (*Elgar*, 1957ko azaroa)

— Pour une action efficace: Faire «Oeuvre d'homme» (*Elgar*, 1959ko urtarrila)

— Le père Lhande (*Elgar*, 1959ko apirila)

— Pour une action efficace: Le devoir d'intelligence (*Elgar*, 1959ko maiatza)

— «Berri ona» etorri zauku (*Jakin*, 10 zenb. 1959, 19-27 or.)

— Aurrider bertsolariak, zuer begira dago Eskualdun jendea (*Gure Herria*, 6.zenb. 1959ko abendua, 337 or.)

— Le merci du Frère quêteur (Fr. Gabriel eta Erdozaintzi) (*Autour du Clocher.- Bulletin mensuel interparoissial de la Soule*, 1960ko ekaina)

— «Berri ona» etorri zauku.(Jarraipena) (*Jakin*, 12 zenb. 1960, 19-23 or.)

- «Berri ona» etorri zauku.(Jarraipena) (*Jakin*, 14 zenb. 1961, 7-1 or.)
- «Berri ona» etorri zauku. II. Jainkoaren erresuman sar-
tzea: Bateioa (*Jakin*, 15 zenb. 1961, 12-15 or.)
- Gure Girixtino bokazionearen zimenduak (*Jakin*, 17 zenb.
1964, 11-17 or.)
- Bertsojarisme en Pays Basque (*Elgar*, 1965eko otsaila)
- Txomin Agirre «Ondarrak» (*Gure Herria*, 1.zenb. 61 or.;
Elgar, 1965eko maiatza)
- Fededun eta fedetzaile (*Jakin*, 23 zenb. 1966, 52-59 or.)
- Eskual irakurgaiak. (Parisen 1965eko abenduan ida-
tzia;*Gure Herria*, 4.zenb. 1966ko urria, 235 or.; 1966ko urrian
Elgar- i igorria.)
- Udatiarrekilan (*Herria*, 887 zenb. 1967ko uztaila)
- Egunean eguneko borroka (saiakera) (*Jakin*, 33 zenb.1968,
36-43 or.; *Gure Herria*-ra 1968ko urriak 31an bidalia)
- Ipar Euskal Herria (*Herria*, 1970ko martxoa; *Elgar*, 1970ko
apirila)
- Elizarik behar ote dugu? (*Anaitasuna*, 233.zenb. 1972ko
apirilak 30, 11 or.)
- Ekainak 21 Parisen (*Anaitasuna*; 1973ko uztailak 6an ida-
tzia)
- Ezkurrak-jutsi (*Herria*, 1270 zenb. 1974ko abendua)
- Helduen katekesia (*Herria*, 1284. zenb. 1975eko otsaila)
- Herria eta Eliza (1975ko urtarrilak 26an Hendaian izen
berarekin ospatuko zen bilerarako deialdia. *Fedegintza*, 1.
zenb., Baiona, 1975ko abuztuan.)
- Nos chemins d'Emmaus (*Notre lien*, 1983ko bazkoa)
- La culture basque en Soule (*Herriz-Herri*, 128. zenb.
1983ko maiatzak 5, 10.)
- Piarres Lafitte Jaunari omenaldia (*Herriz-Herri*, 131.
zenb., 1983ko maiatzak 26, 8 or.)
- Des frères en chapitre des nattes (*Notre lien*, 1983ko
ekaina)

ARTIKULU ARGITARAGABEAK

- San Frantses Asisakoa (Pauen, 1954-1956)
- Bas-herrian barna (Pauen, 1955eko uztailak 6)
- «Eskualdun Gazteria» batasunaz (Larزابalen, 1960ko otsailak 14)
- L'espérance aujourd'hui. L'esperance dans l'écriture sainte. (Auch-en, 1968ko ekainak 8-9)
- La conversion du coeur (Auch-en, 1968ko azaroak 24)
- Deux grands modèles de fonctionnement de groupe. La conduite de réunion. (Nimes-en, 1970ko apirillean azaldutako lana)
- De quelques obstacles aux communications interpersonnelles (Nimes-en, 1970ko maiatzean azaldutako lana)
- Comment entendre être situé dans le monde? (1970ko uztaila)
- Elements pour une vie religieuse aujourd'hui (Akitaniako Tolosan, 1971eko apirila)
- Approche théorique et pratique de la conduite d'entretiens (Akitaniako Tolosan, 1972ko maiatza)
- Perspectives de la vie religieuse aujourd'hui (II) (Guipéroux-eko abatetxea, 1973ko abuztuak 5)
- Duela 750 urte (Domintxainen, 1976ko urriaren 11an idatzia)
- Prière et Politique (Briven, 1977ko uztailak 24-28)
- La chanson basque contemporaine (1979ko urtarrilan Tolosan eginiko lana)

DATA GABEAK

- Betiko borroka; Jalgi hadi plazarat! Bizi nahia.
- Eguberri aintzineko denbora edo abendoa.
- Gizakentearen erlijioezko edestia.
- Ene praktika oharra. (Bukatu gabea)
- Eskualdungoaren zimenduak kordokatuak. (Zonbeit arrangura nahas-mahas eskualdungoaz).

— Pedagogia berri bati buruz (*Jakin*-en enkarguz Manexek eginiko behin-behineko anotapen pedagogikoak. 60 or.)

PREDIKUAK

Donapaleuko frantxiskotarren etxean 215 sermoi bildu ditugu, Erdozaintzik bere bizitza pastoral osoan zehar emanak. Lehena 1958ko azaroan datatua da (Manex apez ordenatua izan zen urtea), eta azkena 1983ko martxoan. Badakigu hala ere, bere heriotzera arte, 1984.urterarte, alegia, predikuak ematen jardun zela, baina ez daukagu horien daturik. Izan ere, datarik eta kokapenik gabeko sermoi ugari dago hauen artean, 58 hain zuzen ere. Idatzi guzti hauen sailkapen zehaztago bat burutuko dugu aurrerago.

Prediku hauetan frantsesez idatzirik daudenak nagusitzen dira, euskarazkoak 57 besterik ez dira (158 frantsesez). Hau ulertzekoa da kontutan hartzen badugu, euskal herrietan ere askotan erdarazko sermoiak eman izateaz gain, Euskal Herri-
tik kanpo luzaro ibili zela bere lan pastoral egiten. Bere sermoiak entzun ahal izan zituzten beraz, Ipar Euskal Herriko hainbat eta hainbat herri eta hirietan, Behenafarroan eta Zube-
roan batipat, hala nola Akitania osoko hiri nagusienetan (Pabe, Oloron, Ortese, Salies de Béarn ...), ekialdeko Pirinioetan (Auch, Toulouse, Rodez...), bai eta Parise inguruko zenbait herrietan ere (Chelles, Clichy, Livry-Gargan...).

MANEX ERDOZAINTZIRI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

ARTIKULUAK

— *Argia* aldizkaria, 1983ko otsailak 13. Manex Erdozaintzirekin elkarrizketa.

— *Herriz Herri*, 179.zenb., 1984ko maiatzak 3. Erdozaintziren heriotzea dela eta. 1983ko *Argia* ko elkarrizketaren birrargitarapena.

— «Manex Erdozaintziren oroitzapenez» *Egin*, 1984ko maiatzak 17.

— *Herriz Herri*, 1984ko ekainak 7. Idazle ezberdinen artikuluez osatutako ale berezia.

— «Ene bihotza lehertzean... sinesten dut. manex Erdozaintziaren fedea aitormena» Paulo Agirrebaltzategi, *Herria* 2000 Eliza 65. zenb., 1984ko ekaina, 9.

— «Manex Erdozaintzi-Etxart gogoan» *Euskaldunon Egunkaria*, 1094. zenb., 1994ko apirilak 29, 22-23 or. Erdozaintziaren heriotzaren 10. urteurrena gogoratuz.

— «Manex Erdozaintzi-Etxart» Jean Louis Davant, *Argia*, 1488 zenb., 1994ko ekainak 19.

— *Herria*, 2260 zenb., 1994ko ekainak 23. Erdozaintziri buruzko gehigarri berezia.

BIBLIOGRAFIA ATALAK

— Juan San Martin, *Escritores Euskéricos*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo 1968, 79 or.

— Karmelo Etxenagusia, *Iparraldeko Euskal Idazleak*. Antologia Labayru Ikastegia, Bilbo 1981, 205 or.

— *Uhin berri: 1964-1969 bilduma*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia 1969, 23 or.

Aipatu behar da amaitzeko, **1989an Lehen Manex Erdozaintzi-Etxart Ipuin Sariketa** ospatu zela, Maiatz-ek ipuin hauen bilduma argitarara eman zuelarik 1990eko apirilaren 15ean.

Bestalde, 1994ko iraila eta urria bitartean Manex Erdozaintziaren heriotzaren X. urteurrena zela eta, omenaldi bat egin zaio Donapaleuko frantxiskotarren etxean. «Manex gogoan» deituriko taldearen eskutik idazle behenafartarraren obra eta pentsamendua gogora ekarri eta zabaldu nahi izan da. Horretarako, zenbait adiskidek, euskaltzalek eta idazlek Manexen bizitza, lana eta ingurugiroari buruzko mintzaldi bat burutu zuten; Euskal Herriko hainbat abeslarik ere, kantaldi luze batean parte hartu zuten idazleak argitaraturiko zenbait poemei musika ipiniz.

G AIAK

PAULO IZTUETA

JOXE AUSTIN ARRIETAREN LITERATUR LANAK

JOXE AUSTIN ARRIETA

HIRU LIBURU, HIRU BEGIRADA

JOXE AUSTIN ARRIETAREN LITERATUR LANAK

Aurkezpen-modura

PAULO IZTUETA

Aspaldidanik euskararen zerbitzari gizarte-zientzien alor idorretan dabilen hau, horratx nola aurkitzen den, ustekabean eta nahi gabe, euskal literaturgile gorenen topagune bilakatu den Olinpo heze honetan, aldamenean dudan Joxe Austin Arrieta Ugartetxea adiskide zaharrari aurkezpena egiteko prest¹. Lan zaila, alferra ez esateagatik, aurrean duzuen idazle donostiar peto honek ez baitu inoren aurkezpen-beharririk, gutxiago literatur klubean sarrera-txartelik ez duen bate-nik. Berak hala nahi izan du eta, izan nakion behingoz leial.

Eta azkenean, hau da zoriaren zoriona, eskerrak eman beharko dizkiot, erdi-ahantzi erdi-lardaskaturik neuzkan bere liburuak berrirakurtzeko parada eman didalako. Parada eta grazia, upeleko sagardo eginberriaren usain gozoak eragin ohi duen zorabiopean irentsi baititut bere lanak. Noizbehinka, zergatik ez esan, dastatu dut txakolinaren gusto mikatza ere. Ironiaren ziztada, bihotzondo herabe eta minberatiaren sentikortasun umila, irudi iradokorren paisaje batzuetan harmoniatsua, gehienetan hautsia, denetarik aurkitu dut berarekin batera egin dudan fikziozko ala egiazko —ez nago batere seguru— bidaia luzean.

Joxe Austin adiskide: gaur hobeto ezagutzen haut, hurbilago sentitzen eta, guztietan gogaide izan ala ez —honek zer garrantzi dik!—, egiazki miresten. Nik ez dakit areto sakratu honetatik pasatu direnen kredentzialak nolakoak diren, ez baita erraza demiurgoen hedapen-garaian, jainko handien eta txikien arteko eremuak bereizten. Baina zureak ikusita, esan dezaket egin duzula zure herritarrean aurrean, zure sorterri honetan, burua zut azaltzeko adina meritu. Eta gehiago.

Idazle publiko ezezik, HBko politikari publiko ere izan zara, eta baliteke bateon batek zure tentu estetikoaren horma polikromatua, zinez demokratikoa, intentzio interesatuez igurtzita brotxa gaiztoz narrastea. Badakit, inoiz jendearen aurrean esan duzulako —Deustuko zeure autoaurkezpenean, ezta?—, zeurebarruko «Parlamentox»i neurria hartzen saiatzen zarela. Ez zaitetz horretaz gehiegi ardura, arriskutsuagoak baitira inongo alderditan ez baina leku guztietan dauden horiek, ongiaren eta gaizkiaren gainetik predikatzen duten horiek, dakitenaz baino gehiago ez dakitenaz pontifikatzeko ausardia galanta duten horiek. Zu bederen, desira amestuen eta beti zilegizkoen Prometeo txiki, mortalen kategorian sartzen zara eta, J.P. Sartre, García Lorca, Lauaxeta eta beste hainbaten konpainian, gustora senti zaitetzke. Hitzak, erabateko konbenzionalismoan eroriko ez bada, bere nortasunarekiko leialtasunaren konpromisua ere inplikatzan du. Hitzak gizartearen sabela behar du, herri-intziriarena, baldin jaioko bada. Lurrak, ernari dadin, ura eta eguzkia behar dituen bezala.

LANAK

Eta ekin diezaiodan neure lanari. Gure idazlea, hasteko, langilea da. Aspergaitza, esango nuke. Hitzak, politenak ere, hai-zeak eramaten baititu ez badira kultur tradizioan jasotzen eta lantzen, berak haragitu egin dizkigu, literatura bihurtu. Oparoa da dagoeneko, azken 16 urte hauetan, euskal literaturari egin dion ekarpena: 8 titulu guztira. Paperean izango duzue hor zerrenda, baina ez dio hemengo inori kalterik egingo banan-banan ozenki izendatzeak.

Narratiban hiru hauek ditu eginak:

— *Bidaia. Termitosti* (BT), Ustela saila, Donostia, 1978, 53 or. Lehen liburuxka.

— *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (AB), Kutxa, Donostia, 1979, 135 or.

Irun saria 1978an eta Kritika saria, euskararen alorrean, Estatu-mailan egin ohi den lau hizkuntzetako literatur produkzioaren ohorezko aipamenean, 1980an. Nobela honen azkenurreko kapitulua Jesus Maria Lasagabasterrek prestatutako *Antología de la narrativa actual* bilduman agertzen da (Ediciones del Mall, Barcelona, 1986). Katalanez argitaratu zen 1986an, baita berriki, 1994ko abenduan, gaztelaniaz ere.

— *Manu militari* (MM1), Elkar, Donostia, 1987, 469 or.

Olerkian, beste hiruok dauzka argitaratuak:

— *Arrotzarena. Neurtitz neurgabeak* (AN), GAK, Donostia, 1983.

Irun Saria 1982an eta Kritika saria Estatu-mailan, euskal produkzioari dagokionez, 1984an.

— *Bertso paper printzatuak* (BPP), Elkar, Donostia, 1986, 124 or.

Kritika saria Estatu-mailan 1987an eta urte berean finalista Espainiako Literatura Sari Nazionaleko lehiaketan.

— *Mintzoen mintzak* (MM2), Elkar, Donostia, 1989, 114 or.

Itzulpen-sailean bi ditu:

— *Hadrianoren oroitzapenak* (HO), Marguerite Yourcenar-ena, Elkar, Donostia, 1985, 417 or.

Finalista Espainiako Itzulpen-saileko lehiaketan 1986an.

— *Eulien ugazaba* (EU), Wiliam Golding-ena, Elkar, Donostia, 1990, 295 or. Bizkaiko Diputazioaren Itzulpen-saria 1991n eta Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Saria urte berean.

Militarra balitz, paparra dominaz dizdiraturik ikusiko zenioke. Baina ez bedi musugorritu gure laguna, aipatutakoak ez baitira publizitate-kanpainan esandakoak, obrak baizik. Are ago oraindik: dominarik mereziko lukeen ezkutuko beste hamaitzako lan badu eginik, itzulpengintza eta hiztegegintzan, bereziki. *FINANTZAK. Hiztegia* (1983) prestatzen bera han ibili zen buru-belarri. Baina horiek denak ofizioz, ez afizioz, egin baititu Kutxan eta talde-lanean UZEIn, merituak kolektibitatearen anonimatuan ezkututzen dira eta ez dute kontatzen egilearen curriculum publikoan. Bestalde, prestakuntza intelektuala- ren aldetik, ederki jantzia dugu, literaturgintzarako batez ere. Filosofia eta Filologia ikasi zituen eta gero, irakaskuntzan aritu baitzen zenbait urtez Deustun, honek baliabide teknikoak eskuratzeko erraztasunak eman zizkion, zalantzarik gabe. Egindako lan guztiak, beraz, ez ditu debaldetan eginak.

Esanak aski froga direla uste dut idazle sakratu baten aurrean aurkitzen garela baieztatu ahal izateko. Niri azalpen hau egitea dagokit espreski eta halaxe egin dut. Lizardi hain gazterik joan zitzaigunean 37 urterekin (1933), baziren esan zutenak orduan onen-onenak emanda zendu zela, ez zuela ezer hoberik onduko. Ez dut horretaz iritzirik. Baina, bai, esan dezaket Joxe Austinen etorria ez dela agortu, bere 45 urterekin oraindik sasoi betean dagoela, eta honen errotak irin berri- rik ekarriko digula. Hori seguru. Eta diotenez, luzaro gabe, bere poetikaren lorategia mentu berriz aberastua agertuko zaigu. Horren zain gauden bitartean, goazen orain idatzita- koez zerbait esatera.

KALITATEA

Esan dugu langile porrokatua dela. Ez da gutxi hori esan ahal izatea, baina, antza, ez da aski, idazten dena nolakoa den ere begiratu behar baita. Eta hemen datoz zalantzak, ez-adostasunak, idolatrian kaperak. Egia esan, ez da aurkezlearen lana ezein iritzirik aurreratzea. Ez horretarako tenorea da, ez astirik dago. Bera da, bere obraren barru-barruko hautamen-aulkitik so eginda, bere sorkuntzaren genesia azaldu behar diguna. Dena dela, arras kanpotik bada ere, irakurle profano bat naizen aldetik eta ez kritikari ofizioko, zilegi bekit ohar zoro bat edo beste egitea.

Joxe Austin itzultzaile da, nobelagile eta poeta. Horietatik zein hautatu? Hautatzera behartuz gero, nik ez dakit zeinekin geratuko nintzatekeen. Hautatu beharrik dagoenik ere ez dut uste.

ITZULTZAILEA

Itzulpen-lanetan dabilenak daki zein zaila den, askotan zein ezina den, pentsamendu zorrotz eta literatura aberatsez hornituriko testuak, maisulan klasiko nahiz modernoak, euskaratzea. Euskara dagoen egoeran egonda, trebeziarik handiena ere txiki geratzen da horrelako lanen aurrean. Eta honen arrazoia da, hizkuntza bera menderatzea ez dela aski —asko izanda, jakina—; horretaz aparte, itzulpenek, zehatzak izan daitezen, hiztegi berezituaren laguntza behar dute aldamenean. Guzti hau kontuan hartuta, iruditzen zait, *Hadrianoren oitzapenak*, esate baterako, saio berezi-berezia dela, oso banaka egin ohi diren horietakoa, literaturaren sailean bederen. Nahikoa da obra horren lehen kapitulua irakurtzea, besterik gabe, itzultzailearen trebezia estilistikoez eta oparotasun lexikalez ohar-tzeko. Bidean estropezu egin gabe irakurtzen duzu, esaldia gozatuz eta ulertuz. Meritu hau are handiagoa da Joxe Austinen kasuan, zeren Altuberaren arauetan hertsatzen den sintaxi-ortodoxiaren barruan duintasunez iharduteko birgeriak egin behar baitira. Ezina ez da, izan. Irakurri bestela Orixeren *Aitor-kizunak*. Galdetu bestela Joxe Austini berari. Ohartu naiz, halere, beharra izanez gero eta noizbehinka, ez diela muzin

egiten autore klasikoetan barra-barra agertzen diren erlatibo-
bozko, lekuzko nahiz kausazko zenbait formari, hala nola,
hain.. non, ezen, zeinaren eta antzekoei. Honatx adibide batzuk:

«Eginako edo Falerako edozein txiribogatan *hain* elikagai freskoak dastatu izan ditut *non*, tabernako mutilaren hatzamar zikinak gorabehera, miresgarriki garbiak iruditzen bait zitzaizkidan beti, *hain* xumeak baina *hain* gogobetegarriak *non* bai bait zirudien beren baitan, erarik trinkoenean bildurik, hilezkortasunezko esentziaren bat zeukatela» (HO, 19).

«Udazkeneko arratsetan beti egin ohi nion diosala hegoaldetik agertzen zen Akuariori, Isurtzaileari, Ortzeko Eradaleari, Emaile Oparoari, *zeinaren* babespean sortua bait naiz» (Ibid., 185).

«... tankera honetako musikei jende serio eta itxurosoak, *zeinaren* bertutea ororen beldur izatea bait da...» (Ibid., 198).

«Mendebaldean ere, are Erroman bertan, *non* jainkotiar titulua hil ondoren bakarrik ematen bait zaigu ofizialki...» (Ibid., 183).

KONTAGILEA

Oso gustora sentitu naiz Joxe Austin narratzailearekin ere. Antzeman duk, nongoa haizen. Batere ez zekiat, baina agian asma nezakek banio Donostiako Parte Zaharreko mutikoa hai-zela. Bai?

Hiru narrazio-liburu dira, eta bakoitzak du bere gaia eta bakoitzak bere gaiari dagokion narrazio-teknika. *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*-n Hegoamerikako nobelagintza modernoan erabili den teknika darabil: sukaldeko mahaian, eserialdi batean, aitari gerrate zibileko pasadizoak kontrazten dizkio eta, bidenabar, berak, bigarren pertsona erabiliz, bere gaztaroko o roitzapenak berritzen ditu, mutikoa eta seminarista zene-koak. Narrazio freskoa da, arina; agian, eszena edota paisaje batzuetan, errepikakorra.

Manu militari-k beste testuinguru bat erakusten digu: 1970eko hamarkadan gertatzen den eregimen-aldaketarena. Gutun-bidezko teknikan oinarrituz, justu hamarkada horretako

gazteek darabiltzaten kezkek eta gogoetak harrotzen dira, narrazioan tarteka pasarte filosofiko-ideologikoak sartuz eta tarteka *excursus* hertsiki literarioak harilduz.

Nolanahi ere, eta hauxe azpimarratu nahi nuen guztien gai-netik, edo azpitik, egilearen estiloak erakartzen nau gehienbat, esaldiak osatu eta hitzekin jolas egiteko duen erraztasunak. Zein dotore janzten duen metaforez edozein deskripzio-mota eta aurrean duen paisajearen aurrean zein begi zoliak dituen! Esan bezala hiru liburu horiek desberdinak badira ere gaiaren nahiz teknikaren aldetik, esan dezakegu hirurak donostiar puruak direla. Astiro irakurtzen dituenak ezingo ditu ez ezagutu Donostiako kale luze-zabalak, Parte Zaharreko zokoguneak, Urgull mendiko bideskak, harriak, zuhaitzak, ingelesen kanposantua, arrantzaleen ohiturak. Eta Donostiatik bistatzen direnak: Getariako sagua, Adarra, Aiako Haitzak, Ernio... Joxe Austinen narraziogintza paisajistiko eta etnografikoak, labur esanda, izen bat du: Donostiako jendea, lurra eta, batez ere, itsasoa. Arrainek berek baino itsas-usain handiagoa dute Joxe Austinen pasarteek. Eta bere estiloak, berriz, beste izen hau du: kultismoa, mila modutako erregistroz orrazten duena, zeinari, esaldia hitzez eta ebokazioz biribildu behararen beharraz, kultua ere atxikitzen diola baitirudi. Batzuetan, zure fraseologiaren basoan barrena norako jakinik gabe e rdi-liluraturik erdi-galdurik nindoalarik, arbaztetako amiamasareak bere hatzapparretan hartua nindukanaren sentipena bizi izan dut. Une horietan, egiatan diotsut Joxe Austin, adarrak kimatu eta eguzki-erreinuari leihoa irekitzeko gogo bizia sentitu izan dut, pagoari pago eta gorostiar gorosti deitu beharra.

ETA POETA

Niri interesatzen zaidana baina, Joxe Austin poeta da. Horri eskaini dizkiot ordurik gehien. Nire aurretik beste batzuek emana diote errebasoa Joxe Austinen poematikari. Jon Kortazarrek «eklektikoa» aurkitzen omen du bere lana eta gure gizontoa ez da konforme geratu. Nik neuk, bere poemak irakurri eta apunte batzuk atera ondoren, mendi-kaskoan eserita irakurri dut J. M. Lekuonak *Bertso-paper printzatuak* poema-liburuari egin zion hitzaurrea, bere laburrean mamitsua iruditu zai-

dana, bertan obrari buruzko aurkezpen sistematiko eta aldi berean balorazio orokorra egiten baitu, nik uste, sistemaz egin den lehenengoa eta bakarra. Hitz-bilketan maisu aparta ikusten du, neurri askatuko poemen azaleko egitura oso ondo tolestatua atzematen du, eraikuntza horretan elementuok nabarmenduz: irudi kontrajarrien txaplastak, esaldien errepikak, kontraposizioak eta forma espazialak. Hau guztia bere alde; estrofagintzan ordea, kantatzekoetan zehazki, ez dio aparteko berritasunik aitortzen. Honaino J. M. Lekuona, bigarren poema-liburuaz ari dela.

Hiru poema-liburuak bere orokortasunean begiratuta, esango nuke J. M. Lekuonak diseinatu duen hezurdura horixe bera errepikatzen dela guztietan. Goazen zatika.

• Afizioz euskal klasiko eta modernoek irakurle saiaturia izateaz aparte, ofizioz linguista ere badelako, guzti horregatik eta, agian, gehiagorengatik, Joxe Austinek ederki asko ezagutzen ditu euskararen zoko lexikalak eta gramatikalak. Ukitu hauek oso nabariak dira bere poemagintza osoan zehar.

Hasi naiz hain erabiliak ez diren hitzen ehizan eta azkenerrako mordoska pilatu dut:

<i>abaildu</i> = abatido, deprimido, arruinado	<i>betsein</i> = pupila de ojo
<i>ainube</i> = sombrío	<i>bezatu</i> = domado, domesticado
<i>aldikal</i> = por turnos	<i>boli</i> = marfil
<i>alpor</i> = hedor, vaho	<i>burgoi</i> = orgulloso
<i>apeta</i> = capricho	<i>deitore</i> = lamento
<i>arraiki</i> = alegremente	<i>deslaitu</i> = descarriado
<i>ausiabartu</i> = fatigado	<i>ebatondo</i> = cicatriz de una cortadura
<i>axut</i> = desafío, reto	<i>eihera</i> = molino
<i>azantza</i> = ruido	<i>ekuru</i> = tranquilo, firme
<i>aztore</i> = halcón	<i>elai</i> = golondrina
<i>balbe</i> = muerte	<i>elkitu</i> = brotar
<i>bedats</i> = primavera	<i>epaixka</i> = a escondidas
<i>beredin</i> = muchos	

<i>erhan</i> = matar	<i>naba</i> = vertiente
<i>erpekada</i> = garra	<i>naharo</i> = abundante
<i>errezel</i> = velo	<i>oinatz</i> = vestigio, rastro
<i>erroitz</i> = p recipicio, grieta entre montes o peñascos	<i>(h)orail</i> = rubio, amarillo
<i>ertz</i> = imbécil	<i>oroitu-kal</i> = cada vez que me acordaba
<i>eto</i> = desleal, traidor	<i>orrits</i> = festín, banquete
<i>ezain</i> = feo	<i>ostertz</i> = horizonte
<i>habuin</i> = espuma	<i>sarobe</i> = lugar resguardado
<i>helde</i> = ventura, fortuna, suerte	<i>sopikun</i> = cómplice
<i>heltari</i> = de buen corte, afi- lado	<i>tirain</i> = resaca
<i>higatu</i> = ajado, gastado	<i>tupust</i> = choque, encuentro
<i>horailska</i> = amarillento	<i>ugertu</i> = enturbiado
<i>larmintz</i> = cutis	<i>ukuztu</i> = lavar
<i>larrakitu</i> = despojarse de ramillas	<i>unadura</i> = tedio, hastío
<i>lats-harri</i> = canto rodado, callao, guijarro	<i>ur-lats</i> = agua del arroyo
<i>leinuru</i> = fulgurante	<i>yaukal</i> = excelente, esplén- dido
<i>lekaro</i> = desierto, soledad	<i>zamaro</i> = esclavitud (?)
<i>lekora</i> = fuera	<i>zargaldu</i> = demacrarse
<i>lurlastan</i> = lentisco, almá- cigo	<i>zemakor</i> = amenazador
<i>malgu</i> = mullido	<i>zerbel</i> = húmedo
<i>mazkildu</i> = tiznado	<i>zertzeta</i> = zarceta (ave de paso)
	<i>zizakatu</i> = balbucir, bal- bucear
	<i>zizkolatu</i> = retorcido

Eta gehiago. Darabilen literatur hiztegia gutxitan ikusi ohi den horietakoa da. Oso berea. Adjektibazioetan oparo eta ugaria dugu eta neologismoetan, aldiz, urria. Lauzpabost kuriosoren begi-gozamenerako, apaindura gisa, Azkue edota P. Muxikaren hiztegi-museoan txit gorderik —bazterturik— dauden hitz erdi-

-fossilizatuen kutxatik, berak hainbat pitxi jaso ditu, estetikoki mimatu eta behar zen lekuan, juxtu hantxe, bizitza poetikoa ematen saiatu zaigu. Eskertzekoa da etxeoak ditugun hitzak, ez erabiltzearen ondorioz arrotz bihurtzeraino baztertu ditugunak, berpizten ahalegin berezia egin izana. Biziki estimatuko du kultismoaren zeru goitarrean hegaldatzea maite duen irakurleak. Nik bederen zintzoki aitortzen dut behin baino gehiagotan behartu nautela Joxe Austinen testuek, bereziki poetikoek, zenbait esaldi astiro eta hausnartuz irakurtzera eta zenbait hitzen aurrean begiak bertan tink josita uztera. Hitzen eskola honetan, asko ikasi dut eta noizbehinkako esfortzua probetxugarri gertatu zait. Izan ere, hitzak —edozein hitz, dadila supermaneiaturia nahiz txit arrotzua—, estrofismo-barruan zein hortik at, baldin ondo musikatuak badatoz, denak dira eder, begiak huts egiten duenean belarriak erantzuten baitu.

Aditzen erabileran, orobat, berebiziko joera agertzen digu aditz sintetikoak testuan maiztasun handiz txertatzekoa. Olabideren eskola modatik pasata zegoela eta, ohiturik geunden betiko zortzi-hamar aditz sintetikotara. Joxe Austinek ordea, soilki erakuskari gisa eskaintzen dudan ondoko zerrendan ikus daitekeenez, horien abanikoa asko zabaltzen du eta, horretaz gain, aditz sintetiko nahiz perifrastikoen konjugazioetan edozein forma brist-braust biribiltzeko gauza dela erakusten. Gutxiena uste duzunean aurkituko zara aditz-formarik konplikatuenen aurrean. Nahita dakartzat, aditz sintetikoen ondoan, darabiltzan forma batzuk. Hauek, adibidez:

atxeki: datxeke

egin: dagi, dagite, dagigula, degigu.

egon: dagoke

ekarri: bekarte, bekarz, hakarte

eman: damaiodan

entzun: dantzuz, dantzuzue, dantzuket, dantzut, dantzugu

eragin: daragio

eragon: zeragokion

erakutsi: darakusten

erauntsi: derauntson, nerauntzula, derauntsa

esan: darasan, ziostan

eratzan: naratzake, daratzat.

etzan: dautza, zeutzan

ezagutu: dazagut

ibili: nabilke

diakutsut.

ikusi: dakus, badakusat, zene-
kusan, dakusagularik, da-
kuskit, badakust, daku-
sagu, bazakuskit, lekus-
kez, zakuskit, genekusala,

irakin: dirakitazulako, di-
rakit, dirakizuna, diraki

iruditu: dirudizun

joan: bazindoazkigun

Oharra: naratzake, daratzat, diakutsut?

Arestian esan bezala, benetan sarritan jotzen du aditz sin-
tetikoetara. Zergatik? Estrofismoak hala behartzen duelako? Ez
dirudi, bertso libreetan ere joera berberari eusten baitio. Zalan-
tzarik ez da nahita egiten duela horrela, ahapaldi batean, pro-
bokazio gisa, hauxe botatzen baitu:

«Berez, bariazio-sail
soil bat besterik ez da’
—hasi naiz desenkusan—
‘oraingoz irakur
diezakezuketakena’
—nahastu nahiz aditzean,
...» (MM2, 39).

Beste ahapaldi batean, hemen intziso gisa, erderakaden
kontrako ziztada hau irakurtzen diogu, horrelakorik ez duela
nahi maiuskulaz adieraziz:

«eta EZ DUT NAHI
ASisTItu entierroa
hizkuntzaren zeina... la cual... o sea...» (MM2, 32).

Ez dakit Joxe Austinen ironiak zein izen salatzen duen
«ASisTItu» horrekin. Ez zait asko axola ere. Dakidana da, eta
honetaz ziur nago, garbizalea dugula errotik, «konplizitatea»
beharrean «sopikuntasuna» eta «aurpegira bota» ordez «jauki-
katu» eta horrelakoak esan edo idatzi ohi dituela². Beraz, bere
baitan etxeko harrobiaren emana azken jarioa zurrupatzerai-
noko hori zein intentzionala den ikusita, esan liteke, hiztegi-es-
parrua harik eta gehien zabaltzen leherrenak egiten dituen
bezala, aditz trinko nahiz laguntzailearen erabilera harik eta

joku-sailik ugarienetara eramán nahi duela. Kultismoa luke, iruditzen zaidanez, helburu nagusienetako bat. Fraseologian, ahal dela, aruntkeriarik ez, errazkeriarik ez. Baina helburu hori poesi molde batean bakarrik aplikatzen du, zeren, kantatzeko paraturiko koplá eta beste bertso batzuetan, inorikoetan zehazki, bertsolari-teknika erabiltzen baitu. *Bertso-paper printzatuak* eko azken partean datozen poemak, hain zuzen, izan dira J. M. Lekuonaren arrabotak leunki gáinetik pasa dituenak. Ni ere sinesturik nago poeta batek, Aresti izanda ere, bertsolariekin gáltzeko gehiago daukala irabazteko baino zirtolari-lanetan.

Bego garbi hau: Joxe Austinek badakiela noiz ari den poesia kultua egiten, neurtua nahiz gabea, eta noiz kantatzekoa. Eta hizkuntza poetiko kultuari gágozkiola, asmo ederra da, kanpoko aireak barrualdea freska dezan utzi eta, etxeko kupeletik nasaiki edatea. Zenbat eman, hainbat. Hondoá jo arte. Zer ederrago, zer amesgarriago euskal literaturaren heldutasunerako, euskararen harrobiak eskaintzen dituen ahalbideak oro ezagutu, eskuratu, oratu eta, ahanzmenaren almazenean herdoiltzen utzi gabe, irakurleriaren ikusmenean bizitza berria emanaraztea baino? Batere ez dakit. Baina susmatzen dut Joxe Austinen parioa hortik doala. Ez zaitugu lehenengoa. Lehermak egin zituzten, bide beretsutik noski, Olabidek, Zaitegik eta. Azkueren hiztegia buruz omen zekiten eta, esaten denez, lekeitiarrak berak baino hobeto, gáinera. Horien euskarari ordea, neurri batean ez arrazoi-faltaz, artifizialkeriaren salakuntza egin zitzaion bere garaian.

Ez dut uste hau denik Joxe Austinen kasua. Badaezpada aurretik abisua emana utzi digu, poesia egitean, bera ez dela ari izan «filologia edo folklore eruditoa egiten»³. Honek euskara iturri bizitik edan du: etxetik, herritik eta euskal tradizio zaharretik. Aspaldiko balada zaharren doinua kantari dabilkio: Perutxoren kanta, «Leloaren leloa»n (MM2, 34-39), Mikoletarena, «Amorearen bitsa»n (MM, 48); Arrasate erre zutenekoa Txomin Iturberi eskainitako «Requiem»ean (MM2, 99-100); Martin Bañez Artazubiagarena, «Glossa kiskalerrinenseak»en (MM2, 102-105); Bereterretxen khantoriarenean (AN, 20), eta beste hainbat pasartetan. Beste askotan, berriz, izenburuan poetaren baten aipu hautatu bat ezarri eta gero, horren gáinean osatzen du bere poema,

hango giroan eta hizkuntza estetikoan sartuz eta labetik bere opila ateraz. Horrela ikasten dugu nor diren Joxe Austinen autore maitatu eta mirestuak, nori ari zaion erasoka, nori laudorioka. Etxekoen artean asko dira, bere hitz poetikoekin esateko (MM2, 36), «Olerki's Liskar Clubean» sartzen dituenak: Etxepare, Oihenarte, Axular, Etxahun, Barrutia, Azkue, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Aresti, Mirande, J. M. Lekuona, J. A. Artze, Atxaga, P. Perurena, Sarrionaindia, K. Izagirre, F. Juaristi eta Jon Juaristi. Azken honi, gaztelania garbian, piropo hau botatzen dio:

«aunque usted hermano se crea
de Gabriel y albacea,
no es más que un español
disfrazado de hotentote» (MM2, 88).

Poeten arteko tertuliatik atera eta, itzul gaitezen euskal poetikako hizkuntzara. Joxe Austinengana etorritz, berriro diot, asmoa ederra dela, ondo asmatua; eskura dauzkazun hiztegi eta aditz-flexioen bariazio-sail horiekin nahi litzatekeen adina literatur zuku ateratzea, ordea, gaitza dela uste dut, lehen itxura batean dirudien baino gaitzagoa. Nolanahi ere, birsortu beharrekotzat jotzen diren hitz ez hain ezagunak noiz eta zein neurritan tartekatu erabakitzeke orduan, dena ez bada ere, irakurleari begira pedagogi senez jokatzek ate asko itxiko litzekiote laborategi-arriskuari. Ez da ahaztu behar, literatura kultuan ere, irakurlearentzat idazten dela.

Azken batean, eta hemen datzala uste dut literaturgintza sano baten arrakasta, egungo euskal gizartean sustraiturik dauden hitz biziak jokatu behar da, ez hildakoeekin eta hedadura gutxikoeekin. Hiztegiak on dira. Bertsolaritzan ere baditugu espreski errimatzeke eginak⁴. Baina hitzak bizia izango badu, herri-hizkuntza alboan behar du. Bego, bada, hitzen menu liluragarria mahai gainean edo oiminenaren apalean, esaldia-aren bizitasuna areago bizitzeko eta, bizituz, edertzeko. Puntu honetara helduz gero, arazo-pare batek sortarazten didan aspaldiko kezka datorkit gogora. Literatur produkzioa ugarituz joan ahala, ez gutxi hiztegiak sarriegi erabiltzearen ondorioz edo, hitz arkaikoen erabilera eta euskalki-jatorri desberdinetako hitzen promiskuitate-maiztasuna ugalduz joan da.

Hitz arkaikoak esan dut. Baina zein da, ezjakintasunak edota axolagabekeriak bazter utzi dituelako hain zuzen, literaturak birgizarteratu beharko lukeen funtsezko lexiko horren zerrenda? Galdera honek hitz arkaikoen eta hitz bizien arteko bereizketa egitera garamatza. Beldur naiz, mugak zedarritzean, adostasun-maila txikia lortuko litzatekeela bai idazleen bai hizkuntzalarien artean. Bestalde, euskara batuaren eredia sendotuz doan une honetan, badirudi euskalki desberdinetatik zenbait elementu, lexikal bereziki, jasotzeko joera indartuz doala. Noizbehinka, pasarte soltetan, esperimentalismo-akrobaziatzat jo daitezkeen saiorik ere ikusten da, euskalki batetik bestera saltatuz, nire gustorako naturaltasunaren kaltetan. Euskalki bakoitzak dauzka bere klitxe bereziak, besteak beste, sintaktiko eta lexikalak, estilistikan eragin zuzena dutenak; lehenengoa osoki gorde beharrekoa iruditzen zait eta bigarrena, berriz, dosifikatu beharrekoa.

- Esanak esan, Joxe Austin poeta denik ez du inork zalantzen jartzen. Itzala duen poeta ere badela, gaineratu ezinik ez dago. Nolako poeta? Zein estilotakoa? Eklektikoa dela esateak ezer gutxi argitzen digu. Kultoa dela gaineratzeak, zerbait gehiago, baina ez funtsezkoa. Galdera horiei zuzenean erantzun ahal izateko, lehenik jakin behar dena da ea zer eskatzen dion berak poesiari edo, beste modu batera esanda, zer den berarentzat poesia.

Hori da abiapuntua, norberaren aukera sakratuak, zir-zart, erabakitzen duena eta, azken finean, norberaren sorkuntzari bere nortasuna ematen diona. Joxe Austinek⁵ esaten zigun berriki «nola zeharkatu lautada hau, minarik zapaldu gabe». Barkatu, adiskide: ezin haiz itsasoan murgildu busti gabe.

Eta berak jadanik egina du bere aukera. Irmoki bezain garbi azaldu zuen Deustuan 1994ko martxoaren 10ean irakurritako hitzaldian. Hitza da poesiaren giltza, dentsitate autonomoa hartuz gero, beste zerbait berria adierazten duena. Berari utziko diogu esplika dezan adierazi nahi duena⁶:

«Poesia **hitz egitea** da, *stricto sensu*: hitz edo berba **egin** egitea. Poesia ez da **zerbaitetaz** mintzatzea, ezta **zerbait** adieraztea ere (dela ideologia, dela bizipena, dela bizipoza). Poesia ez da eduki batzuen transmisio edertua. Ez da prosaren bariazio ornamental, ez da atributoa, sustantzia baizik. Ez dago lehendabizi edu-

kia, eta gero forma: dikotomia klasiko hori burutik ken ez deza-gun bitartean, alferrik gabiltza (...) **Hitza** da poetikotasunaren alfa eta omega. Hitza ehundaka edo milaka printzatan ezpaldua. Eta hitz-ezpal horiek, hitz-baketa bihurturik, lokera bat sortzen dute, eta lokera horrek *dentsitate autonomo* bat sortzen du eta dentsitate autonomo horixe da *beste zerbaiten* adierazgarri, ez han-hemenka *azaltzen diren ideiak*... ideiak ez baitira azaltzen, mamitu egiten dira, egin egiten dira. **Poesis:** Hitz Egitea...».

Formalismoaren aitortza garbia da hori, gaizki ulertu ez badut bederen. Ikuspegi honen arabera, hizkera poetikoaren ardatza, beraz, hitz-jokuen bariazioetan datza, deitu itzazu horiek metaforak, metonomiak, sinboloak, fantasiak, sinestesiak, paronomasiak, etab. Baina kasu, teknika formalak lehenesteak ez darama gizarte-bizitzari entzungor egitera. Bere poema gehienetan datoz, askotan ebokazioz eta bestetan izen eta guzti, bidean eroriak, zapalkuntzaren aizkora malapartatuak ebatsitako uda-lora lerdanak. Abertzaletasunaren damu ez den poeta ganboarra dugu Joxe Austin. Eta halaxe aitortzeko batere lotsik ez duena Don Beldur atxaganekoaren aurrean. Arestiren poesia mailua zen; Joxe Austinena argi mehea da, baina daratuluaren antzo barneraino zulatzen duena:

«Gorroto zaitut
zu
argi mehe hau
daratulu xuria
zaitudan hori:
poesia maitea» (AN, 34).

Eta zalantzarik egon ez dadin berarentzat poesia hitz huts baino zerbait gehiago badela, Sarrionaindia poetakide militanteari, gardenki eta saminez, aitortzen dio poesia ez dela lore :

«(hausten nauzu,
mila puska eginda
uzten nauzu, poesia lore-jokoekin
sarriegitan, Sarri,
nahastu izan dudana hau)» (MM2, 95).

J. M. Lekuonak, bere ohizko fintasunez eta zorroztasunez, oso ederki azaldurik utzi zituen *Bertso-paper printzatuak*-en dara-

biltzan teknika literatura-barrukoak. Horregatik, ez dut luzatu nahi lehendik harrotutako puntu honetan. Halere, gauzatxo bat erantsiko nuke, eta da, hitzen karanbolan sartuz gero, oso gustokoa duela, hitz-jokoak eginez, kontraste-efektuak nabarmentzea, mila modutakoak. Nik horrelako batzuk bakarrik dakartzat.

— *Hots-kidetasunak*:

«Gogarteko barrunbearen burrunbak» (MM2, 19).

«Alta, bestela altak
utziko hau zurrun» (MM2, 13).

«Erresumak ezezik
erresuminak ere baititugu» (MM2, 32).

«Betunezko karrikan korrika» (MM2, 32).

«Zur zuhur
Zur heze» (MM2, 47).

«Zerren zerrak zarratu zurru zaharrak» (MM, 48).

«Karabela akastu
akeztua» (MM2, 59).

«Distira bakan, larrain larratzen barrunbe» (BPP, 62).

«edenez beteriko Edenak» (BPP, 64).

Hitz-joko politikak dituzue, semantikazko astindu-eragile bizi diranak. Besteok, ebokazio pertsonalak dira, poeta ezagunekin harremanetan jartzen gaituenak txori-saldo baten irudipean:

«Txori-saldo baten hegada
somatu dut segidan
(...)
doi-doi usaingarria
txilardegiak edo oteitzak
basoaren bazterretan
urrun oraindik
garbaltzen edo sarraskitzen
bailiharduten
(...)
Hurbildu zait eta

belarrira xuxurlatu:
 'LEZAETAN DAGO KISKAIL-ERRIA
 ANTZEN AKABATZEN DA KANTA GUZIA'.
 (H)orixe bera esan eta
 aldegin du, xenderaren...» (MM2, 27).

— *Zantzu sinestesikoak:*

«ardo-ozpinezko upel isil
 abaro sukartsu» (AN, 34).

«musika urdinen bibolin-
 -hots ainube» (BPP, 31).

«Ez diot haizeari utziko
 (...) bere esku hautseztatuez
 zure begi erraldoi horiek..» (BPP, 36).

«lanbroaren tunika lixtuan» (BPP, 66).

«lainoaren ezpata biluzik» (BPP, 66).

«Betiko okrearen tenore
 berdezko sinfoniaren kontrapuntu
 (...) iratze gorrasten garrasi-aldi» (MM2, 9).

«zoko-usaindun putzuaren
 mintzorik ezaren mindura» (MM2, 18).

Baditu, bestalde, hitz maite-maiteak, magikoak, behin eta berriz hiru liburuetan errepikatzen dituenak: hots, itsasoa eta ura. Aita arrantzalearen taupada ahantzezinaren ukitu kenezina? Agian. Heraklitok irudikatu bezala, bizitzaren joanairaren ezinbestekotasunaren aurrean makurtu beharra? Agian. Poetaren sekretuak. Mendia aitzakia duela, berak esana da, baina ez da geratu hari xarmanki kantatu gabe «Jaioko dira nire eskuak udazkenez» poeman (BPP, 43). Teluri erreferentzietatik aparte, poetikak ez du asmatzen betiko tematikaren gartzelatik jalgitzen: amodioa, heriotza, eguneroko gauza xumeak, eta horrelakoak. Hori bai, ebokazio ilustratuez ondotoxo lustratuak datoz. Adierazgarriak nahi dute izan, halaber, triptiko gisa azken liburuan (MM2, 38, 56, 65) agertzen diren *metaro*, *belaro*

eta *berbaro* hitzek. Sumatzen da eztabaida gogorrean trabatu zaigula gure poeta, itxura guztien arabera, literaturaren gainean. Beude hortxe, bere horretan, suspentsearen iltzean esekita, iradokizunak biluzik. Hau ere poesia da. Eta hala ez balitz, diskurtsua izanen litzateke. Ados zurekin, Joxe Austin.

- Estrofagintzan, J. M. Lekuonak abisatzen zionez, ez omen du asmatu. Ahapetik bide horretatik ez segitzeko aholkua ere ematen dio. Beno ba, utz ditzagun alde batera tritikixaren doinura kantatzeko horiek bertsoari entzat edota bertso-paperak idazten dituztenentzat. Halere, ez nago bere kantategitik dena edozein preziotan saltzeko prest. «Ikusten al duk, ene semea» poeman, maitasuna zer den azaltzerakoan, erabat txundituta utzi nau erabiltzen dituen metaforen indar sarkorrak:

«duk halamoduzko ausikia
gure barrena urratzen,
basa-ahate oihukaria
gure urloak astintzen,
duk izotz-mendi jitoan dena
gur'itsasoak kiskaltzen» (BPP, 84).

Horrelako perla gutxi aurkitzen da euskal kantategian, aurkitzen bada. Tonu-kontua da, beraz. Gezi ironikoak egunkarietarako zutabeak betetzeko utzi eta, baldin bizipenen berotasunak dakarkionetik hitza haragitzen jarrai baleza, ziur nago oraindik ere badukeela zerez aberasturik kantu-estrofismoaren abaraska.

POESIAREN BIDEAK

Honaino Joxe Austin Arrietarekin izan dugun hitz-aspertua poesiaren gainean. Agurtzerakoan, ordea, hasieran neuzkan kezka berberak asaldatzen naute. Ohar-parebat egitera mugatuko naiz.

Lehen poesia zer den galdetu da. Baina bada hori baino aurreragoko galdera: zer da literatura? Gerra-ondoko euskal literatura aztertzeke orduan⁷, ohitura da berori hiru arotan banatuta azaltzea halako zentzu lineal batean: a) aberri-literatura

(1939-57), b) gizonaren eta herriaren aldeko literatura (1957-1975), hemen sartuz existentzialismoa, gizarte-protesta eta egitura formalen lanketa, eta c) literaturaren adierazpen autonomoa (1975-94). Eskema honen arabera, azken fase hau B. Atxagaren «Hautsi da ANPHORA» esaldia tipifikatuko luke, ondoren Joxe Austinek jasotzen duena berretsiz «Bai, zinez: Hautsi da Anphora» (MM,92). Literatura barrutik, hots, bere baitako elementu hutsez egitea errebindikatzen da, elementu ustez estraliterarioen morrontzatik libratzea. Hortik fuerakoa, izan, literatura ez beste guztia izango da: propaganda, ideologia, proselitismoa. Nahi dena.

Eta eskema honekin funtzionatuz segitzen dugula uste dut, formalismorik ortodoxoenean. J.J. Rousseau⁸ pedagogoak bere *Emilio* haur idealizatuarekin egin zuen bezala, babestu dugu literatura, dena kristalezkoa, ez dakit nongo balizko dorrean, zinkez eta tankez ondo inguratua, gizarte endemoniatutik etor dakizkiokeen kutsadura guztietatik. Azkenean lortu du literaturak bere autonomia, berez zor zaiona, errealismo sozialak bere izaten ukatzen ziona. Literaturak, oro har, gizartearekin eduki dezakeen harremanez mintzatzea bera arriskutsu gertatzen da. Eta literatur sorkuntza gizarte-faktore desberdinek baldintzaturik egon daitekeela planteatze hutsari berriz, besterik gabe, soziologismoaren maldizioa jaurtikitzen zaio. Une onean gaude, esango da, euskaraz literatura unibertsala egiteko, euskal egoerak deskontestualizatuz eta fikziozko pertsonaiak kategoria abstraktuetan hitz egiten jarriz.

Ikuspegi hori gu bizi gareneko gizarte gaiztotu honetatik ihes egiteko aitzakia polita izan liteke. Pedagogia jesuitikoak, e r renazimentuak tradizio greko-latinotik jasotako humanismo paganoarekin aurkitu zenean, paganismo-arrastoak ezabatzeke, horixe egin zuen: formulismoaren terapia aplikatu. E. Durkheim-en⁹ aipu honek, *mutatis mutandis*, gaurkotasunik baduelakoan nago:

«Su humanismo se encontró, de este modo, condenado al formalismo más completo que se pueda concebir. En definitiva, todo lo que pidieron a la Antigüedad no fueron ideas, no fue una cierta manera de concebir el mundo, sino palabras, combinaciones ver-

bales y modelos de estilo. No la estudiaron para comprenderla, y para hacerla comprender, sino para hablar su lengua, que ya no se hablaba».

Nola lortu zuten helburu hori? Autore klasikoen testuak deskontestualizatu eta ahistorizatu. Horra miraria egina. Honela, XVII. mendean, tipo orokorrez eta inpersonalez jantziriko literatura sortu zen Frantzian. Estiloaren sekretua da aurkitu eta landu behar dena. Inbentua, bada, aspaldi samarrekoa da. Eta esan digu E. Durkheimek zeinek asmatua den eta zertarako.

Gaurko egunean, gurean, antzeko joera orokortu batean sartuta ez ote gauden iruditzen zait, nora goazen gehiegi enteratu gabe. Izan ere, literatura irla gisa gogoemateak eta, horren barruan, hitza, eta bera soilki, poetikaren gune bakartzat finkatzeak auresuposatzen du gizabanakoaren hizketa posible dela gizarte-harremanetatik at, inplikatzeko du existentzia duela bere baitan. Hau guztia onartzea, gehiegi suposatzea da. Eta hemendik ondorio larriak datoz edozein literatur eta, oro har, kultur sorkuntza-mota interpretatzeko orduan. Garai bateko edukiaren eta forma ren arteko dikotomia gainditua dagoela behin eta berriz gogorarazten ihardutea, ezer berririk esan gabe, lehengoan geratzea da. Subjektuaren eta objektuaren artean dikotomiarik ez dela ematen esan eta, sekulako iraultza epistemologikoa egin delakoan, hain lasai geratzea adinako inozokeria izango litzateke adimen-jarrera hori. Formulak auzitan jar daitezke, eta behar dira, baina arazoez bertan dira. Eta arazoa da gizakia gizartetik at ez dela, izan, eta alde-rantziz. Ondorioz, giza hitza, izan dadila nolana hikoia —arrunta, poetikoa, filosofikoa—, indibiduala adina da soziala.

Horregatik, hizkuntza, hezkuntza eta literaturaren arteko harremanez diharduen soziologian tesi onartua da hizketa gizarte-egituraren kualitate bat dela eta, ondorioz, gizarte-baldintzek zeharkatzen dutela modu batera nahiz bestera. Hizketa testuinguru jakin bati lotua dago eta hortik hartzen du bere esanahia. Metalengoiaren esparrua gutxiengo bati dagokiona dela esaten digu Basil Bersteinek¹⁰:

«Tanto históricamente como ahora, sólo un pequeño porcentaje de la población se socializa en el conocimiento al nivel de los meta-lenguajes de control e innovación, en tanto la mayoría de la población se socializa en un conocimiento a nivel de las operaciones dependientes del contexto».

P. Bourdieu¹¹ ere tesi bera berrestera dator, dioenean mintzairaren erabilera hiztunak bizi duen gizarte-egoeraren esanera modelatua dela:

«Il s'ensuit qu'on ne peut rendre raison complètement des propriétés et des effets sociaux de la langue légitime qu'à condition de prendre en compte non seulement les conditions sociales de production de la langue littéraire et de sa grammaire mais aussi les conditions sociales d'imposition et d'inculcation de ce code savant comme principe de production et d'évaluation de la parole».

Mintzairaren eguneroko erabilera arruntean, hitz batzuek bere esanahia erabiliak direneko egoera espezifikotik hartzen dute. Hitzek segun zein testuingurutan erabiltzen diren, halako esanahia hartzen dute. Mintzairaren alderdi honi indesikalitatea deitzen dio Garfinkelek¹² eta horixe da, hain zuzen, soziologian gaintitu beharreko arazo metodologikorik zailenetako bat. Indesikalitateak edozein adierazpenek eskaintzen dituen bi esanahi besarkatzen ditu batera: bata egoeraz haraindikoa, eta bestea egoera bakoitzari dagokion espezifikoa hura¹³. Mikrosoziologiaren bidetik doazen azken ikerketek geroz eta gehiago azpimarratzen dute diskurtsu arruntaren izaera indesikal hori. Hala dio M. Wolfek¹⁴, etnometodologiak argitu diguna laburbilduz:

«Cualquier actividad, acción o discurso es una actividad situada, es decir, realizada en un contexto cuyo significado es describable, relatable, demostrable, exhibible, solamente mediante el uso de elementos indexicales».

Hizketa poetikoa ez ote da sartzen lege horien barruan? Mintzaira unibertsalak ez ote darama berarekin indesikalitatearen ezinbesteko marka? Ni lehendik ere erabat konbentziturik nengoen —eta soziologiako azken ekarpenek neure ustean sendotu egin naute— idazlearen hitzak bere esanahia testuingurutik,

hots, egoera jakin batetik hartzen duela, hortik batik bat, eta hortik pasatzen dela egoeraz haraindikoa hartzera. Horregatik gertatzen da sarritan, inolako erreferentziarik —ez espazialik ez tenporalik ez bestelakorik— gabe, soilki eta bakarrik hitz biluzien aurrean aurkitzen zarenean, zeri nondik heldu ez dakizula. Onenean hitzak ulertzen dituzu, konbinazioak mirestera ere irits zaitezke, halako sentsazio-sorta definigaitz moduko zerbait ere bil dezakezu, agian, liburuko azken poemara orduko. Eta lagunak galdatzen didanean, «eta zer?» Eta nik, aho-bete hortz, erantzuten diot: «ez diat ulertu». Umilki aitortu behar dut metalingoia poetiko horri askotan heldulekurik ez diodala aurkitzen. Eta komunikazioa falta denean, hitza hotza da, jolasa drama bihurtzen da. Hitza deskontestualizatzen bada, itsasoa urez gabetzen bada, zer geratzen da handik? Ezer ez edo, zuzenago, zerbait bai: bizi-bizirik zebiltzan arrainak hondartza gainean akabatuta. Zer balio du sortzaileak inon diren hitzik ederrenak asmatu eta liburuan txukun eta dotore idatzita ezartzen baditu, baldin, abiapuntuan gutxienezko erreferentziarik ematen ez delako, irakurlearen sentimen estetikoan ernetzen ez badira?

Bigarren ohar batekin bukatzen dut. Zera da: formalismoak, ertzeraino eramaten denean batipat, palindrome-sindroma sortzen dizula. Katea sinestesikoak handik, metonimiakoak hortik, paranomasiakoak haragotik, intzisoak tartean, azkenean ez dakizu irakurtzen ari zarena zer den, poesia ala adarra jotzeko artimaina. Azkenaldi honetan honelako genero dextente irakurtzea tokatu zait, oraingoan enkarguz, lehiaketara aurkeztzen diren hainbat lanetan. Inora ez garamatzen obskurantismotik atera eta, mintza gaitetzen egun argitan. Olinpotik, bai, baina idatz dezagun mortalontzat!

Hori esanda, nire azken galdera da, ea ez ote den heldu euskal literaturari buruzko planteamenduak birformulatzeko ordua. On egingo liguke gure ikuspegi linealak desterratu eta gure inguruan egosten den gizarte honetan txertatuago egongo litzatekeen literatura mamitzeari ekingo bagenio. Bestela gure ondorengoek ez dute modurik ere izango jakiteko nola bizi izan ginen Franko hil ondoko azken 19 urte hauetan. Orain arteko euskal literaturak eman dizkigu geure lehena ezagutzeko hainbeste pista. Zergatik ez aurrerantzean ere?

1. Donostiako Udal Kultur Patronatuak eratutako hitzaldi-ziklo baten barruan, Joxe Austin Arrietak bere literatur lanen autoaurkezpena egin zuen Udal Liburutegian 1994ko azaroaren 15ean. Bere aurretik bertatik pasatuak ziren Jose Maria Mendiola, Ignacio Maria Barriola, Fernando Savater eta Raul Guerra Garrido erdal idazleak eta, euskaldumen artean, Bernardo Atxaga, Anjel Letxundi eta Felipe Juaristi. Joxe Austin adiskideak aurkezpen-moduko bat egiteko eskatu zidan eta okasio horretarako prestatu nuen zirriborro hau. Testuinguru horretan irakurtzekoa da, bada, hitzaldi gisako hau.
2. Arrieta, J. A., «Hiru liburu, hiru begirada», Deustuko Unibertsitatean irakurritako hitzaldia, 1994-III-10ean.
3. Arrieta, J. A., *op. cit.*
4. Amuriza, X.: *Bertsolariza. Hiztegi errimatua*, II, AEK, Bilbo, 1981.
5. «Ocnarf», *Egunkaria*, 1994-X-23.
6. *Ibid.*
7. Otegi, K.: «Euskal sorketa literarioa (1930-1984). Hurbilketa deskriptiboa», in Intxausti, J. (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo*, Lan Kide Aurrezkia/EFA, Oiartzun, 1985, 434-448 or.).
8. Gizarteak eragindako ohitura txarretatik babestean oinarritu zuen bere hezkuntza negatiboa, honela formulatu zuena: «El único hábito que debemos dejar adquirir al niño es no dejarle que contraiga ninguno; que no lleve más en un brazo que en el otro; no acostumbrarle a presentar una mano más que la otra, a servirse más de ella para comer, a dormir o a jugar a la misma hora, a no poder estar solo ni de día ni de noche. Preparad con mucha anticipación el reino de su libertad y el uso de sus fuerzas, y dejando a su cuerpo el hábito natural, poniéndole en condiciones de ser siempre dueño de sí mismo, y no contrariar su propia voluntad, así que la tenga» (*Emilio o de La Educación*, Fontanella, Barcelona, 1973, 110 or.).
9. *Historia de la educación y de las doctrinas pedagógicas. La evolución pedagógica en Francia*, Ediciones La Piqueta, Madrid, 1982, 317-318 or.
10. «Clase social, lenguaje y socialización», *Educación y Sociedad*, 4 zk., Akal, Madrid, 1985, 133 or.
11. *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*, Fayard, Paris, 1982, 52 or.
12. *Studies in Ethnomethodology*, Englewood Cliffs, Prentice-Hall, 1974.
13. Ruiz Olabuenaga, J. I.; Ispizua, M. A.: *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*, Universidad de Eusto, Bilbao, 1989, 56 or.
14. *Sociologías de la vida cotidiana*, Catedra, Madrid, 1982, 137-138 or.

HIRU LIBURU, HIRU BEGIRADA

JOXE AUSTIN ARRIETA

Ohore ikaragarria da niretzat gaur hemen zuen aurrean mintzatu ahal izatea, zentzu hertsian izan ere: ohore **ikara-garria**¹. Hainbeste non tentatua ere banagoen Antsa Otxoa Ozaetakoaren harako eresi famatu harekin has-teko: «*Oinetako lur hau jabilt ikara/ lau haragiok berean berala/ Martin Bañez Ibarretan hil dala...*». Baina lasai, ni neu nintzen Martin Bañez poeta hura ez baita benetan hil, hala uste nik behintzat, eta beraz ez dut bertsoa haren alarguntsak bezala amaitu beharrik, shock traumatiko totalaren eraginpean: «*Hartuko dot esku batean gezia/ bestean zuzi irazekia/ erreko dot Aramaio guzia*». Ez, jainkoek aparta. Bego Aramaio, eta «dabe -

nak ez bemaio». Nahiko lan badugu bestela ere mende-amaiera ziztrin honetako ganboar eta oinaztarrok, gure artean, literatura dela eta ez dela ere, hitzetik hortzera edo hitzetik horz-kadara ibili gabetanik.

«*Idazteko desioa ilunkiago baina beti da desioari buruz idazteko desioa; azken finean, desio ezinezkoari buruz idazteko desio ezinezkoa*» — dio Guido Mannoni literatur kritikoak.

Ederki gaude. Hori hala baldin bada, eta baliteke izatea, a ze ofizio edo afizio inozoa gurea. Gure erdara ohizkoan esanda, «*apaga y vámonos*». Baina itzali? Ez, hobe erretzea. Erre itzazue, beraz, edozein bazterretan «*Arrotzarena eta Neurtitz neurgabeak*», kiskali «*Bertso-paper printzatuak*», erraustu «*Mintzoen mintzak*». Ez baitute ezertarako balio. Letra hilak dira, desio ezinezko baten hondakin hutsalak. Hala dinost bederen neure baitako «*Arratoiak*» —lizentzi baldin bazait Atxagarenetik mailegu hau hartzea—, «*plajio*» hitz badaezpadakoa alde batera utziz, denok baititugu geure gogartean halatsuko ahotsak, baita bes-telakoak ere, «*Sabino*»ak alegia. Gaur, ordea, isilarazi egin beharko neure Arratoi hori, batere atarramendu onik aterako badugu, bere kasa utziz gero ikaragarriak esaten dizkit-eta, berebetiko partitura mingotsa karraskatuz: «*poeta txarra haiz, motel, xirula marrantatu zaion Pindaro herren eta ridikuloa, belaunaldi derrotatu baten panegirikotan espezializatua...*», etabar, etabar. Nazkagarri hutsa baita, ikusten duzuenetz, nire erraietako Arratoi hau. Ez dakit nondik datorkidan: erruduntasun-sentimendu gaizki sendatu baten mamua ote?, jaso (eta jasan) dudan hezkuntza erlijioso larderiatsuaran itzala, agian?, erro sakonagoak dituzkeen fantasma pamerial baten errainua?... Nahiago nuke neronek baneki.

Eta luzamendutan ibili gabe, aurkeztu egingo dizkizuet berehala gaur hona zuen aurrera dakartzadan izar gonbidatuak. Saiatu naiz «*parte txarrekoak*» izan ez daitezen —halakoak *zazpi destatuz* urrunarazteko konjuroak ere bazeuden gure arbasoen garaian. Behinola «*manu militari*» mehatxupearan dantzarazi nituen txotxongilo haiek ere ez dira: jubilazioa eman diet, oraingoz. Nolabait, Bernardoreneko *Sabino*-ren tankerakoa-goak dira, nik uste —bidenabar esanda, ba al dakizue *plajioa*-

-ren izen modernoa zein den? *intertestualitatea*.— Eta mese-
 dez ez gaitezen txiste txarretan endreda, Sabino hori Arana
 den ala ez, zeren nik orduan baietz erantzun beharko bainuke,
 ganboarri ere zor zaigula aitaren *herentzia* ren senipartea, eta
 protestanteok ere kristau garela, are gehiago: katolikoak baino
 kristaurogo, etabar, etabar. Igerriko zenioten, honez gero, horrela
 mintzatzen hasi zaizuena nor den, ezta? Jaun-andreok, zuekin
 gaurko lehen izar gonbidatua, nire baitako «ni-ki» rik borroka-
 laria, *engage*-tuena, konprometitua eta, zenbaitetan, gogai-
 karriena: zuekin, *Parlamentox* (..txalorik jo nahi badiozue,
 aurrera, gustatzen zaizkio-eta, ez pentsa). Dena dela, agintzen
 dizuet gaurkoan ez diodala mikrofonoa gehiegitan utziko,
 behar-beharrezkoa izan ezik. Eta zergatik hori? Ba, Ariadna-
 ren haria aurkitu nahi dudalako. Eta ez «Labirintoan» barrena,
 hango eta hemengo minotauro guztiakin, zipoka eta zirika,
 bultzaka eta muturka ihardun; horrexegatik. Eta nola nire
Parlamentox honek erretxina eta petrala izaten ere badakien
 behin baino gehiagotan, —munduan beste askok lez, nire arta-
 buruak ere oskolez—, hobe ahal dudan neurrian behinik-behin
 kontrolpean edukitzea. Oso zaila baita antzematen noiz iga-
 rotzen garen nor geure ideien defentsa zilegi eta beharrezkoa-
 ren eremutik nor geure «ego» ustez gutxietsiaren kasketare-
 nera, ulertzen? Azken batean, *mathaiotes mathaiotetoon kai*
panta mathaiotes / vanitas vanitatum et omnia vanitas, edo
 gure hizkuntzan esanda: «*hi bahaiz?, ba ni banauk*». Hizkun-
 tza internazionala, inon internazionalik bada. Ariadnaren haria
 ez doa hortik, ordea. Eta horixe bilatu nahi dut nik gaur hemen,
 zuen aurrean. Nori enkargatu diodan ikertze-lan gaitz hori?
 Neure «ni-ki» en artean Sherlock Holmesik ez baitaukat. Eske-
 rrak, halako batean ere, bonbila piztu zitzaidala: «*Maixu Beltza-
 ri deitu beharko diok*»— aholkatu zidan nire barne-ahots *parte*
oneko batek. Uste dut Unibertsitate honek berpizten didan
 nostalgiaman izan zela ahots hori, sasoi hobeagoen edo sinpleki
 gazteagoen urrunespenarena. Hamahiru, hamalau urte pasa
 baitira jadanik, *jesus-maria-ta-jose*, «*ene jesus*», «*kresala*», «*ehun*
metro», eta enparauak, hemengo auletan esplikatzen edo lar-
 daskatzen nituenetik. *Maixu Beltz* deitzen zidaten zenbait lagu-
 nek orduan, espero dut nire larmintzaren kolorearengatik
 bakarrik izango zela. Horixe duzue gaurkoan, bada, bigarren

izar gonbidatua, inbestigazio inposible honen ardura nagusia —berak sekula esango ez lukeen bezala esanda— bere gain hartu duena. Pedante samarra baita gure *Maixu Beltz* hau, «*konplizitatea*» beharrean «*sopikuntasuna*» eta «*aurpegira botatzea*» ordez «*jaukikatu*» eta horrelakoak esan edo idatzi ohi dituen. Langilea bai, bada: hor ibili da asteotan, buru-belarri, formalismoaz, estrukturalismoaz, barthismoaz eta lacanismoaz etxean dituen liburu, apunte eta bitakora-kaier guztiak arakatzen. Hala ere, alde zuzenetik aitortzea hobe, ez du ezer funtsezkorik lortu; agian desentrenatua dagoelako, irakasletzaren ofizioa aspaldi utzia izaki; edo zahartu egin delako, besterik gabe, «neure honen» neuronek duela hamalau urte bezain bizkor funtzionatzen ez, agian... Baina ez. Guzti horiek (barkatu!: *horiek guztiak*, Euskaltzaindia dixit) aitzakiak direlakoan nago. Nire susmoa zera baita, *Besteak* ez diola utzi *Maixu Beltz*-ari bere lanari etekinik ateratzen. *Besteak*... Eta nor da *Beste* hori? Hirugarren gonbidatua, *The third man*, *El tercer hombre*, euskaratua ere badagoena porzieto: *Hirugarren gizona*. Eta nor da berau?... *Martin Bañez* noski!, hain zuzen eta hain oker ere, dagoeneko zuentzat ezaguna, hor nonbait, Arrasate eta Garagartza arteko bidean, oinaztarren segadetan behin eta berritoki eta, hori gertatzen zaion bakoitzeko, bere alarguntza-gai den *Antsa Otxoa Ozaetakoa*-ren sumindura patetikoa sustatzen duena, *Aramaiori hartu deusat gorroto*, nahiz eta ez, zauritu bai baina ez da hiltzen eta, beraz, *Aramaiori, dabenak ez bemaio*... Bera dela esan dizuet, baina ez nago seguru. Orson Welles pelikulan bezala, ezkutatu egiten baita gau ilunean, Vienako kale-bazter eta etxe-hondakinen artean; baita estoldetan ere..., eta atzetik narraio, linterna xume bat garraio, baina alde egiten dit arraio. Eta okerreba ba al dakizue zer den?... Barkatu, nazka, narda eta higuina eragiten badizuet, baina estoldetan zertzuk ibiltzen dira?... Ba horixe: *Martin Bañez*-i segika, *Arratoia*-ekin egiten dudala topo askotan. Bernardorenkoa bera ote den ez dakit, baina antzekoa. Zer uste zenuten, ba? Zer uste genuen denok? Poesia lore eta txorizko sinfonia dotorea zela, ala?... Batzutan (edo *batzuetan*, ja ez dakit nola esan behar den!: *Euskaltzaindiari hartu deusat gorroto*), batzutan, nioen, izan daiteke, eta izan behar da, behar bada, estoldetatik gora igo, kalerako irteera topatu, estalkia

kendu eta eguzkiak eta haize freskoak aurpegi betean laztantzen gaituztenean, baina normalean... *Martintxo* hau betizu hutsa dela? Iheskorra eta zapuztia? Ez naiz harritzen. *Maixu Beltz* arekin ezin ondo konpondu inola ere. Oso hizkuntza diferenteak —*sic: di-ferenteak*, alde banatarakoak— baitira batarena eta bestearena. Batak bestea harrapatu eta sailkatu nahi, eta besteak munduan gehien gorroto duena horixe izan. *Parlamentox*-ekin, ordea, ez da hain gaizki moldatzen *Martin*; bolada luzeak pasatzen dituzte elkarri hitzik esan gabe, baina eskuarki, tira, hor nonbait, nahiko abegi ona egiten diote elkarri (othoi, kasu bietan hitz hau minuskulaz dagoela erreparatu) eta batak bestea mintzatzera bultzatzen edo adoretzen ere bai. Hau hala gertatzea harritzekoa ere ez omen da, *Maixu Beltz* freudiar zangar eta gangar honek dioenez, zeren eta aspaldidanik, sublimazio bidez, elkar hartuta omen baitaude *Id*-aren eta *Superego*-aren ordezkari banaok; lanak, beti bezala —eta horretan zor zaion merezimendurik ezin uka—, *ego*-ak ditu, hots, nik neuk, *Maixu Beltz* honek, beste bien apetak eta kasketak berdintzen. Nolanahi ere, ahobatekotasuna dago gure «ni-ki»en batzar deslai honetan, seme kuttunaren titulua *Martin Bañez-i* —*Martin-txori*, lagunen artean— eta ez besteri egozterakoan,... sarritan geure onetik ateratzen bagaitu ere bere inuxentetasunagatik eta bere, nola esango nizueke, bere hauskortasun zurrun edo zurruntasun hauskorrengatik.

Horra, ba. Hiru poema-liburu ditut idatziak. Berorien gainean hiruna begirada ematea proposatzen dizuet, nire hiru bame-heteronimo hauen ikuspuntu banaren argitan. «*Bame-heteronimo pessoatarrak?*» —galdetzen dit *Maixu Beltz*-ak. «*Hago isilik, sasi-jakintsu!*» —erantzuten dio *Martintxo*-k «*Pessoatarrak badira, bale, baina pesoetarrak ez, gero...*» —mehatxatzen du segidan *Parlamentox*-ek. Ulertzen duzue jolasa, ezta? Jolasa..., ez dakit jolasa den ere, jokoa hobeto: asko baitago jokoa, niretzat behintzat, nire oreka mentalarentzat, ez bainuke nahi neure barne-deskontzertu honek fisikoki ere, alegia, ez metaforikoki bakarrik, Arrasate eta Garagartza aldean dagoen Santa Ageda delako etxe famatu horretara eraman nazan, hango mediku eta erizainek ez baitut uste ezer askorik ulertuko lioketenik gure *Martin Bañez-i* XV. mendeko eresiak errezitatzen hasiko balitzaie.

Beraz, berriketak utzi, eta esplorazio batzuk egitera gonbidatzen zaituztegu nire heteronimook eta hirurok, izelombriaz Joxe Austin Arrieta deritzon izkiriataile honen poesia edo dena delakoaren gainean. Hirugarren pertsonan ez ezik, hiru *dramatis persona*-ren bitartez mintzatuko naiz, beraz; hasieran behintzat. Fikzioa? Jakina, baina zer da literatura, azken finean, harako «*larvatus prodeo*» hura ez bada?

ESPLORAZIO PANORAMIKOA

Edo taxonomikoa, nahiago baduzue. Helburua badakizue zein izaten den: halako autorearen lana mapan kokatu, pintza batzuekin formol-frasko batean sartu, handik diseaturik atera, eta Euskal Poesia Garaikidea deritzan panel kokorren jostorraz batekin, ttpa, dagokion tokian jartzea. Arriskua ere nabarmena: kritikaren basoaren barruan gatibu, lan konkretu bakoitza itolarritzea, Atxagareneko —berriz ere?— libelula hura bezala. Baina lan beharrezkoa, hori ukatzerik ez, *Martin Bañez*-en protestak gorabehera, baldin eta tentuz egiten bada eta ez basoak arbolak ezkutatzeko moduan. Eta honetaz ari garela, *Maixu Beltz*-aren baiezko botoarekin, *Martin Bañez*-en eta *Parlamentox*-en ezezkoarekin bada ere, eskerrak eman nahi dizkiot Jon Kortazar adiskide oro har ez-irizkideari, bere kritika-lanetan bidea urratu digulako, itule-lan nekosoan eginez, ildoak markatuz. Besterik da, jakina, noiz zuzen eta noiz oker goldatu dituen, baina hortxe daude ildook, eta hori beti da eskertzekoa. Beste berri batzuk beharko direla? Bai, nire ustez, baina Jonek urratu dituenetan ere aukera eskaintzen zaigu norke geure gustoko alea bertan eriteko, dela garia, dela oloa. Beraz, nori berearen zuzenbidearen legea bete ondoren, goazen aurrera.

Gauza batean ados nago, abiapuntu gisa, Kortazar adiskide eta honetan nahiko irizkidearekin: eklektikoa deritzo *Harrieta* honen lanari. Baliteke. Inori ez zaio etiketa nahasi horren pean sailkatua izatea gustatzen, baina agian zuzena da, zeren aztertzen ari garen autore honen produkzioan elementu oso heterogenoak aurkitzen baititugu, bai tematikoak,

bai teknikoak; erritmo, erreferentzia eta tonu diferente asko, gehiegi beharbada, eta horregatik zilegi da guztiz, zenbaiti aberastasuna irudi dakioketena, beste hainbati barreiadura nahaspilatsua edota multi-epigonismoa iruditzea.

Nolanahi ere, autore bat —kasu honetan *Harrieta* hau— klasikoa, neoklasikoa, erromantikoa, modernoa, postmodernoa edo dena delakoa ote den galdera pisutsuari erantzun ahal izateko, lehenik nik uste dut ados jarri beharko ginatekeela darabilgun terminologian eta metodologian. Hel diezaigun, adibidez eta batez ere, modernitatearen zerari. Nik badakit, gutxi gorabehera, europar tradizio abanguardistan, noiz eta nola gertatu zen poesia klasikotik eta erromantikotik poesia modernorainoko jauzia, edo hobeto esan, haustura, urradura: XIX. mendean erdi-aldera, hiru mosketero inefable haien estokada gupidagabeez: Mallarmé, Baudelaire, Rimbaud. Ordurako bapo instalatua zegoen boterean burgesia, berrogeita hamar urte lehenago «*sans culotte*»ak kainoi-haragitzat erabiliz irabazitako Iraultzari esker. Eta ez dut uste jauntxo eta damatxo berri haiek oso maite zutenik hiru mosketeroen poesia, nahiz eta —diletantismoa beti egon da, dago eta egongo da— zenbaitetan beharbada disimulatzen saiatu. Zergatik? Poeta modernoek poesia zaplasteko galanta zelako, kontzientzia urratu baten garrasia, burgesiaren mundu sendo eta koipetsua zartatzera zetorrena. Badakigu tigreak ere bezatu egiten direla, domestikatu, alegia; eta oso urrutira joan beharrik ez dugu horren dozenaka adibide ikusteko. Baina poesia modernoa, orduan, tigrea zen, abangoardiako arte guztia bezala. Zuek esan, ze demontre pentsatuko zuten tertulia literarioetako madame eta monsieur zilbor-handi eta perladunek, honelakoak entzutean:

La chevelure vol d'une flamme à l'extrême
Occident de désirs pour la tout déployer
Se pose (je dirais mourir un diadème)
Vers le front couronné son ancien foyer.

Mais sans or soupirer que cette vive nue
L'ignition du feu toujours intérieur
Originellement la seule continue
Dans le joyau de l'oeil véridique ou rieur.

Une nudité de héros tendre diffame
 Celle qui ne mouvant astre ni feu au doigt
 Rien qu'à simplifier avec gloire la femme
 Accomplit par son chef fulgurante l'exploit

De semer de rubis le doute qu'elle écorche
 Ainsi qu'une joyeuse et tutélaire torche.

Niri entzunda, barre egingo zuten, hori seguru. Baina ez, arazoa ez da nire frantses-ahoskera traketsarena. Arazoa da ez dela tutik ere ulertzen: hitzak solte hartuta bai, baina bestela zipitzik ere ez. Ez gureztat bakarrik, frantses hiztunentzat ere, ordukoentzat eta gaurkoentzat, hau *ulertezina* da logika karte-sianoaren arabera; galdetu bestela beraiei. Galdetu Barthes-i, Ma u ron-i, Lacan-i, Le Galliot-i, Mallarmé-ren «iluntasuna» argitu nahirik milaka lan-ordu sartu dituzten kritikiko horiei; edo galdetu bestela, sinplekiago, Iparraldeko gure edozein aberkideri, hango eskolan sarritxutan egin beharko dituzte-eta testu-iruzkinak mosketero hauen lanei buruz; galdetu ea zer iruditzen zaien... Zer da modernitatea? Mallarmé-ren poema hau zer da? Soneto bat da, egituraz, errimaz, metroz eta abarrez, *soneto* bat, baina «soneto klasikoekiko edozein antzekotasun txiripa hutsa» dela azpigitulatu beharko genuke, filme bat balitz. Iraultza kopernikano bat dago hor. Roland Barthesek sakon eta zabal aztertzen du guzti hau (edo «*hau guztia*»; Euskaltzaindia, *izazu nitaz kupida*), nire ustez gaurkotasunik batere galdu ez duen «*Le degré zéro de l'écriture*»/«*El grado cero de la escritura*» delako bere saiakera famatu hartan. Biziki gomendatzen dizuet berori irakurtzea; laster, gainera, euskaraz ere izango dugu, Juan Gartzia ari baita, oker ez banago, berau itzultzen. Hara zer dioen Barthesek, besteak beste:

«Veremos, por ejemplo, que la unidad ideológica de la burguesía produjo una escritura única, y en los tiempos burgueses (es decir, clásicos y románticos) la forma no podía ser desgarrada ya que la conciencia no lo era; y que por lo contrario, a partir del momento en que el escritor dejó de ser testigo universal para transformarse en una conciencia infeliz (hacia 1850), su primer gesto fue elegir el compromiso de su forma, sea asumiendo, sea rechazando la escritura de su pasado. Entonces, la escritura clásica estalló y la

Literatura en su totalidad, desde Flaubert hasta nuestros días, se ha transformado en una problemática del lenguaje». (*Op.cit.*, 12-13. or.)

(Gure historia ere horrelakoa al da?)

Aurreraxeago, «lengua»-«escritura»-«estilo» hirukote konzeptuala zedarriztatzen ari delarik, hauxe dio hizkuntzari, «lengua»ri, dagokionez:

«La lengua (...) corpus de prescripciones y hábitos (es) (...) un horizonte (...), reflejo sin elección, propiedad indivisa de los hombres y no de los escritores; permanece fuera del ritual de las Letras; es un objeto social por definición, no por elección...». (*Op.cit.*, 18. or.)

(Gure kasuan ere hala al da?)

Eta aurrerago, azkenik, 60. orrialdean:

«Para retomar la distinción entre «lengua» y «escritura», podría decirse que hasta 1650, la Literatura francesa todavía no había superado la problemática de la lengua y por eso mismo ignoraba la escritura. En efecto, mientras la lengua duda de su estructura misma, toda moral del lenguaje es imposible; la escritura sólo aparece en el momento en que la lengua, constituida nacionalmente, se transforma en una suerte de negatividad, en un horizonte que separa lo prohibido de lo permitido, sin plantearse problemas sobre los orígenes o las justificaciones de este tabú». (*Op.cit.*, 60)

(Zenbat mendetako atzerapena daramagu?)

Nire susmo orokorra zera da, «ismoen olatuek behin eta berriro gainezkatu izan gaituztela eta ez dakigula oso garbi non dagoen gure «istmoa, gure betiko lore-joko eta bertso-demetan entreteniturik genbiltzan (eta gabiltzan) bitartean. Gure poesiaren eboluzioa ez baita, ezin izan baita, normala izan. Badirudi ahaztu egiten zaigula herri txiki, menperatu eta kulturalki erabat kolonizatua izan garela beti, hizkuntza subnormal(izatu) baten jabe ia gabea. Aisa ematen ditugu guk saltoak..., hutsaren hurrengo arn gainean, baina, ni beldur. Bali-

teke Frantziako XIX. eta XX. mendeetako ezaugarri sozioekonomikoak eta Euskal Herrikoak grosso modo parekagarri izatea; ezaugarri soziopolitikoak, berriz, ezberdin samarrak izan dira; eta ezaugarri soziokulturalak, zer esanik ez. Baudelaire, Mallamé, Rimbaud, ezin sor zitezkeen kultura frantsesaren testuingurutik at, mendetan barrena moldaturiko magma soziolinguistiko-kultural jakin eta zehatz hartatik kanpo. Hizkuntza poetiko modernoa transgresioa bada, zeren transgresio izan daiteke oraindik araua bera finkatu gabe daukan hizkuntz komunitate bateko modernitatea? Hizkuntzarena? Ez, ezinezkoa, aporia hutsa litzateke hori. Tradizioarena? Bai, hori posible da, eta egin izan da, nahiz eta zenbaitetan tradizio hori oso gutxi ezagututa. Ideologiarena? Bai, hori da posibleena, eta maizenik gertatu dena, alde guztietatik gertatu ere. Nire ustez, kritikak —Jon Kortazarrenak, kasurako, baina ez bereak bakarrik— bere burua euskal poesiaren ideologi eboluzioaren azterketa egitera mugatu izan du gehienbat eta, jakina, egin-kizun horretan nor bere afinitate selektiboak sartzen ditu beti jokoan; afinitate literarioak bai, baina ideologikoak batez ere. Eta holaxe gertatu ohi dira gertatu ez-beharrak: B. Gandiagaren hizkuntz bizikizunaren fenomenologia liriko aparta, adibidez, «*Hizkuntza=Herria*» delako ekuazio erromantiko-nazionalista omen dela-eta, lumazo batez deskalifikatzea; edota J. Sarrionandianaren produkzioaren parte bati («*Izuen gordelekuetan barrena*», «*Ni ez naiz hemengo*») laudorio-zaparrada egotzi ostean, beste parte bati («*Marginalia*», «*Marinel zaharrak*», «*Gartzelako poemak*») jaramonik batere ez egitea edota, are, aurrekoarekin «kontraesanetan» omen dagoelakoan, autorearen eskizofrenia (!) posible bat aipatzeraino iristea; edota —beste aldekoongandik— B. Atxagaren «*Gizona bere bakardadean*» nobelako Carlos protagonistaren ideia *polimili* peto-petoek *gaurko* ETaren erresistentziaren zilegitasuna, «demokrazian (!) absurdoa delako» argudio ezagunaren arabera, guztiz arbuaitzen dutelako, nobela hori, inoiz euskaraz idatzi den nobelarik onena nire ustez, ZEN planaren osagai bat dela pentsatu eta besterik gabe bai obrari bai autoreari muzin egitea. Eta beste hamaika...

Isekazko ahots bat somatzen dut neure baitan: «*Zer? Diber-titzen ari al zarete, Liskar Clubeko kontutxo horiekin?*» Alajaina.

Martin Bañez da. Oraingoan ere ziri ederra sartu digu. *Parlamentox* eta biok hemen, *mano-mano*, ele zuhur zorrotzetan ari ginen bitartean, eskapo egin digu berriro. Eta oraindik ez dakigu ia ezer haren poesiaz. «Eklektikoa» dela, besterik ez. «Moderno» den ala ez den, auskalo. «Postmoderno», hitz honek Euskal Herrian dituen konotazio psoeistikotan ulerturik behinik-behin, badirudi ez dela. Baina zer gehiago? Non daude bere hitzak? Hiru poema-liburu idatzi ditu, zer dio berorietan? Ea, presaka bada ere, harrapa diezaiogun hitz bat edo beste..., *a ver*, hauxe bera, «*Bertso-paper printzatu*» en hasiera:

«La chevelure vol d'une flamme à l'extrême
Occident de désirs...» (Mallarmé)

Horra, hau ez al da lehen..., zera? Bai, hala da. Eta zergatik sartu ote du zita hau liburuaren hasieran bertan, itxuraz behintzat, goiburu nagusi gisa? Modernitateari bere alea ekartzeko, ote? Eta zer dator hurrengo orrialdean? Soneto bat; beste kointzidentzia bat. Ea honako hau ulertzen dugun:

«Ilunabar geldi, intzentsu mikatz
hodei-lits eztanda, gurenda ezkor
ereinotz dastagaitz, oreka hauskor:
zure hatsak dakar oinaze-oinatz.

Orrits astirotsu, nagi den lorratz
argi-oturuntza, itzal-ekarkor:
gu errauskizun hits, orein izukor
so gagozkizunak, mirari aratz.

Diosal ozenak zabalduz gora
urrikaltzeke giza deitoeak
irri dagizu gugandik lekora.

Zimelduz doaz joranden loreak
arrats luzea etzan da sorora:
aieru zenakor («zenakor»ez!, zemakor behar du!
Martin Bañez protesta bizian)
aieru zemakor gau-tenoreak.

Beno, erratak erritmoa galarazi badigu ere, Mallarmé-ri baino gehixeago ulertu diogu, behinik-behin. Ala ez?... Nola ezetz? Ez

dago anakolutorik batere, enkabalgamendurik ere ez apenas, sintaxia erabat ortodoxoa da, sintagma gehienak labur-labur-rrak: sustantibo-adjektibo, sustantibo-adjektibo... Zergatik ez da ulertzen? Zer? Hitzak?... *Je suis desolé*. Mallarmé-ren garai-kideek hitzak behintzat ulertzen zizkioten. Ondorioztatu beharko ote dugu, beraz, *Harrieta* honek errotikako errore estrategiko bat jauki (edo kometitu, barka) duela, berak hor nonbaiten dioen bezala, «*zahagi zaharretan ardo berria*» sartzeko bere ahalegin zoro horretan? Eta beste erro re estrategiko ez txikia-goa, bestearen korolarioa-edo, «*anphora*» hautsiaren zatiak lurretik jaso eta haiek berritsatsi nahi izatean? Zergatik hisikatzen du hainbeste (barkatu: zergatik insistitzen du hainbeste) Lizardik oraindik bizirik beharko lukeela gure artean, goizegi lurperatu dugula hura mertxika-hezurrean, Rimbaud hartaz galdezka etorri zela, bai, baina berarekin solastatzera, ez bera ehorztera? Ez al da konturatzen *Harrieta* hau, aukera horiek egitean, bere poesia erabat *at* kokatzen ari dela, poesia *erreakzionarioa* egiten ari dela, azken finean, eskritura eskripturario bat, epitafio ukroniko bat ia, zitroin-uruz ikuziriko gorpua —«*zazpi urthez etxeki dizut gizon hila khanberan/ egunetz lur hotzian eta gaiaz bi besuen artian*»—? Ez al da jabetzen *Harrieta* hau, Arkadia euskaldun izan-ezinen rememorazio amestuak oro antzuak direla zeharo? Historiak ez duela mobiolarik? Modernitate europarretik, eta non-nahitarretik, formak eta korronteak, ideiak eta sentikortasunak, aspaldi geureganatuak ditugula, eta Kavafis edo Pessoa edo Elliot, esate baterako, Oihenart baino inportanteago direla guretzat, hurbilago ditugula? Ez al du ikusten *Harrieta* honek, poesia beharrean, filologia edo folklore eruditoa egiten diharduela?...

(*Martin Bañez*, ezin minduago, xuxurlaka ari da barnebidetatean: «*Berba horren berba gazia/ berba horri nahi ez dakiola balia*»... *Parlamentox*-ek, ahaleginetan, hura kontsolatu nahi: «*lasai, Martin, hik memoria kolektiboa berreskuratu nahi izan duk, eta hori denontzat duk mesede, ez egin kasurik*». *Maixu Beltza* bera ere solidarioki mintzo zaio orain, eraso bortitzaren tamainak ustekabean harrapatuta: «*bai, lasai... eutsi goiari eta ez ahaztu ezen «dardoak egin arren bere aldia, Olaso dela hire egoteko aulkia*»...)

(*Martin Bañez*-ek eta *Parlamentox*-ek, guztiz haserre —era-soa nik neuk, *Maixu Beltz*-ak, neure autokritizismo birrintzailiaz, probokatu omen dudalako—, stop dinostate; beraz, stop, maioria dira-eta. Derrotaturik erretiratzen gara hirurok, nolana-nahi ere, lehen *round* honetatik. *Touché*).

ESPLORAZIO POETIKOA

Kontraerasoa antolatu behar, eta ez jakin nola. Intuizio bat, hala ere, *eppur si muove* hisiakor bat, gogarteko tolesturaren batean: hurbilketa panoramikoek ez dute balio, oraindik ez, behintzat. Ismoen itsasoek, beren marea-gorabeherekin, ito egiten dute hitz poetikoa, gehientsuenetan. Poesia *hitz egitea* baita, *stricto sensu*: hitz edo berba *egin* egitea. Poesia ez da *zerbaitetaz* mintzatzea, ezta *zerbait* adieraztea ere (dela ideologia, dela bizipena, dela bizipoza). Poesia ez da eduki batzuen transmisio edertua. Ez da prosaren bariazio ornamentala. Ez da atributoa, substantzia baizik. Ez dago lehendabizi edukia, eta gero forma: dikotomia klasiko hori burutik ken ez dezagun bitartean, alferrik gabiltza, ez gara gizaki modernoak, *hardware* eta *software*-en garaian bizi arren. *Hitza* da poetikotasunaren alfa eta omega. *Hitza* ehundaka edo milaka printzatan ezpaldua. Eta hitz-ezpal horiek, hitz-baketa bihurturik, lokera bat dute, eta lokera horrek *dentsitate autonomo* bat sortzen du eta *dentsitate autonomo* horixe da *beste zerbaiten* adierazgarri, ez han-hemenka *azaltzen diren ideiak...*, ideiak ez baitira *azaltzen*, mamitu egiten dira, *egin* egiten dira. **Poesis** Hitz Egitea, Berba Egitea... Ez dakit esplikatzen naizen. Askoz ere erosoagoa baita, denontzat, *fondo/forma* dikotomia klasikoarekin funtzionatzea.

Poesia modernoa, ordea, ez da harako formula famatu hartan kabitzen: *Poesia*= *Prosa* + *metroa* + *errima* + *irudiak*. Ez, ez da hori. Beste lengoaia bat da, zeharo diferentea. Hitz poetikoa bertikala da, ez horizontala. Horregatik da hain zaila komunikazioa. Hitzek —balio autonomo gisa— pisu ikaragarria dutelako, poeta bakoitzaren estiloan, hots, errai biologikoan bertan, sakonki errotua. Poesia ez da gogojardun espiritualua, ez da

«*examen de conciencia*», «*de inconsciencia*» baizik, norbaiti nonbait irakurri diodan bezala. Poesia ez da funtzionala, eta baldin bada, ez da poesia modernoa: «*La poesía moderna (...) destruye la naturaleza espontáneamente funcional del lenguaje y sólo deja subsistir los fundamentos lexicales*»- dio Barthesek. Poesiaren balioa ez da kanpoko ezein errealitateretik egokitzapen-mailaren arabera juzkatu behar. Bühler-en eskema famatuko gainerako funtzioek ere —*apelativa*, «*representativa*», «*expresiva*» direlakoek— badute edo izan dezakete presentzia hitz poetikoan, baina, literalki, *ez dute ezer esan nahi*, idazki baten poetikotasuna ebazterakoan. Ekar dezagun gogora Jakobson Maixu Zaharraren formula makur bezain zehatza. Zer da *funtzio poetikoa*?:

«La función poética consiste en la proyección del principio de equivalencia del eje de la selección al de la combinación»

Paradigman selekzionatzen duguna sintagman konbinaraztea, hor dago kokka, beraz. Badakit ez dela nahastu behar *sinestesia anestesia*-rekin, «*Lubaki Banda*»ko gazte lotsagabe horiek arrazoi handiz salatzen duten bezala. Baina mintzaira poetikoa bada nolabaiteko *sinestesia* bat, zentzu horretan: a rdatz paradigmaticoa sintagmatikoarekin *nahasten* da, hots, metaforak katea mintzatura eraisten dira, para-errealitate metonimiko bat eraikitzeraino. Ulertzen al da? Ez, ez da erraza, neuk ere ez dakit oso ondo zer esan dudana, nahiz eta nik neuk moldatutakoa izan azken azpi-formula hori. Metaforizazioaz baliatu beharko —*Martin Bañez*-en ahotsaren bitartez—, poetikotasunaren muinera hurbiltzeko; baina baita ni neu osoaren gogoetaz eta esperientziaren hausnarketaz ere. Lehen pertsonan mintzatuko naiz orain, beraz, neure baitako «*asamblea de majaras*» osoaren izenean, alegia:

Hona hemen hurbilketa metaforikoa: zeintzuk dira poeten lanabes nagusiak? Hitzak, metaforak eta metonimiak, eta hitzak, eta sentimenduaren legamia, eta hitzak, eta pentsamendu berriaren irinaz egindako oreka, eta hitzak, eta ore berriari nahasitako ore zaharraren ikuttua, eta hitzak, eta Fontanatik edo Fontainetik edo Iturriotzetik ekarritako ura, eta hitzak, poesia metaforaz-

-metonimiaz-erraiz-buruz-tradizioz-antitradizioz lanaren labean ogi berri bihurtzeraino. Ah, eta plajioz, honako hau bezala, enegarrena. Zeren poeta guztiok baikara Bernardoreneko Carlos bezalako okinak, traketsago nahiz trebeago, horrek esan nahi ez duelarik, noski, beti ere eta derrigorrez geure okindegiko sotoan, *o sea en el zulo*, Jon eta Jone gordeta eduki behar ditugunik.

Hona hemen, berriz, esperientziaren lekukotasun xumea, eta gogoeta-ildo bat bederen. Juan Mari Lekuonari asko zor diot, aspaldidanik, Saturrarango Seminarioan irakasle eta aita espiritual izan nuenetik gaurtxe arte, lagun, lankide eta herrikide dudalarik (ni ere Oiartzunen bizi bainaiz). Eta zor dizkiodan gauzen artean bat, eta ez makalenetakoa, zera da, «*Bertso-paper printzatuak*» liburuari egin zion hitzaurrea. Eta ez goraipatzen nauelako, ez koipea ematen didalako; ez baitu horrelakorik egiten. Kritikatu egiten nau, seriooki, nire ekarpenaren alde onesgarriak eta gaitzesgarriak, biak, haztatuz. Azken hauei dagokienez, besteak beste, bere ohizko fintasunaz, zera aholkatzen dit: ez dagozkidan ofizioetan muturrik ez sartzeko, bertsoak-eta paratzeari uzteko, erregistro horiek, bai lirikoki, bai satirikoki, landuta daudelako. Eta arrazoia du. Uste dut hirugarren libururakoan aintzakotzat hartu nuela bere aholkua. Baina bere kritika horretatik gauza bat nabarmendu nahi nuke gehienbat: *hitzari dion errespetua*. Berak badaki, ondotoxo jakin ere, hitza dela gure *materia prima... et ultima*. Beraz, hitzen berritasunaren ohar zehatza jasotzen du; gero egitura poetiko-teknikoak aztertzen. Eta, azkenik, balorazio bat egiten du datu zehatz horien gainean. Ez dela aski? Beharbada. Baina bai guztiz ezinbesteko eta oinarrizko lana. Hortik hasi beharra baitago, eta gero gerokoak. Lastima Juan Marik berak egin ez izana berak baino hobeto beste inork nekez egingo lukeena: nire hiru liburuotan, *in crescendo* gainera, agerian eta ezkutuan, zuzenean eta zeharka, hantxe ehortzita baina —ustez behintzat— biziberrituta, bor-borrean ari diren euskal testu zaharren oihartzunen inbentarioa. Testu zahar horiek, eta berriagoek, funtzio poetikoa betetzen baitute nireetan; horiek ere aukera paradigmaticoak izaki, sintagmara ekarriak: ez dira inondik ere erudizio ornamental hutsa. Baina ezagutu egin behar dira, jakina, zeren bestela nire poema asko, hermetiko ez, patetiko

suertatzen baita. Patetikoa den bezala euskal literaturzale-literaturgile batek aitortu zidana: 1448. urteko Mondragoeren erreketari buruzko bertsoak nik neuk asmatuak zirela uste zuen; berak ere ezagutzen ez, nonbait. Erreferentzia horien berri izatea ez da batere zaila, ordea. Erabili nuen bibliografia normahik eskura dezake. Ez nintzen biblioteka-zokoetan pergamino zaharrak arakatzan ibili: Auñamendiren «*La Gran Enciclopedia Vasca*», Leizaola lehendakari zaharrak Buenos Airesko EKIN editorialean euskal poesiari buruz argitaratutakoak (gure Boabdil tragiko hau, Granada galdu ondoren, gutxienez euskal poesia ikertzeraz ere dedikatzen zen, Alpujarretako moriskoen altxamenduak gaitzestera ezezik), eta antzeko beste bizpahiru liburu: horiek izan nituen iturri. Guzti honetaz (edo «*honetaz guztiaz*» omen, Euskaltzaindiaren aginduz: pase forala aplikatuko diot baina, *se obedece pero no se cumple*), ba, guzti honetaz, diot, ez dago zer harriturik, badakit; baina zer haseurreturik bai, franko gainera. Guri, Francoren garaiko nire belaunaldikooi, ez zitzaigun euskararen eta euskarazko kulturaren aztarrenik ere irakatsi geure ikasketetan (Seminarioan Juan Mari eta holako *rara avis* batzuen salbuespena kenduta); baina zuoi, demokrazia espainolaren eta autonomia estatutarioaren kume zareten gazteoi ere, ezer askorik ez, ikusten dudanez. Hor dabil egun hauetan gure alaba Naroa —lasai, Jon, oraingoan ez diot nanarik kantatuko—, 17 urte, 3. BUpetako (*Parlamentox* & zensuratzen dit «BBB» sigla erabiltzea, ze hori... beste zerbait baita), EGA titulurako azterketa prestatzen estu eta larri. Ah, eta *Lite* delakoa: «*Lite* zer?» —galdetu izan diot nik behin baino gehiagotan. «*Jo, aita, ba' kizu: Lite Española, tío*». «*Bapo*» —orduan nik, neure artean— «*ederki giaudek moderniarako saltoa emateko, triple salto mortala ez bada*». Ze, adiskideok, neri oso ondo iruditzen zait, nola ez zait ba irudituko, gure Naroak iazko eta aurtengo ikastaroetan «*La Celestina*» oso-osorik irakurri izana, eta «*El libro del Buen Amor*», eta «*El Poema del Mio Cid*», eta «*El Conde Lucanor*» ere bai, zergatik ez?... Baina, arraioak ez baditu, noiz da «*Bereterretxan khantoria*» ren txanda?... «*Ez, hori, badakizu, programak halakoxeak dira-eta, inposatuta datozkigu-eta, gazteok duten euskara-maila kaxkarrari eusten ere nahikoa lan badugu-eta, bestetarako astirik ere apenas-eta*»...

Ederto, bada, gazteok. Denok EGAdun, baina hegan zeuen kon-tura ikasi beharko, besteok egin dugun bezala. Goazen aurrera.

Esplorazio poetikoa deitu dugun honetan barrena, uste dut apur bat hurbildu garela *Harrieta* obraren berezitasunera, nolabait hitz poetikoarekiko sorrera-konpromisu gotor gisa kalifika genezakeen praxi horretara. Edo, behinik-behin, berezitasun hori errebindikatzeko atariraino iritsi gara, nik uste, eta ez kasu bakan edo bitxitzat harturik, hitz poetiko orori dago-kion tasuna den bezainbatean baizik. Baina hitz poetikoaren autonomia aldarrikatzeak zer esan nahi du prezeski? *Hitzegi-te* berezi hori ez dela *ezeren zeinu*? Bai, bada, baina *zantzu* («*indicio*») den neurrian bakarrik. Zeren *zantzu*?... Erantzun bila, beste esplorazio-mota bati ekin behar, derrigorrez.

ESPLORAZIO PATETIKOA

Maiz erabili dut, hitzaldi-harakiri honetan barrena, hitz hauxe: *patetiko*, beharbada oharkabearen. Baina orain ohartuki ere erabili nahi nuke, *pathos* kontzeptua benetan gakoa baita lirikaren alorrean. Zeren, egia izanik ere *funtzio poetikoa* eta *funtzio adierazkorra* elkarrengandik bereizi beharrekoak direla, ez baita egia makalagoa poetikotasunak beti daramala itsatsita adierazkortasuna, aldez edo moldez. Hala nola aliterazioa, adibidez, diskurtso poetikoaren eranskin ornamental hutsa ez den, halatsu *pathos* arnukitua (edo leherdura) ere hitz poetikoaren bere-bereko osagaia da. Saia gaitezen, bada, eremu honetara hurbiltzen. Nahiz eta, aurrera baino lehen, eta gaurko gure ikergaiari dagokionez, aurre-ohar ezin larriago bat egin beharra dagoen. Oztopo erraldoia baitugu geure aurrean; hauxe:

«*La obra, una vez escrita, se asemeja al mito: el autor no puede ya explicárnosla, carece de poder sobre ella*» — dinosku Barthesek.

Zer gatik? Idazketa poetikoa oharkabearen (edo inkontzientearn) ozeantotik hitzaren itsasora egindako intsuldaketa (edo trasbase) tantakari bat delako, alanbikede desesperagarri baten estugune metaforiko-metonimikoan zehar.

Zergatik? «*Parce que l'écriture est en prise directe sur les frayages pulsionnels inconscients*», Le Galliot-ek dioenez, hots, eskritura irrikazko iharrosketa oharkabeen gain-gainean zambulukatzen delako, faila tektoniko baten gainean eraikitako zubia bailitzan, lurrikara eta erupzioen mehatxupean beti ere. Ez al zaik iruditzen, *Martin Bañez*?

Ba, bai. Hala duk, *Maixu Beltz*. Baina ez zegok exageratu beharrik ere (txist, harrapatu dugu...). Babeslekuak ere bazeudek, amodioa, teluria, eguneroko plazer xumeak, eta hori hik ere badakik, hitz pedanteagoekin esanda, hori bai. Beharbada gauza batean arrazoia duk, esaten duanean, alegia, Mendia, konkretuki, nire poesian, aitzakia dela gehienbat, barruko kezka arintzeko edota hik metaliteratura-edo deitzen duan zer hori egiteko. Baina mendian ibiltzea gustatzen zaiguk, perretxi-koak biltzea —bizpahiru mota besterik ezagutzen ez baduk ere, sasi-jakintsu horrek—, eta goroldio eta langar-usaina dastatzea. Badizkiagu holako poema batzuk eginak, aski politak nire gustorako: «*Jaioko dira nire eskuak udazkenez*» hasten dena, esate baterako («*Bertso-paper printzatuak*», 43. or.). Dena dela, ez diat uste, hik esaten duan bezala oso «rekurrentea» delako, itsasoare n gaia obsesiboa dudarik, eta Herioaren tiramena-edo sinbolizatzen duenik; horiek hire burutazioak dituk. Gure aita arrantzalea huen, eta gu kostaldekoak, besterik ez; gauzak esplikatu beharrean, konplikatu egiten dituk hik. Hori bai, «*Iritsiko da itsasoa, biluzik eta ohoregaberik*» hasten dena (B.P.P., 38 or.) aski polita duk, egin dugunik politenetakoa, eh, sozio? Bera baino lehenago baldin bagoaz Josafateko Zelaira, abisua utzi behar diok Juan Mariri hori irakurtzeko gure funeralean, sin falta...

(Bale, *Martintxo*, txorakeriarik ez esan. Zer gehiago?)

Txorakeriak nik? Ba hik tontakeriak, hire moduko intelektual guztiek bezalaxe. Esate baterako, hizkuntzaren zera hori. Esaiek bost axola zaidala non sailkatzen nauten, baina nik barru-barrutik bota nituela «*Mintzoen mintz*»etan hizkuntzarekiko sentimenduak. Ideologia erromantikoa? Noiztik nauk ni ideologoa? Euskara galdua genian, eta errekuperatu egin diagu, ezta? Ez al dira konturatzen hire kide sasi-jakintsu horiek zer-nolako zera daukan horrek barrutik? Esaiek...

(Bale, bale, *Martin*, nahikoa duk). Ez daki konposturarik gordetzen, barkatu. Neronek jarraitu beharko dut hitzaldia. Dena den, berak iradoki didan tonu sotilari eutsiz, ahal baldin badut. Gizon karstikoa bainaiz, ez sarkastikoa, karstikoa: kareharrizko paisaia zulatua, barne-korronte anitzez interkomunikatua. Eta elkar kutsatzen dugu, onerako eta txarrerako. *Harrieta* bai, baina ez granitozkoa, *Harrizko Herri* honen harako Mailuari denok bezala nik neuk ere asko zor diodan arren. Gure plural maiestatikoa erabiltzea ez dut uste, honez gero, inork dotorezia erretorikotzat hartuko duzuenik—, «gure», beraz, poesiaren psikokritika eta mitokritika ezin dut neronek egin, hurbilegi nago-eta. Baina inor animatzen baldin bada... Hara, badut etxean kariño handia diodan lan bat, zuek bezalaxe eta zuen adineko unibertsitariora nintzenean egindakoa (*o tempora, o mores*): Charles Mauron kritikari frantsesaren «*Des métaphores obsédants au mythe personnel*» deritzan liburua ren laburpena da. Uste dut metodologia interesgarria dela, are erakargarria oso, eta euskal poesiari inoiz aplikatu ez zaiona, nik dakidala. Adibidez, Mallarmé-ren obra osoa aztertuz —lehen irakurri dizuedan sonetoa handik aterea da—, pausoz pauso, hitzak eta irudiak sailkatuz, «*réseau*» edo elkartze-sareak antolatuz, «*metafora obsesibo*» deitzen dituenetara iristen da, eta gero handik, han-hemenka sakabanaturiko errepikapenak bateratuz, Mallarmé-ren «*mito pertsonala*» definitu eta deskribatzeraino. Ez dakit gure *Martin Bañez*-ek horrelako molestiarik merezi ote duen, baina metodologiak berak mesede egingo liokeela uste dut gure literatur kritikari oro har.

Hona hemen autore horrengandik hartutako definizio-moduko batzuk:

— *Metafora*. Alde batetik objektu bat seinalatzen du (ez ordezkutzen) eta bestetik barne-erreferentzia bat ematen, autorearen beraren kontrolpetik at dagoen zerbaitena, bere inkontzientearena. Irudia da, baina pantaila ere bai («*image-écran*»). Desira uxatuaren agergarria da.

— *Metonimia*. Zentsurak inposaturiko saihaspenaren edo desbideraketaren agergarria.

— *Sinboloa*. Metafora iraunkor eta errepikatua.

— *Fantasia*. Irrikazko desioen adierazpen mentala, eta aldi eta era berean larritasunaren aurkako defentsa-bidea, hala nola ordain-desioen («deseos de reparación» direlakoan) adierazpena.

Nolanahi ere, eta Barthes berriro mintzo:

«El estilo no es sino metáfora, es decir, ecuación entre la intención literaria y la estructura carnal del autor (...). El estilo es así siempre un secreto; pero la vertiente silenciosa de su referencia no se relaciona con la naturaleza móvil y sin cesar diferida del lenguaje; su secreto es un recuerdo encerrado en el cuerpo del escritor»

Mito pertsonala-z, berriz, hauxe da Mauronek damaigun definizioa: «*situation dramatique interne, personnelle, sans cesse modifiée par réaction à des événements internes ou externes, mais persistante et reconnaissable*». (194 or. *Op.cit.*)

Eta galdegin genezake, xaloki bezain zorrozki, behin honetaz gero: zein da *Harrieta* honen mito pertsonala? Ez daki; ez derantzu (gainera, baleki ere, ez lerantzuke; ez *Martin Bañez*-ek berak, ez besteok ere, solidaritate minimoa bederen bai baitugu oraindik elkarrekiko). Baina pistak, aztarrenak, nik uste, ugari utzi ditu hiru poema-liburuotan, eta prosazkoetan ere bai. Andozeko ibarrak, Lantainako alabak, Kiskalerrak, teluria krepuskularrak..., guzti horiek, eta beste askok, izan behar dute barne-loturaren bat.

Galdera *erantzungarriago* edo, behinik-behin, orokorrago bat egin dezagun, beraz. Ikusia dugunez, metaforak eta metonimiak behin eta berriro azaltzen zaizkigu mintzaira poetikoaren osagai funtsezkoen gisa... Eta zertan bereizten da, baldin bereizten bada, poeta gehientsuenon hitz egiteko manera estraino hau, metaforaz eta metonimiaz *josia* (sic), gaixo mental baten hizkera eldarniotsutik? Ez al dute biek eite patologiko nabarmen berdintsua, edo are berdina? Guy Rosolato kritikoak ez gaitu, ez, gehiegi lasaituko; hara zer dioen:

«El análisis de lo *histérico* y de lo *obsesivo* muestra que el uno pertenece a estructuras *metafóricas* y el otro a la estructura metonímica».

Beraz, jaun-andreok, kontuz ibili poetekin. Ez gara batere fidatzekoak. Literalki, hau da, literaz litera, burutik joanak gaude, antza. Izaki histeriko-obsesiboak, alajaina. Ulertzen? Nola hasiko nintzen, ba, ni gaur hemen, zertaz eta neure lanaz, «*ene uste apalean*» —«*dena den, badirudi ezen...*»— «*aldiz, beste honako barne-errima honi erreparatzen badiozue, esan genezake...*», eta gisa horretako akademizismo gizabidetsuak esaten? Ulertzen duzue, ezta? Liburu bakoitzean gutariko bakoitza hustu egiten da. Hustu egiten du bere barrua, erraiak mostradorera ateratzen ditu, brausta, gustatzen bazaizue, bale, eta bestela kale.

Nik uste dut idaztearen lantegi hau, izan ere, bi motatakoa dela: okindegia batetik, eta harategia bestetik (edo harakiritegia, nahiago baduzue). Ea esplikatzen naizen. Okindegia: narrazioa, fikzioa; hau da, norberaren kezka, pentsamendu, oroitzapen eta ametsei buruz norberarekin zerikusirik ez omen dukeen historia baten bitartez hitz egiteko —eta ondo hitz egiteko— abilezia. Harategia: poesia, lirika; hau da, norberari buruz —eta norberaren gogoz kontra sarritan— zuzenki hitz egiteko ingenuitatea, doi-doi hitz ederren, errimatu edo errimatuen, irudi/pantailaren mozorropean, historiarik eta ixtoriorik gabe. Sinplistegia? Baliteke. Baina antzeko zerbait dioela uste dut Cesare Paveseke ere, narratzaileak eta poetak konparatzerakoan, «*El arte de vivir*»eko pasarte honetan:

«Para cumplir el papel de puente entre relato y poesía se requiere astucia(...) (Narratzaile petoek) en lugar de derivar una grandeza de la violencia de los sentimientos, la derivan del acto de saber vivir. Esta base biográfica es la única cosa que tienen en común los líricos y los creadores —erreparatu nola ukatu egiten dien lirikoei sortzailetasuna, bera hain poeta ona izan arren, baina bistan da poetok histeriko-obsesiboak ezezik maniako-depresiboak ere bagarela-eta...— Pero mientras que para los líricos todo se extingue en esta violencia, para ellos, para los Maestros, el saber vivir es un arte que simplemente sirve para tornear el material humano, entregado a sí mismo, pulido, ultimado: puesto a disposición de todos. Así ellos desaparecen en la obra, mientras que los líricos se desfiguran en ella.»

Nola lor dezake poeta batek bere poesiak irentsi eta suntsi ez dezan? Nola, sentimenduen bortiztasuna bortizkeria bihur ez dakion, boomerang demoniozko baten gisa? Nola, azken batean, idatzi daiteke poesiarik, *mintzoen mintzen* itsasoan ito gabe?... Erantzunak era eta hein askotakoak izan daitezke. Poema bat, denik eta sinpleena izanda ere, pluridimentsionala baita beti (edo «*izari-aniztuna*», *Maixu Beltz*-ak esango lukeenez). Mikro-narrazioaren dimentsioa, esate baterako, hortxe dago beti, poemaren barruan, eta berori lantzean, nolabait urrun daiteke poeta, arian-arian, lirismo hutsaren Labe Garaitik —eta larritasunaren galdatik, beraz—. Egituraketa ere hor dago, poemaren arkitektura, alegia: amianto-zko traje berezien premiarik ere ez duzu berorretan iharduteko; eta errima eta erritmo eufoniko bila ibiltzea ere ez da entretenimendu makala izaten. Baina ez ahaztu: ez gara geu hitzaren jabe, alderantziz baizik. *Poiesis* jokoan sartze hutsak joko horren arauak onartzen direla esan nahi du, ez dago gero atzera egiterik: ulertzen? Lehen genioen ez dagoela *fondo/forma - edukia/azala* eta gisa horretako dikotomia zaharrei eusterik. Eta horrek ze ondorio dakar? Ba, zera sinpleki: usterik gutxien duzunean beharbada, orduantxe hain zuzen linburtzen, iragazten, barren-datzen zaizula poemara zeure inkontzientea. Ez baikara hitzaren jabe, haren maizter baizik. Ustez artisautza hutsezko lan-keta *aseptikotan* ari zarela eta horra, derrepente, nondik eta nora ez dakizula, auskaloko noizko naufragiotako hondakinek egiten dizute jauzi paperaren edo macintosharen lerro etara. Eta hala behar du, gainera. Poema *pasamoduko* bat behinik-behin onduko badugu, *geureneko* fantasmak eskutxutik helduta paseatzera atera behar baititugu, ez dago beste erremediorik. Eta orduan, ah orduan: «*han ziraden suak eta garrak, han ziraden kainonazuak*»... Orduan, joan-etorriko bidaia egiten trebatu beharra duzu zeure burua, adiskide. Mito orfikoa, alegia: infernuetarako jaitsiera «kontrolatua», nolabait esanda. «*Regresión reversible*» deitzen diote batzuek. Zera, ikasi beharra dagoela maldan beheara jaisten, baina baita gora berriz itzultzen ere. Esaten erraza, eta egiten ez hainbeste, badakit; baina hor datza gakoa. Eta hor, bai, hortxe, eta ez ideologiaren mailan nire ustez, jokatzen du benetako paper erabakiorra *iro* -

nia-k. Ironia baita, edo nahi baduzu: nork bere buruaz barre egiteko ahalmen hori, izan ere, zoramenaren kontrako asegururik onena, eta halaber, poiesis-lana burutu ahal izateko lagungarririk leialenetakoa.

Ez baita *poiesis* delako gintza, inola ere, auto-torturarekin nahasi behar. Larritasunaren antidotoa den auto-estima konkistatzeko borroka grinatsua da, azken finean, ez besterik. Egia da larritasunarekiko egiten ditugun armistizioek, normalean, Sarajevokoek baino gutxiago iraun ohi dutela, edo hain hurbilera joan beharrik gabe, gure arbasoen garaiko (edo gaur egungo?) harako *Butroeko meniak* baino gutxiago, zeren *Butroezelangoa dan oroc daquie...* Baina hori bezain egia da, edo egiago, noizbait bederen, agian ehun orrialdetatik bakanen bat edo bestean bakarrik, baina lortzen dugula geure fantasiatzko *kreaturak*, hots, geure fantasmen, *antzaldatze hitz-egina*, agerpen katartikoa, geuretzat ezezik besterentzat ere esanguraz betea, arnas emalea, bizigarria. Eta horrek dakarren plazerra ez dago ez hitz bitan ez milatan esaterik, plazer guztiak, definizioz, ezin esanezkoak baitira. Gizarajoak, dena den, poesiak ezertarako balio ez duela diotenak; ez dakite zer galtzen duten.

Ez dizkizuet orain irakurriko, baina hemen idatzita uzten ditut Charles Mauronengandik hartutako pare bat pasarte, bata oso luzea, ederrak biak ere, artistaren *robot-argizkia* (edo *argazki robotak?* nola da, Euskaltzaindia?) oso modu sakon eta sugerikorrean ematen digutenak:

«Le sens du réel révèle lentement à l'homme un univers qui ne l'aime pas. Les relations humaines, ou au moins certaines d'entre elles, gardent quelque chaleur, que l'agressivité et la mort dissipent pour une bonne part. Les relations avec l'inhumain, fascinantes et secrètement terrifiées pour les mentalités magiques, aboutissent normalement, chez les esprits religieux, au tremblement de Pascal, c'est-à-dire à une adoration transfixée de culpabilité, et, chez les esprits non religieux, à ce sentiment d'abandon et de solitude qui a marqué la philosophie scientifique de XIX^{ème} siècle et, après Nietzsche, l'angoisse existentialiste (...) La vie active l'efface (l'angoisse) aussi chez la plupart des hommes qui se passent alors aussi bien d'art ou que de philosophie ou de religion. Mais de toute façon, le sens du réel amène l'individu vivant

à constater une dyssymétrie entre lui-même et le milieu spatio-temporel où il baigne. Des deux termes, le second, c'est-à-dire le milieu, se révèle à la fois le plus puissant et le moins aimant, le froid l'emporte en lui, et donc la mort. Cette dyssymétrie tend à rompre notre équilibre psychique. Un mouvement de compensation doit nous inviter non pas à nier le réel au profit d'illusions ou d'hallucinations, mais à modifier le milieu. Nous le modifions, en effet, lorsque nous y introduisons ces objets de communion que nous créons nous-mêmes (...) L'art a pour but biologique de projeter autour de nous les manifestations, les images et les preuves d'un pouvoir de synthèse qui se confond avec la vie même et qui, depuis toujours, la maintient contre l'agressivité et le froid du monde spatio-temporel, contre la solitude et le morcellement. L'art affirme la communion possible et réelle entre l'objet le plus inanimé et le sujet le plus vivant. Et c'est bien pourquoi il exige, comme geste préalable, un repli affectif à la fois sur nos expériences vécues, notre histoire d'être vivant et sur nos réserves d'énergie —tel me paraît le sens de la régression réversible et créatrice. Le monde doit être modifié dans le sens où la vie le désire: encore faut-il éprouver ce qu'elle désire et comment elle réagit. Les outils, le langage dont la conscience se sert pour connaître la réalité sont inadéquats pour cette interrogation de la vie en nous mêmes. Il y faut un regard aveugle, sensible à toutes les nuances et les présences de la nuit. Il ne s'agit pas d'un don mystérieux, mais du développement d'une fonction normale, à peu près inusitée dans la vie active. La régression cependant ne signifie qu'un premier temps. Les images et les tendances profondes ainsi empruntées à l'inconscient sont projetées sur l'écran d'un langage, subtilement construit pour les traduire sans cesser de recueillir en même temps les suggestions de la pensée consciente.. La synthèse se fait au niveau de langage, et la structure de ce dernier (...) joue certainement un rôle par son pouvoir de combiner plusieurs logiques à la fois. Le moi orphique ne pense pas «inconscient» ou «conscient», mais «instrument» et crée ainsi la dimension nouvelle, où l'antithèse s'évanouit». (*Op. cit.*, 238-9 or.).

«Ainsi, je crois que l'être vivant, lorsqu'il acquiert le sens du réel, connaît d'abord un deuil, souffre une ruine intérieure. Le milieu, originellement la mère, se désanime, se révèle enfin comme espace-temps et même comme réalité sociale, moins vivant que l'individu. À travers le créateur, et pour maintenir son affirmation d'elle-même, la vie se projette alors dans le monde extérieur, en objets

prouvant une communion possible, enseignant à l'individu des nouvelles façons d'aimer et d'être d'accord avec l'univers. L'incons-cient paraît seul capable de fournir l'énergie propre à cette projection» .(*Op. cit.*, 240 or.).

ESPLORAZIO PERIPATETIKOA

Poeta baten obra zubi nimiño bat da, Eskritura deritzan mendi malkartsu eta lainotsuko amildegiren baten gainean soka eta ohol kolokariz egina. Esplorazio panoramikoak, sate-litetik edo hegazkinetik, *zoom* egokia erabiliz gero, agian foto-grafia dezake zubi hori. Baina, kontuz, zubi hori nolakoa den eta ertz biak zeintzuk diren ondo aztertu beharra dago. Ez du balio, eskuarki egin ohi den bezala, ertz bata Urlia poeta eta beste ertzak halako edo holako korrante-eskola-filosofia dela esateak. Obra poetikoak ez baitu zuzenean errealtatea edo deitzen dugun horrekin zerikusirik. Esplorazio poetikoak eta patetikoak —*in situ* lurra zapalduz, apal eta zorrotz lan egi-nez— gehixeago hurbiltzen gaituzte xedera, eta zera erakusten: literatur objektu horrek, zubi horrek, bi ezpona batzen dituela, obraren *inmanentzia* alde batera eta autorearen *intentzioa* (neurri handi batean inkontzientea, poesian behintzat) beste aldera. Besterik ez; edo, hobeto esanda, ez gehiago, ez gutxiago. Baina, jakina, horrek ez du esan nahi «zubi» estraino hori, grabitate-legearen halabeharrari burla eginez, airean zintzilik dagoenik. Mendi horretan dago, Eskrituran, eta mendi hori paisaje eta orografia konkretu baten parte da: nahiz eta Olinpo beti lainopean omen dagoen, hara joandako esploradoreek diotenez, apenas bizi omen da bertan ezein jainko-jainkosarik. Gizakiak bizi dira han ere; gizakiak eta emakiak, of course. Zakarkiago esanda: poeta ez da poeta gau eta eguneroko 24 orduetan, beste edonor bezalakoxea da, pertsona bat, bere ideekin, bere maniekin, bere harremanekin, bere jarrerekin, bere ametsekin (hauetan. beharbada, besteak baino espezia-lizatuxeago). Baina, lagunok, pertsona horrek menditik kanpo dabilenean ageri duen edozein ezaugarri pertsona horren obra aipatzeko eta epaitzeko giltzarritzat hartzea iruzurra da, frau-

dea. Eta sarritan egiten da hori gure artean, sarriegitan, lehen e re esana dudanez, *y así nos luce el pelo*, beno, daukatenei behintzat; neri ezta hori ere.

Politika, filosofia, ideologia, kontzientziaren eta gizarte-ihar- dueraren eremuan gabilitza, beraz. Honetaz ere zerbait esan beharko, ba. Gai hauetan *Parlamentox* dut bozeramaile ofi- ziala, neure ni soziopolitikoaren ordezkari gisa: pasako al diot berari mikrofonoa?... Hum, ez dut oso aurpegi entzun-goserik ikusten zuen artean... Zergatik ote? Hain desprestigiaturik al daude, ba, politikarien hitzak?... Bai, badakit baietz, eta kez- katu egiten nau; ez da batere seinale ona, justifikatua ez dagoe- nik ez badiot ere.

Teorizazio nekosotan barrena abiatu ordez, anekdota xume bat, baina mamitsua, nik uste, kontatuko dizuegu jarraian *Parlamentox*-ek eta biok (*Martintxok? Martintxo*-k ez, auskalo non dabilen honez gero, lehen egin diodan purrustadaz geroztik: joan beharko dut gero, berriro, bere bila, horko pasabide, estolda eta labirintotan barrena). Gabriel Celayaren hileta-omenaldia zen, Hernaniko Udaletxean. Erdal esaera anker baten legea betez, hantxe ari ginen «*autoritateok*» pastatxo batzuk jaten-eta, kafes- nea hartzen-eta, berriketan: «*kaixo, zer moduz*», «*hementxe*», «*hau ere joan dela-eta*»... Hori bai, segizio behar den bezalako bati zor zaion barbaro leun eta aiutua errespetatuz beti ere. Aldameneko aretoan, Gabrielen errautsak ontzi batean, lorez gainezkako mahai baten gainean. Eta noizbehinka, memorian, Paco Ibañezen ahotsaz, errauts haiek kantari: «*Maldigo la poe - sia concebida como un lujo cultural por los neutrales / que laván - dose las manos se desentienden y evaden..*». Ezagun bat hur- bildu zitzaidan, emakumea, izenik ez dut esango, literaturza- lea, argia, kultua: «*zer moduz?*», «*ondo eta zu?*», «*oye, una cosa, y perdona que te lo diga así, a bote pronto...*», hantxe zebilen Hernaniko alkatea ere, HBkoa —arteana Ajouria-Eneako pak- tua ez izaki, nonbait, D´Hondt legea baino inportanteago—, korbata eta guzti, halaxe esan berria nion: «*dotore hago, hori duk hori benetako alkate izatea*», «*etzakela adarrrik jo*» hark ostera, *gorroto diot korbatari, azken reduktoa da, no pasarán*, azken sin- boloa, baina une hartan emakume hura ari zitzaidan hizketan,

*a bote pronto: «¿cómo así te has podido meter en política?». «Pues?...»- nire Martintxo tontolapiko honek galdera inuxentea. «Porque me parece que te estás prostituyendo». Txan-txan. Bihotza taupaka. Ahoa bete hortzekin. Holakoetan, gainera, *Parlamentox* honek, zenbaitetan hain harro eta distiratsu dirudien honek, huts egiten dit, erreflexurik gabeko boxeolari baldarraren modura: makina bat aldiz haserretu izan naiz berarekin horrexegatik, eta fuerte gainera. Ez dakit zer erantzun nion *bote pronto*-ari. Ezer ganorazkorik ez, behintzat. Gero bai, Santa Barbara mendian, Gabrielen errautsak haizetaratu genituenean —«*agur, Celaya, que te sea leve el viento de esta tu Eskadi, tan pequeñita, como decías tú*», xuxurlatu nuen neure artean, nire otoitzek ahaztua baitute aspaldi harantzagoko heldulekurik—, orduan bai, otu zitzaidan eman beharko niokeen erantzun egokia: «*Es terrible que me digas eso precisamente hoy, en el homenaje póstumo a Gabriel Celaya*». Eta ukabila estutu nuen, ezkerrekoa gainera, poltsikoaren barruan: eta ez da metafora, behingoz, oraingoan ez, Paco Ibañezek errauts-ahotsaz nire oroimenean kantari segitzen zuen bitartean: «*maldigo la poesía de quien no toma partido, partido hasta mancharse*». Eta ez dakit zergatik, beno bai, garbi dago: errautsak, haizea..., ba, kuestioa da «*Lo que el viento se llevó*» pelikulaz gogoratu nintzela, eta Clark Gable, eta hegoaldeko errebeldeak, eta yanki harropuztuak gerra irabaztear, eta Scarlett O' Hara (hala deitzen zen neska, ezta?), eta eszena artxifamatu hartaz, eskailerakoaz ez, besteaz, neskak arrastiriko kontrargitan juramentua egiten duenekoaz, bere lurra ez duela inoiz abandonatuko, eta hori dena.*

Gure belaualdikoen txorakeriak, noski. Barka, gure belaualdiko batzuen txorakeriak, ze beste batzuk, listoak, aspaldi konturatuak baitira «*que eso ya no se lleva*». Zeharo txotxinduta gu, nonbait. Urte gutxi barru, asilora sartzen gaituzuenean, etorriko zarete sikira guri bisitatxoren bat edo beste egitera, ezta? O rdurako espero baitut gure arteko gorroto eta ezinikusi interbelaualditarrak apalduta egongo direla, eta denok, zuek eta gu, nolabait parra, ez da hala, gazteok?: guk zuei lanposturik ez, eta zuek guri pentsiorik ez, *en paz*. Kontatuko dizkizuegu orduan *batallita* batzuk agian, ordainetan.

Baina oraindik ez, oraindik burua nahiko argi daukagu, gure edaderako, noski. Eta bizpahiru gauza esan beharra ere bai. Bat, hauxe, *Maixu Beltz*-aren aldetik. Nik inoiz ez dut «*errealismo sozialista*»ren apologiarik egin. Berlingo harresia eraitsi baino dezente lehenagotik ere, batzuk bagenekien, Joxe Azurmendi intelektual euskaldun erraldoi horren lanei esker batik-bat, «errealismo hori ez zela ez oso «osasuna»tsua ezta oso «athletic»oa ere. Goitik behera jipoitu zuen estetika kamuts hori gure Joxek bere liburu niretzat guztiz gogoangarri haietan: «*Artea eta Gizartea*», «*Errealismo sozialistaz*», baita «*Zer dugu Orixeren alde*»/«*Zer dugu Orixeren kontra*» diptiko eder hartan ere, baina hori bai, marxismoak, besteak beste, erakutsi digun tresnarik estimagarriena erabiliz, dialektika.

Ze ren egia baita perspektiba genetiko batetik arte-obra bat garai eta klase sozial baten ideologiaren ispilu dela, baina hori baino egiago esplikazio horrek ez duela ukitzen, oso urrutitik baizik, obra horren literaturtasuna. Eta hau bezain egia idazleak, edota artistak oro har, gizabanako normal baina bitxi horrek, produkzio-mota berezi bat mamitzen duela: objektu estetikoak fabrikatzen ditu. Lukács filosofo marxistak ederki asko aztertu zituen berezitasun horiek, oker ez banago. Oso urrutira eramango gintuzke produktu horrek artistaren eskue-tatik irten ondoren nolako ibilbidea egiten duen aztertzeak; horregatik, gera gaitetzen bakarrik, eta une batez, obraren genesian, sorkuntzan bertan. Eta hor niretzat garbi dago, neure eta besteren esperientziaz, idazleak «*des-referentzializazio*» p rozesu bat bizi ohi duela, eta bizi behar duela, obra ernaltzen duen bitartean. Bai, beharrezkoa da marfilezko dorrea, zentzu horretan (*Parlamentox* p rotestaka ari zait, baina berdin da). Bai, beharrezkoa da Atxagak, ez dakit hitz honekin baina, aipatzen duen urruntasun edo ekidistantzia hori, nahiz eta, erne, aldez aurretik denok jakinaren gainean egon behar dugun hori ezinezkoa dela funtsaren funtsean.

Zeren produkzio estetikoa egiterakoan ideologia ez baita desagertzen. Ezta poemarik hermetikoena egiten ari garenean ere. Ideologia inkontzienteraino ere sartua baitaukagu, barne-muinetaraino, *beldur gisa* (*Don Beldur*, bai, Bernardo: zorio-

nak, erdi-erdian asmatu duk), *autozentsura gisa*, *fantasia objektual gisa*: eta gaur egungo gizakiok, gainera, uste dut gure aurrekoek baino gehiago, masa-kulturako komunikabideen tiraniaren eraginez. Hemendik, premisa hau onartzen bada behintzat, eta beste honako hau gaineratzen: «*la ideología dominante es la ideología de la clase dominante*» (niretzat axioma-balioa duena), ondorio guztiz larri bat jaulkitzen da, nik uste. Honako hau: *kontraktorik demostratzen ez dugun bitartean, hots, kontzientziazko faktore zuzentzaile «x» batzuen bitartez geure berezko (sasi-berezko!) iharduna gainbegiratzen ez badugu, ideologia dominantea erreproduzitu, birsortu, hedatu egiten dugula*. (Baita hik ere, Bernardo, konbentzionalismo onartezin batez, hire nobelako polizia-buruak ate-atzeko poemak irakurtzen jartzen dituanen —zein hizkuntzatan?—, eta sekula erreallitate gordinean gertatzen ez den ikertzaitetasun sherlock-holmistic eskisito batez jokarazten dituanen, zinez polizia *demokratikoak* bailiran, nahiz eta hik jakin, primeran jakin ere, *ez direla*; baina, jakina, hire eta denon baitako *Don Beldurrek*, kasu honetan gainera, nik uste, oharkabeko *Arratoiz* mozorroturik, aholkatzen dik leundu egin behar duala haien irudia, haien gehiegikeriak eta bidegabekeriak *Ezpainas* bezalako tipoen jokabide bakantzat adierazi behar dituala, eta ez *Espainia* osoarena, ez sistema osoarena; eta, jakina, badakik, edo sumatzen duk, sistema osoaren kontra ezin haizela borrokatu...).

Nik ez dakit ditxosozko Maiatza-68ko (Pariseko zer hura) eta zinezko Ekaina-68ko (Txabi Etxebarrietaren heriotza) belau-naldikoak omen garenok ~~marxismo~~-feudianismo-estrukturalismoaren arteko sintesi ezinezkoaz oraindik kutsatuegirik gauden ala ez; baliteke. Auskalo honez gero Marcuse hura non ote dagoen; hila ez badago, zeharo itzalia bai behintzat. Eta Althusser?: berau ere zendua, bere emaztea burko batez itoarazi zuelako, psikiatriko batean bere bizitzako azken urte tristean eman ondoren. Baina, zer nahi duzue esatea, agian denok nork geure aldiari diogun *amor fati* delakoa izan daiteke, baina iruditzen zait, ahalegin teoriko sakon eta zorrotz haien aldean, oraingo postmoderniaren filosofia guztia, eta bereziki, berorren ondoriozko errezetario estetiko ergela, oilo-zirina besterik ez dela. Lipovetsky-k edo dena delako horrek lipotimia sorta-

razten dit. «Intimismoa» eta «samurtasuna». Baita zera ere. Paulovent txakurrak baino kondizionatuago gaude gizarte mediatiko honetan, eta «intimismoa», horraatik. Kapitalismo multinazionalaren fase ultra-lehiakor eta ultra-antihumano honetan, eta «samurtasuna». Ederki eman ere. «*De qué vas, tío?*», zuek gehienok bezala langabezira eta nazkara kondenatuta dauden nire seme-alabek esango luketen bezala —bai, Jon, garai txarrak dira seme-alabei nanak kantatzeko—. «*Ya ninguna ideología política es capaz de entusiasmar a las masas*» —omen dio Lipovetsky delako horrek. Gezurra. Faxismoa, arrazismoa, xenofobia, eta berauen ondoriozko basakeriarik gordinena bizi-bizirik baitaude berriro Europa honetan; Sarajevo, Tuzla, Mostar edo Gorazdeko mendi-magal elurtsu eta odoltsuak lekuko, beste hainbaten artean. Berriro «*garai txarrak oraingo hauek lirika-arentzat*», adiskide.

Eta berriro Cesare Pavese, faxismoaren kontra partisano ibilitakoa bera, oker ez banago, eta berriro poetaren angustia, poetaren korapilo askaezina:

«...todo en la historia es revolucionario; incluso una renovación, un descubrimiento, imperceptibles y pacíficos. Fuera, pues, también el prejuicio de la renovación moral que necesita (tal vez por parte de otros, de los activos) la acción (...) Yo debo contentarme contenido en cada una de mis poesías, y mostrar mi renovación moral en la humildad con que me someto a este destino, que es mi naturaleza. Lo cual es muy razonable. Siempre que no sea pereza o cobardía.»

Eta horregatik esan behar dut, ez naizela damutzen poeta ganboarra izateaz, —hots, ganboarra: Gaztelako Koroarekiko subditotasuna inondik inora onartzen ez duena, besteak beste—, *Ulsteretik Ustelraino*ko bizitza-bidean, *Josu-bar-Joseph*enez gorrotorik ez amodiorik gabe. Eta batzuetan adjektiboak sustantiboari segada jartzen badio ere, hor nonbait, Arrasate eta Garagartza artean, *Martin Bañez* prest dagoela Olasoneko aulkian lanean jarraitzeko. Baldin, gaurko saioan, neure baitako *Martintxo* hori gehiegi hilduratu ez badut; ez ahal nuen, behintzat, guztiz hilko. Zeren, hala gertatzera, *Antxa Otsoa Ozaeta*ko-ak etsi egin beharko bailuke Ariadnaren haria bilatze-lane-

tan, eta nire *Hirugarren Gizona* Vienako estolderietatik erreskatatze-ahaleginetan: berau gorpu aurkituko balu, negar batean emango lituzke bere gainerako gau eta egunak, *esku batean gezia/ bestean zuzi irazekia, Aramaio —dabenak ez bemaio—* erretzeko kemenik ere gabe. Espero dut, desio dut, hala ez gertatu izana. Zeren bestela, alferrik geldituko bainaiz kanposantuko panteoiaren ondoan zigarro bat erretzen: *Scarlett O'Hara* nirealdamenetik pasako da jaramonik egin gabe (peli-kulaz nahasten ari naiz, baina berdin da). Denok, azken finean, *Martin Bañez* baitugu maite kuttuna, eta ez *Maixu Beltz-Parlamentox* bikote berritsu, jasangaitz eta, hori bai, borondate oneko hau. Mila esker denoi, zuen egonarriarengatik.

1. Deustuko Unibertsitatean, 1994ko martxoaren 10ean, irakurritako testua.

GUNEN GURPILEAN

JESUS ETXEZARRAGA

BADATOR GUGGENHEIM
DEBALDEKO GEHIEGIKERIA
AZKEN MAREA
ZARAMA ETA AHV
GOIAK ETA BEHEAK
BELDURRAK ETA GEZURRAK

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

LANDART ETA IPARRALDEKO IDAZLEEN PROSA
FENIX-HARANBURUREN HEGADA BERRIA
HIZTEGIGINTZAREN HUTSUNEAK
TORIBIO ALZAGA BERRARGITARATUA
BIDAIETAKOAK, TXIKIAK ETA TXIKIENTZAKOAK
1.200 LIBURUTIK DOZENA-ERDI

KIKE AMONARRIZ

ARABATIK ETORRI GERA, HAUXE DA GURE HASIERA
NAFARROA, ARRAGOA
PARISTIK DATORREN ARTISTA BAT NAIZ NI
BADUGU ZEINEK AGINDU
HEMEN GAUDE EUSKARAREN ALDE

KULTURA LITERATURA SOZIOLINGUISTIKA

KULTURA

JESUS ETXEZARRAGA

BADATOR GUGGENHEIM

Bilbon Iparragirre kaletik bazoaz eta Nerbioirantz begiratzen baduzu, etxe guztiak baino handiagoak diren garabi beilegiak gailentzen dira, han non hondakin industrialen lurzoru deskamatuan zerbitzuen Bilbo berriaren eraikinak jasotzeko diren tokian. Guggenheim Museoaren hezurduraren monjorra egingo dute konturatu orduko. Gure belaunaldia gaindituko duen hirurogita hamabost urteko akordioa sinatu zen, eta aldi bateko eztabaidak ahaztuta genituenean, Mari Karmen Garmendia heldu da, eta etorriaz batera aurrekontuen ardura bereganatu duenean, konpromezuak konpromezu direla aitortu arren, museorako inbertsioen erritmoa beharbada aztertu egin

beharko dela adierazi du, eta arteztu akaso. Euskal Museoen Plan Nazionalari ere ez dio, dakigunetik behintzat, diru-atalik bereizi.

Ohio ibaiaren ertzean, Pittsburgh hiriak bere aldian egin zuen antzerako birmoldaketa egingo dutela Nerbioiaren bi aldeetako Bilbon agindu digute, eta horren adierazgarri izango dela, besteak beste, ingelesen zelaian eraikiko dugun Guggenheim Museoa. Ez digute kontatu ostera, Estatu Batuetako horrelako birmoldaketek erakarri ohi duten biztanleriaren emigrazioa, «american way of life» arrunt eta ibiltaria, baina gure bizimoldearen antzatek errukibakoa begitantzen zaigun ondorio latza. Europa zaharraren kontuak. □

DEBALDEKO GEHIEGIKERIA

Ideiak argi ditu Kultur Sailburu berriak euskararen etorkizuneko premiei aurre egiteko gure artean diren zenbait proiektu bultzatzerakoan, baina ez dut uste azken asteotan entziklopedien gerra deituriko auzian plazaratu diren iritzi batzuk asko lagunduko diotenik arazoa bere senetik atera gabe ulergarri izan daitekeen oreka batean erabakitzen, edo jendaurrean azaltzen behintzat. Gauza askotara ohituta geunden kultur mailako eztabaidetan, baina Eusenorreko Andoni Sagarnak kompetentziaren lana kritikatzeko erabili duen moduak eta mamiak harri eta zur utzi gaitu. Endrike Knörr, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu eta Ibon Sarasolaren begiradapean Lur entziklopediak egin duen lana, nondik eta minik gehien harrezakeen puntutik jo du, onetsi eta orraztu duten euskararen kalitatearen aldetik. Agian, ez da, esate baterako, Sagarna eta Sarasolaren artean planteatzen den kompetentzi bataila bat, Cisneros kardinalaren antzera ezkutuan eskuadra asko dituenaren gehiegizko eraso bat baino. Orekarik gabeko bataila bat ere izan liteke, ez balitu eta borroka horrek gudu-zelaian erakutsi ez diren arma batzuk. Ez zuen ez Harluxet Fundazioak, ez Eusenor taldeak hortzak hola erakutsi beharrik, eta ziur nago erakunde horiek sostengatzen dituztenen artean badela aniztasun eta besteenganako begirune handigorik. Tamalez, Sa-

garnak ez dio batere mesederik egin bere proiektuari, ezta harren babesleari. Ekandu zaharra eta txarra da etsaia aurrez jo eta astindu aurretik deskalkifikazioz gaitzesteko ohitura hori. Horretan ere normaldu gara. □

AZKEN MAREA

Urte asko darama Augustin Zubikaraik azken marea egiten ari dela lagunei esaten. Oraingoan Sabino Arana Fundazioak bizi guztiko lana eskertuz saria eman dio. Mende-ondarrean heldu den ondarrutarrak beti egin du lan abertzaletasunean nagusi dugun alderdiaren inguruan gerraurretik hasi eta gaur arte, eta gerraldiko belaunaldia salbu, eta beste inork baino giza errekurtsio gehiago izanik, ematen du bere gizon-andereak bultzatzean, alderdi horrek ez duela azertatu euskal kulturarako kreaziogileak sortzen edo erakartzen. Beharbada lehentasunak administrazio bat eraikitzean izan ditu, eta ez du sortu Augustin Zubikaraik eta bere adinekoek osatu zuten bezalako beste belaunaldirik. Altzairua versus euskara deitu dute batzuek urritasun aldiko aukera hau. Beharbada, mendeurrena ospatzera doan alderdiak «zer da, zertan datza euskaldunon nortasuna?» bere buruari galdetuko dion hausnarketan hau ere kontuan hartuko du. □

ZARAMA ETA AHV

Roberto Moso arimatzat duen ibai-ezkerraldeko Zarama euskal rock taldeak agur esago digu aurten Ibilaldiarekin batera. Euskal kantugintza berriak bultzatu zuen erromantizismo eztabaidatutik urrun izan dugu Zarama. Bizkaiko Labe Garaietako tximiniek agur esaten diguten urte berean desegino dute taldea. Ezer ez da betirako. Ibai-ezkerraldeko beste batzuk, Eskorbuto taldeko Josu Expositok esate baterako, ez zuten horren zorte onik izan. «Cerebros destruidos» bezalako abesti fundazional bat sortu arren, ez dute gure kantarien galerian gogoratuko, ezkerralde gordinekoak beti izan baitira piska bat espositoak gure gizartean.

Gutxik gogoratuko dute Bizkaiko Labe Garaietarako elektrizitatea ekartzeko Arabako urtegieta urez baliatzen den lurpeko zentral elektriko bat egin zutela Bizkaiko Barazarreko portu-barrenean gerraoste gordinean. Zentralaren kanpoaldeko lautada batean egin zen oraintsuago Iparragirreri buruzko lehen herri-antzerki emanaldia, eta emanaldi horretan, irrigarri moduan, Franco itxurako militar bat taularatu zuten, jakin gabe, toki berean, berrogeitaka urte lehenago, Franco berbera izan zela erromantizismoz beteriko Iparragirreri buruzko antzezpenetarako argindarra erregalatu zuen zentral elektrikoa inauguratzen. Harrezkero, etengabe, argia AHVraino, Zarama taldekoek jausten ikusi duten beste eszenatokiraino heldu da. Iparragirreren kitarra baino zaharragoa den gure desmemoria idealizatuaren paradoxa krudela.□

GOIAK ETA BEHEAK

Goiak eta beheak astindu ditu Andu Lertxundik «Otto Pette» nobela paratuz, eta orain arte Euskal Telebistan, nahiz beste edozein euskal komunikabidetan, parekorik ez duen «Goenkale» telesaioko gidoilari buru legez zuzendu duen arrakastagatik. «Otto Pette», idazle umo baten kontzesiorik gabeko nobela heldua da, kritika txarrik egiten ez dakiten kritiko on guztiek azpimarratu dutenez. Kritika horretan gure mundu txiki honen sare txikiagoen interesak nabarmenegiak direlako, lagunartegian harrapatu dagoelako akaso, ilunago gelditu da nobelaren balioa, sinesgarritasuna galduz.

Eta arrakastaren zorte txar berbera gertatu zaio, apenas salbuespenik gabe, batzuk sugoia, eta beste batzuk gure arteko ikus-entzunezko medio batek sekula erakutsi duen heldutasun paregabekoaren seinale bataiatu duten Goenkalekin. Arrakastak ez du behar aitzakiarik. Oxala horrelako beste hamai-ka bagenu. Ez noa hortik. Euskal Herri ia osora heltzen den emanaldi batek isladatzen duen euskal subgizarte-ikuspegi-az baina, eta aldi berean, Gipuzkoako triangelu murriz batean kabitzen den hizkuntz aukeraz baina. Badakit orain arteko laudoriozko aipamenik gehientsuenak hain justu ere aukera ho-

rretan ikusten dutela telesaioaren azerturik handiena. Iparraldeko batzuk bakarrik entzun ditut aukera horrengatik kezaka, espainol asko jakin behar zela saioaz gozatzeko aipatuz. Eta, baita, egia esan, gidoilariak mahainguru batean bizkaitarkerien presioa jasaten dutela salatuz esan zutena. Bat oso handia irentsi eta ito egin ziren urrean. Eta gidoilarien sentsibilitatearen gabezia hori frogatzeko ez dut uste Amando de Miguel amainatuen beharrik dagoenik. □

BELDURRAK ETA GEZURRAK

Kazetariak, eta zenbait komunikabidek jasoriko mehatxuak direla eta, beldur txiki eta handiak zerez eihotzen diren zehaztu dute handik eta hemendik, eta iritzia beldurra baino libreagoa denez horrela errespetatuko dugu agiri, dokumentu, isilune, deklarazio, inork eskatu gabeko justifikazio, erantzun eta kontraerantzunen jario hori.

Baina funtsean, beldur handi eta txikien parean, gezur handi eta txikiak erabiltzen dira arinkeria errazez. Eta aspaldian eta mila aldiz historiak frogatu duenez, behin norbaiten heriotza justifikatuz gero, edota zure hurbileko norbait hil ondoren isilik egoteko erabakia hartuz gero, ez du horrenbeste ardura gezur txiki edo handi bat esan behararen detaile txiki edo handi horrek. Argiago hitz egingo nuke, baina ustez bikaina den justiziazko tratamendua eskatzeko prentsarekiko harremana Murphyren legeak estuki aplikatzen dituenik dagoen artean, ez diot nik behintzat bala bati atzetik putzik egingo, egiaren izeanean ere. Heriotza, bestela, euskal entziklopedietan «Bulgaria» eta «Bulgaria» artean egon beharko lukeen hitz batez jantzi beharko genuke: «bulgar», bulgaritate hutsa. Bizia dago lehen, eta gero ez dago. Horren simplea da, telebistaz ikusten ditugun trafiko-istripuetan legetxe. Gezurra dirudien egia beldurgarria. □

LITERATURA

XABIER MENDIGUREN

LANDART ETA IPARRALDEKO IDAZLEEN PROSA

Iaz, *Maiatz* aldizkariak bere 21. alean (lan ixil horrek ere bestelako arreta mereziko luke ba!) gai zentrala zuen: 25 urteko literatura Ipar Euskal Herrian. Bertan, Piarres Xarritonen lan interesgarri baten ondoan, Emilio Lopez Adanek beste bat paratu zuen, guztiz jakingarri eta irakurri beharrekoa (halaxe zen *Jakin* honexetan orain ale batzuetako monografikoan Iparraldeko egoerari buruz idatzi zuena ere, bertakoaz aspaldi irakurritako analisisirik zorrotz eta argiena). Besteak beste Beltzak dio, gutxi gorabehera, Daniel Landart dela Iparraldeko tradizio klasiko ederreko azken ordezkaria euskara-moldeari dagokionez; erreferentzia gisa baliozkoa dela, baina zerbait berria behar dela, zerbait berri hori *Maiatz* batasunera bildutako gazteak direla iradokiz edo. Hor badira egia osoak, baina badira komentatu nahi nituzkeen bestelako alderdiak ere. Noan puntuz puntu.

Daniel Landart idazle ona da, eta bere prosa-erretua ederra eta aldi berean funtzionala, joera ezberdinen arteko oreka: Lafittek eta *Herria*-ko kazetariak landutako idazmoldea, Iparraldeko euskalki ezberdinen ahozko ekarria eta Euskal Herri osoan, alfabetatuen artean bederen, konpreni litekeen hizkera. Oraindik irakurri ez duena oraintxe has liteke: eskura ditu Daniel gaztearen obra ezin politago hura, *Aihen ahula*, eta berriki Irun Hiria irabazi eta Kutxak publikatu dion *Batita Handia*. Gustoak anitzak dira beti ere, denbora ere aurrera doa eta bidezkoa da, hortaz, zerbait berria nahi izatea, aldaketak eskatzea. Zer dugu ordea, Landarten ostean? Zer berrikuntza? Zein idazle? *Maiatz*ek dozenaka plazaratu ditu, ezin ukatua da beren meritua. Baina noizbehinkako poemañoak eta liburu trauskil samarrak alde batera utzita, gordin hitz eginez, zenbat idazle plazaratu dira obra sendo, aberats, zabal batekin? Izango di-

ra nik ahaztutakoak, eta alde zurretik eskatzen diet hemen-dik barkamena, baina zerrenda nik egin beharko banu, pro-sagileen artean —beste poeta-pare on bat ere badago eta— bi hauek baizik ez nituzke aipatuko: Xipri Arbelbide eta Itxaro Bor-da. Xipri, Beltzaren esanera, apezten molde xahar horretan sartu beharko genuke; beraz, Itxaro baizik ez litzateke geratuko.

Ez ote dago besterik? Bai, badira gehiago. Baina, edo ez dute obra on bat egiteko denborarik izan, edo talentua dute es-kas, edo —honek ematen dit niri beldurrik handiena— hiz-kuntzaren osasuna dute higatuegia, eriegi euskara, prosa-lan bete eta oso bat egiteko. Prosak —Lafittek ere esana duzu hau— hizkera azkar, indartsua eskatzen baitu, eta horixe iru-ditzen zait niri falta dutela Lapurdiko kostaldeko zenbait idaz-le gaztek. Nahiago nuke oker banengo. Bestelako arazoa dute barnealdeko idazle gazteek: Irigoien anaiek, edo oraintsu idaz-ten hasi den Antton Lukuk, euskara indartsua, bizia, bulartsua dute, Garazi aldekoa den bezalakoa, baina ahozkoari gehiegi lo-tzen zaizkio idazterakoan ere, eta txokokeriaz beteriko idaz-molde hori konprenigaitza bihurtzen da inguru horretatik urrunduz gero; ber gauza gertatzen zaio Etxamendiri ere.

Konponbidea? Ez dakit. Lana eta ahalegina. Dena dela, Na-farroa Beherean gertatu den famili bideko hizkuntz transmi-sioaren datu kezkarria da, *Herri Urrats*-etan diru-pi-lak bilduz ere konpontzen ez dena. Bienbitartean, segi idazten Daniel, Xipri, Itxaro, Piarres, Emilio eta beste guztiek. □

FENIX-HARANBURUREN HEGADA BERRIA

Mitologiak dioenez, bere errautsetatik berpizteko ahalmena omen zuen Fenix hegaztiak, eta horregatik bihurtu da hilez-kortasunaren sinbolo. Euskal letretan, Fenix hegaztiaren pa-reko inor izendatu beharko balitz, dudarik gabe Luis Haran-buru-Altuna aukeratuko genuke. Ez idazle den aldetik, bere edi-tore-lanari dagokionez baizik.

Izan ere, nik ez daukat gogoan zenbat aldiz erreka jo eta zen-batetan abiatu den berriz Alegiako semea liburugintzako zeregin

neketsu eta zail honetan. Disgustoak ere izango zituen behin baino gehiagotan, baita berak besteei eragin ere, baina hala ere beti animoso ageri da Haranburu komunikabideetako bere agerraldi ugarietan, huntaz eta hartaz beldurrik eta lotsarik gabe mintzo.

Oraintsu hasi da berriz ere euskal idazleen liburuak plazaratzen, Pako Aristi, Luis Mari Mujika, Aitor Arana eta Haranbururen beraren obra banaz. Konkurrentzia latza dago gaur egun, irakurle-jendea beti bezain urri, baina, halaz guztiz, zorte ona eta etorkizun oparoa opa dizkiot, bihotzez, Haranburu-Altuna editoreari.□

HIZTEGIGINTZAREN HUTSUNEAK

Asko hitz egin izan da euskal entziklopedien gerraz eta. Guk ez dugu orain arte inoiz aipatu gaia baina badu bere garrantzia, baduenez. Pentsa bestela, etxez etxeko salmentan tomatoko entziklopedia bat hartzen duenak ehun mila pezetatik gorako gastua egiten duela, zirt-zart, eta pertsona horrek berak liburudendan euskarazko ehun liburu ezberdin erostera-ko berriz...

Irakurleok behintzat ezin dugu kexatu: Lur eta Elhuyar hiztegi entziklopedikoak ditugu eskura. Inoren aldeko propagandan ari naizenik pentsa ez dezazuen, gauza bakarra esango dut: biak direla on eta baliagarriak.

Proiektu entziklopedikoak ez dira produktu bakarrean agortzen ordea: liburuki bakarra egin dutenek tomatokoa prestatuko dute aurki; tomatokoa egindakoek liburuki bakarrekoa; eta biek ala biek ere, bere azpiegitura eta datu-baseari ahalik eta etekinik handiena atera nahiko diete. Bidezko eta normala da hori. Nik, hala ere, eskaera bat egin nahiko nuke, ez dakit nori baina: zenbait hiztegi-mota bikoizturik izango dugu aurki, eta ez dago gaizki, konparaziotik hobeto aukeratu ahal izango baitugu. Baina badira gure hizkuntzak behar-beharrezkoak dituen hiztegiak eta inork heldu ez dienak. Adibidez, beste askoren artean niri hauexek bururatu zaizkit: euskara-

-gaztelania/gaztelania-euskara hiztegi berri bat, azken urteotako hiztegi gintzaren aurrerapausoak jasoko dituen, eta beste horrenbeste frantsesarekin, alemanarekin eta abar. Lehena izan ezik, besteak ezin izan errentagarri, eskatzen duten lana eta balizko salmenta erkatuz gero, baina hor gastatutako dirua beste hainbat proiektutakoa baino hobeto inbertituta legoke, nire uste apalean. □

TORIBIO ALZAGA BERRARGITARATUA

Inbertsioez ari garela, askotan leporatu diogu administrazioari, kulturara dedikatutako dirua, gutxiegi izateaz gain, gaizki bideratua izaten dela. Kexati hutsak gara eta. Hala ere, noizbait asmatuko ahal zuten, eta besteetan errieta ematen diegunek txaloa zor diegu halakoetan.

P proiektu handien zaleak izan ohi dira agintari gehienak eta ez da harritzekoa, horietan erakartzen baitituzte komunikabideak, eta horiekin batera herritarren botuak. Nik, ordea, proiektu txikiak maiteago. Oraintsu, adibidez, guztiz oharkabean pasa den bat: Toribio Alzagaren zenbait antzerki-lan berrargitaratu dira Auspoa bilduman, Donostiako Udalaren laguntzaz.

Alzaga guztiz ezezaguna da irakurle gehientzat, nahiz eta gure teatroaren klasikorik handienetakoa izan, Soroa eta Barriolarekin batean. Klasiko esanda Calderón edo Molière etorriko zaio askori burura. Gureak, oster, askoz apalagoak dira, eta askoz berriagoak: komedia arinak idatzi zituzten gehienbat, jostirudiak deituak, XIX. mende-bukaera eta XX.aren hasiera artean. Berritasun eta arintasun horrek guztiz erraz egiten du haien irakurketa, eta tamalgarria da hobeto ez ezagutzea.

Antzeko zerbait esan genuen aurreko batean, Labaienen heriotza zela-eta: gaurko modako neokostunbrismoa dela-eta, arrakasta izango luketela akaso, telebistan edo oholtzan plazaratuz gero. Ez bat eta ez beste, hirugarren bide batetik zabaldu dituzte oraindik orain Labaienenak: Euskadi Irratiko foiletokisakoetan. Beste txalo bat horren arduraduneri. □

BIDAIETAKOAK, TXIKIAK ETA TXIKIENTZAKOAK

Azken aldian zer joera dabilzan indarrean galdetuz gero, liburuen atalean hiru mota aipatuko nituzke: bata, bidaia-liburuak, oraintsu arte gurean ia ezezaguna zen generoa eta orain berriz modan jarri dela dirudiena. Dena dela, moda baino gehiago kasualitate hutsa izan liteke horrelako dozenerdi bat denak batera egokitzea.

Bigarren mota, liburu txiki, merke eta kontsumozkoena. Hau ere modan dago, eta modan segituko duela pentsa liteke, jendearen ohiturak ezagututa: irakurtzeko asti gutxi eta poltsikoan diru askorik edo gastatzeko gogorik ez. Hala ere, literatura-mota hau pintxoan modukoa da benetako literaturza-learentzat: ezin konparatu bazkari eder batekin. Horrelako zerbait gertatu zait niri Atxagaren *Zeruak* irakurrita. Irrikitan nago, obra osoa noiz aterako. Seguru urteko liburua izango dela.

Hirugarren mota, haur-literatura dugu. Ezin esan moda berri-berria dugunik, aspaldi samarretik baitator. Hala ere, Durangoko azken azokan nobedade interesgarri ugari eman zuen, baita idazle berri batzuen estreinako liburua ere. Liburuzaleok ez daukazue beti helduenarekin soilik jarraitzerik. □

1.200 LIBURUTIK DOZENA-ERDI

Nirezken esaldi hori irakurri duten askok pentsatuko zuten: nola irakurriko dugu ba ateratzen den guztia, urterik urte liburu gehiago dago eta! Uste hori, gainera, indartu egingo zaie, aurreko *Jakin*-en Joan Mari Torrealdaik 1993ko liburugintzaz egindako azterketa ikusita: 1.200 euskal liburu urte horretan. Inoiz baino gehiago.

Eztabaida ugari egin litezke, noski, gure liburugintzaren on-gaitzez, bere itxurazko osasunaz eta betiko ahuleziaz. Joan Mariri utziko diot gai hori, eta zuei denoi ere bai, horretaz pentsatu nahi baduzue. Nik beste ariketa bat egin dut: 1.200 liburu horien zerrenda osoa irakurri dut, banan-banan, eta

horien artean zein liburu iruditu zaizkidan interesgarri apun-
tatu. Ez nituen denak ezagutzen, noski. Baina irakaskuntza-
koak, instituzionalak eta horrelakoak kenduz, urte horretako
literaturako liburu sortuen artean galbaheketa egin eta sei ge-
ratu zaizkit, sei, berriz ere irakurriko nituzkeenak, denborare n
iragazkia gainditu dutenak, eta inork urte horretako uztari
buruz galdetuz gero gomendatuko nizkiokenak.

Damututa nago beste batzuetan top-zerrendak egin izanaz,
bertan agertzen ez direnak haserretu egiten baitira. Hortaz,
inork gomendio partikularrik nahiko balu, dei egin diezadala.□

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

ARABATIK ETORRI GERA, HAUXE DA GURE HASIERA

Beste gairen bati gustorago helduko nioke baina ezinezkoa
zait JAKINen ale honetako txoko soziolinguistikoko hau beste
zerbaitekin hastea.

Bada, euskararen inguruan Araban sortu eta luze joko duen
historia honetan, nabarmentzea merezi duen gertakizunik:

- Hasiera bateko euskararen aurkako diskurtso «gordin»
eta zuzen hura «mozorrotzen» ari da. Euskararen aurka jotze-
tik, hizkuntz politika jakin baten aurkako jarre retara pasa da
hainbat.

- Bilakaera hau nabarmena da, eta gaur egun, jarrera hi-
perkritikoan ageri diren UA, PP eta PSOEko ordezkari gehienak,
beren zuzenketak «legetasunaren» barnean planteatzen dituz-
tela ari dira baieztatzen.

- Ez litzateke harritzekoa izango beraz, alderdi hauetatik
kanpora euskararen hizkuntz normalizazio prozesuaren aur-

ka eragin dezaketen «presio-taldeak» martxan jartzea. Sortuko ote diren, nolakoak izan daitezkeen eta zertan arituko diren neurri handi batean Arabako sektore euskaltzaleen eragin sozialaren baitan egongo da.

- Bestalde, bada ni zuzenki ukitu nauen gai bat eta azaldu nahi nukeena: euskaltzaleak, azientifiko, alderdikoi eta ez-fidagarritzat jo gaituzte. Arabako azterketa soziolinguistikoa egin behar zela eta, Batzar Nagusietan, aipatu hiru alderdien erabakiz, Euskaltzaindiaren aholkurik ez da onartu, EUSTAT-ek orain arte jasotako datuak ez dira aintzat hartu nahi izan, bi enpresa pribatu kontratatuko zirela agindu eta SIADECO alde batera utzi dute. UAKo bozeramaile batek, kalitatea eta fidagarritasuna lortzeko kanpora atera behar zela defendatu zuen (une honetan penintsulan hizkuntza minorizatuen aurkako diskurtsorik erradikalena eta fanatikoena egiten duen pertsonaz ari zen) eta azkenik, EUSTAT, PSE-EEren eskuetara iritsi eta gero onartu dute.

- Guzti honek, pentsakera honen atzean, kontzienteki edo subkontzienteki dagoen kutsu «klasista/arrazista» adierazten digu: euskaldunak, euskaldunak garelako, ez gara profesional onak. «Queremos médicos y no bertsolaris» famatu haren oinarri bera dute baieztapen horiek.

- Aspaldian ez bezalako erantzun azkar eta puntuala ezagutu du egoera honek. Erantzun anitza bestalde, alderdien eta erakundeen erantzunez gain, 4 ekimen herritar desberdin gutxienez plazaratu baitira. Ekimen horiek herritar gehienek sentimendu euskaltzalearekin bat egitea lortzen badute, frenatu ahal izango da, euskararen aurkako eraso dialektiko hau.

- Azkenik esan, aspaldiko partez, euskal politikagintzan ikusten ez zen banaketa ikusteko parada izan dugula afera hau dela medio: abertzaleak batetik eta ez-abertzaleak bestetik (eta bestelakorik entzun bada ere, kasu honetan, zoritxarrez, banaketa hau bat etorri da euskararen aldeko/aurkako banaketarekin).

Auzi hau ez da, ordea, epe laburrean gaudituko, faktore linguistikoez gain, bestelako aldagai batzuk ere nahasten direlako.

Euskaltzaleoi dagokigunez, ez da nahikoa kexatu eta arazoa maila politiko hutsean planteatzea. Arazoaren alde politiko izugarri garrantzitsua izan arren (lurraldetasuna, nazio-izaera, historia,... jarri nahi dira auzian kolpe batez), ezin daitekeelako arazoak duen oinarri sozio-kulturala ahaztu. Gogoan izan behar da, esate baterako, Araban gazte-multzo handi batek, egunean zehar ez duela batera harremanik edo ukipenik euskararekin, ikastetxetik kanpora (eta Euskal Herrian gero eta gehiago dira, euskararen aurrean jarrera indiferente edo aurka-koetan kokatzen diren gazteak, batez ere A ereduan ibilitakoak); maiz ez dugu jakin, aurrera eramandako hainbat egitas-motan aurre-informazio eta motibazio-lana behar bezala garatzen;...

Testuinguru honetan, populismo merkeak ateak zabalik aurkitu ditu, euskararen aurkako bere diskurtsua gizarteratzeko.

Arabako gertakizun hauek, kontzientziak esnatzeko, nahiak astintzeko, eta egindako okerrak zuzentzeko balio behar-ko ligukete. Arabako gizar-tearen gehiengoa euskararen alde dago eta horrela frogatu du historian zehar, euskararen aldeko inizatibetan, hamaika inkestari emandako erantzunetan, etab.

Euskararen alde dagoen gehiengo hori aktibatzen asmatu beharra dago eta gaur egun jarrera indiferenteetan edo aurka-koetan dauden gizarte-atalak gure hizkuntzaren aldeko jarretara ekartzea lortu.

Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu. Har dezagun bada denok exenplu Araba berriak sor ez dakizkigun gutxien espero dugun lekuetan.□

NAFARROA, ARRAGOA

Nafarroa aldetik datozkigun berriak ere ez dira biziki onak.

NUPen ikasleek eskubide zuten ikasketak, ofizialak diren bi hizkuntzetan egiteko (ez zen betetzen baina eskubidea behin-

tzat bazuten). Gobernuak Unibertsitateari ezarri dizkion aldaketan arabera, eskubide hori murriztu egiten da «legeak bi hizkuntza ofizialen irakaskuntzari buruz ezartzen duenaren arabera».

Euskalduntze-alfabetatzerako diru-laguntzak ere murriztu egin ditu nafar gobernuak.

Eta guzti hori gutxi balitz, Euskalerrria Irratiaren inguruko ebazpena (!!??) ezagutzeko aukera izan dugu.

Hizkuntz gaiez gain, umorearen alorra ere lantzen dudanez, bi afizioak bateratzeko parada eskaini dit Nafarroako Auzitegi Goreneko Arduralaritza-Auzipideko Magistratu jaunek izenpetutako ebatziak. Perla, perlaren atzetik:

- «... se trata de atender al interés cultural general, y éste no se circunscribe ni a la sola plaza del pueblo o su torre campanario...»
- «.. de ahí que una programación sólo en euskera pudiera considerarse perjudicial para el desarrollo cultural general...»
- «...ningún vasco-parlante de origen en la ciudad (Iruñea) ...»
- «.. el pretendido de la entidad actora (...) es discriminatorio para la mayoría de los ciudadanos...»

Horrelakoak botatzeko ezjakintasuna eta ausardia duenak, hobe du epaitegi batean baino, ETB 2-ko umore-programaren batean ihardutea. Nahikoa barre eginaraziko liguke, baina kalterik egin gabe. Tira, agian leku egokiagoa litzateke Tele 5-ko «Veredicto» programa. □

PARISTIK DATORREN ARTISTA BAT NAIZ NI

Ez dirudi Bayrouk, Gobernua konbentzitzea lortu duenik, eta bestelakorik agindu bazitzaigun ere, Frantziak azkenean ez du Hizkuntza Gutxituen Ituna sinatu.

Toubon, eta berak ordezkatzan duen guztia errotuegiak daude oraindik hexagonoan. □

BADUGU ZEINEK AGINDU

Badugu gobernu berria. Eta zantzu guztien arabera aurrekoa baino euskaltzaleagoa.

Euskalgintzan mugitzen ari diren sektoreetan, epe berri baten itxaropena sortu da.

Badakigu, gobernukide berriek muga estuak aurkituko dituztela beren lanetan:

- aurkako sektoreen markajea (izendapenak jakin bezain laister, sortu ziren aurkako iritziak prentsa ez-abertzalean)
- aurreko legealditik datozen konpromisuak eta ezein mugimendutarako marjina estua eskaintzen dutenak (eskola-legea eta itunak, Guggenheim, ...)

Hala ere, gaur egun euskalgintzak bizi duen eraldaketak, gobernu osoaren inplikazio sakonago eta zabalagoa erakarri beharke lituzke hizkuntza politikan (Osasun eta Barne sailetan batez ere) eta eragile sozialen eta instituzionalen ahalmenak optimizatzea. Geroak erranen. □

HEMEN GAUDE EUSKARAREN ALDE

Mugimendu ugari somatu da azken hilabeteotan euskararen aldeko mugimendu sozialean: Euskara Elkarteen arteko lehen bilera formala egin zen urtarrilean, Elkargo moduko zerbaitei sortzeko egokitasuna aho batez onartu zelarik; Euskal Herrian Euskarazek urteroko biltzarrea ospatu zuen Arbonan, orain arteko ihardunaren balantzea eginez eta bere iharduera-esparrua eta lan-ardatzak berrituz eta birdefinituz, arestian aipatu bezala Araban talde berriak sortu dira...

Euskararen aldeko mugimendu soziala indartzen eta suspertzen ari da. Bestalde, inoiz baino anitzagoa dela esan daiteke.

Bilakaera, aldaketa eta aniztasun hauek, panorama konplexuagoa bihurtu dute. Gure historia hurbilean, euskararen aldeko mugimendu sozialek maiz jasan behar izan dute HBren inguruko taldeak izanaren salaketa (sateliteak, desestabiliza-

tzaileak, fanatikoak...). AEKk, Egunkariak, EHEk,... eta beste hainbatek entzun behar izan dituzte horrelakoak edo antzekoak.

Hilabete hauetan berriz, nik gogoan dudala, inoiz egin dizkion kritikarik sendoenak eta gogorrenak egin dizkio HBk euskararen aldeko herri-mugimenduari: desideologizazioa, zuri-keria, menpekotasuna...

Egoeraren aldaketaren adierazle, datozkigun eztabaida garrantzitsuen aurrekin.□

TOLOSA HIRIBIDEA, 103-1. C
TEL.(943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

